

IKASKETA FEMINISTAK ETA GENEROKOAK MASTERRA
MASTER EN ESTUDIOS FEMINISTAS Y DE GÉNERO

2020-2021 Ikasturtea

Master Amaierako Lana / Trabajo Fin de Máster

**Genero bitartasuna haurdunaldian: gurasoen hazkuntza ereduak,
diskurtsoak eta praktikak.**

Egilea: Edurne Epelde Pagola

Tutorea:

Jone Miren Hernandez

2021eko iraila

Laburpena

Master Amaierako Lan honetan, haurdunaldian genero bitartasuna zein garrantzia hartzen duen ikertu da. Bizitzako etapa berezi gisa, gurasotasunaren hasiera den garaian begirada jarri da eta haurdun dauden pertsonen usteetan, sinesmenetan eta hazkuntza praktiketan arakatu da. Horiek haurra jaio aurretik dituzten, generoari buruzko gogoetetan, aurreiritzietan, usteetan, espektatibetan eta hartzen dituzten erabaki praktikoetan (izendatzea, arropa antolatzea, logela prestatzea, ekografiaren unea, opariak...) jarri da arreta. Batetik, haurdun dauden pertsonekin elkarrizketa erdi egituratuak egin dira. Bestetik, haurdunaldian zehar indarra hartzen duten hainbat objektu material (arropak, opariak, ekografiak eta abar) kontuan hartu dira. Ikerketan, askotariko iritziak, diskurtsoak eta praktikak topatu dira eta horien guztien elementu komunak aztertu dira; horiek guztiek erakusten dute hazkuntza prozesuak generoaren eraginpean gertatzen direla. Guraso batzuek eta besteek ezberdin bizi dute sexismoa eta genero bitartasuna, badira genero estereotiporik gabe hazteko ahaleaginean ari diren hainbat guraso ere.

Hitzak: gurasotasuna; generoaren sozializazioa, haurdunaldia, hazkuntza praktikak.

Resumen

En este Trabajo Fin de Máster se ha investigado el binarismo sexual y de género durante el embarazo. Como etapa especial de la vida, se ha indagado en la época en la que se entiende el inicio de la parentalidad y se ha explorado en las creencias y prácticas de crianza de las personas embarazadas. La investigación se centra tanto en las reflexiones sobre género, prejuicios, creencias, expectativas de las personas embarazadas, como en las prácticas de crianza (nombrar, organizar la ropa, preparar la habitación, momento de la ecografía, regalos...). Por un lado, se han realizado entrevistas semi-estructuradas con personas embarazadas. Por otro lado, se han tenido en cuenta algunos objetos materiales (álbumes que son documentos personales, diarios... o ropa infantil, regalos, etc.) que adquieren fuerza durante el embarazo. En la investigación se han encontrado opiniones, discursos y prácticas diversas y se han analizado los elementos comunes de todas ellas, observándose que los procesos de crianza y educación en la infancia se ejercen bajo la influencia del género. El sexismo y la transversalidad de género son vividos de forma diferente por las diferentes figuras parentales entrevistadas.

Conceptos: parentalidad; socialización del género, prácticas de aprendizaje.

**Xua, Lur, Ekaitz, Haritz, Amaiur, Alvaro, Mattin eta Irati
zuentzat eta etorkizuneko haur guztientzat izan dadila.
Zuen bidea hautatutakoa izan dadin.
Bereziki, Kantauriri eta bere amei¹, baita nireari ere: Manoliri.**

1 Kantauriren “ama”k dira prozesu hau posible egin duten bidaide guztiak: Anttoni, Ixabel, Maite, Fani, Irati, Oihana, Ekhi, Ibargu eta Miren; eta nola ez, Saioa.

I.

Ume bat izan behar zuen, pertsona bilakatuko zena. Ekografia batek, aldiz, ez dio aukerarik emango. Ginekologoak, pantailari so eginez, burua jiratu gabe, hotz esan du: mutila da. Aurrena, Jon txikia izango da. Ondoren, Jon jauna. Gertaera xeble horrek bidea egina utzi dio.

Jone M. Hernández García

Jaio orduko (... edo aurretik)

AURKIBIDEA

1.SARRERA ETA LANAREN JUSTIFIKAZIOA	6
1.1 Zergatik eta zertarako ikertu genero bitartasuna haurdunaldian	6
2. IKERKETA GALDERAK, HELBURUAK ETA HIPOTESIAK	13
2.1 Ikerketa galderak	13
2.2 Helburuak: orokorrak eta zehatzak	13
2.3 Hipotesiak	14
3. IKERKETAREN ESPARRU TEORIKOA	15
3.1 Genero sistema bitarra	15
3.1.1 Generoa eta genero sistemak: ulermen zaharrak eta berriak	15
3.1.2 Gorputzen sexuazioa prozesua: sexua(k), sexualitatea(k) eta gorputza(k)	18
3.1.3 Genero identitatea atxikitzea	24
3.2 Generoaren sozializazioa haurdunaldian	27
3.2.1 Gurasotasuna XXI. mendean: hazkuntza ereduak eta generoa	27
3.2.2 Genero bitartasuna haurdunaldian: hainbat adibide.	31
3.2.4 Objektuak eta subjektuak etengabeko harremanean.	36
3.3 Genero bitartasuna ezbaian jartzen duten hazkuntza praktikak.	38
3.3.1 Haurraren autonomia: genero autodeterminazioa	38
3.3.2 Generorik gabeko haurtzaroa: geroz eta errealagoa den utopia?	41
4. METODOLOGIA	44
4.1 Ikerketa metodoa: elkarrizketak eta objektu materialen azterketa	44
4.2 Ikerketaren lagina: haurdunak	48
5. GENEROA ETA HAZKUNTZA EREDUAK HAURDUNALDIAN	51
5.1 Haurdunaldiaren aurretik: guraso izatear.	51
5.1.1 Gurasotasuna: nola, norekin eta noiz izan guraso.	51
5.2.2 Gurasoen ilusioak eta beldurrak	55
5.2 Haurdun dauden gorputzak	57
5.2.1 Aldaketak: fisikoak, emozionalak, aldartearenak eta beste	57
5.2.2.1 Haurdunaldia COVID-19aren garaian.	60
5.2.2 “Baina, zer da?” “Zer espero duzu?”. Generoa, haurra gizaki egiten duen errealitatea.	61
5.3 Gurasotasuna iristear: oinarrian dauden balio, iritzi eta ideologiak	66
5.3.1 Gurasoaren begirada sentikorra: haurren autonomia eta genero autodeterminazioa.	66
5.3.2 Sexismoa, genero bitartasuna eta sistemarteko indarkeriak: haurren hazkuntzan oinarritzkoak eta ezinbestekoak diren balioak	69
5.3.3 Gurasotasun baimenak	73

5.4 Haurdunaldia eta hazkuntza praktikak: (genero sozializaziorako) lehenengo erabakiak eta hautuak	75
5.4.1 Lehenengo hautua: umekiaren sexua jakin ala ez.	75
5.4.2 Haurren izendatzea: izenak eta abizenak	79
5.4.3 Objektu materialak bidaide etorkizuneko haurraren (genero) eraikuntzan	83
5.4.3.1 Ekografia, etorkizunaren behatxuloa eta oroitzapen ahaztezina	85
5.4.3.2 Objektuak eta neutraltasuna: genero markarik gabe, posible ote da?	88
6. ONDORIOAK ETA BALORAZIO KRITIKOA	93
ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOA (Lanean erabili direnak)	98
ERANSKINAK	104
Elkarrizketa gidoia	104

1.SARRERA ETA LANAREN JUSTIFIKAZIOA

1.1 Zergatik eta zertarako ikertu genero bitartasuna haurdunaldian

Euskal Herrian eta munduko hainbat herrialdetan, ikasketa feministek eta mugimendu feministen praktikek hedapen, oihartzun eta garapen handia duten honetan (Salda Badago, 2020:154), jakina da sexu genero sistemak, hainbat aldagairekin² batera, egunerokoan menderakuntza harremanak sortzen dituela³ (Bonilla, 2015:20). Botere harremanetan oinarritzen den jendarte antolaketa honek menderatzaile eta menpeko kategoria bitarrak sortzen ditu eta azken horiek jendartearen antolatzaile eta egituratzaile bihurtzen dira: gizonak eta emakumeak, zuriak eta arrazializatuak⁴, bertako europearrak (mendebaldekoak edota lehen mundukoak) eta kanpokoak (hirugarren mundukoak), nagusiak eta langileak; aberatsak eta pobreak; haurrak eta helduak; gazteak eta zaharrak, ikasleak eta irakasleak; lesbianak/bollerak edota gay-ak eta heterosexuak. Anne Fasuto-Sterlingek (2006:37) beste dio mundua ulertzeko ikuspegi euroamerikarra dualismoetan eta horien argumentu hierarkikoetan oinarritzen dela. Berak, bereziki, hiru (dualismo) aipatzen ditu: sexua vs generoa, natura vs hazkuntza eta erreala vs eraikia. (Fausto-Sterling, 2006:37).

Antolaketa eredu dikotomiko horrek eta mundu ikuskera dualak eguneroko ogi diren bereizkeriak nahiz gerra eta injustizia egoerak sortzen ditu, orain inoiz baino gehiago Covid-19a deituriko osasun krisi integrala bizi dugun honetan. Horrela jaso zuen *Bizitzak Erdigunean E.H-ko Koordinadora Feministak*⁵ 2020ko apirilean kaleratu zuen dossierrak: "...sistema kapitalista, heteropatriarkal eta arrazista hau sistema biozida bat da, bizitza arriskuan jartzen du. Hori ez ezik, sistema bidegabea eta desorekatua ere bada...". Egoera horren aurrean, ikasketa feministen helburua da diskriminazio, menderatze ahalegin zein

2 Genero begiradaz ari garenean, ezin dugu ahaztu beste zenbait aldagairekin duen elkarreragina: besteak beste, arraza, etnia, klasea, desio sexuala, aniztasun funtzionala eta abar.

3 Angela Davis edo Creensaw autoreek azpimarratzen dute aldagaien arteko elkargurutzaketa hori, non arraza, generoa, sexua, gorputza, gizarte klasea, ... bektoreak ezin diren errealitate independente gisa ikusi, baizik eta haien arteko elkarreragina ikusgarri egin nahi duten, ez batuketa gisa, subjektuak osatzeko aldagaien elkartzeko gisa baizik (Bonilla, 2015: 20).

4 Gizakia ezberdinu eta parez pare jarri duen beste aldagai bat jatorria izan da. Askotariko interesen arabera bereizketa fisikoak areagotzera jo izan dugu, gure artean "arraza" ezberdinak daudela arrazoituz. Baina giza espeziea bakarra dela diote hainbat adierazpen eta ikerketak (UNESCO, 1950 eta 1951 eta 1978 arteko bere beste 10 adierazpenetan; American Journal of Physical Anthropology, 1996;...), beraz, arrazaz, baino arrazializazioaz hitz egingo dugu. Izan ere, arraza botere harreman batzuk arrazoitzeko kategoria sozial bat besterik ez baita. (Ibarguren, 2019:11)

5 Hogei talde feminista baino gehiagoren parte hartzearekin osatu zen dossierra.

bereizkeria horiek agerian jartzea eta, bide batez, justizia sozialaren bidean aldaketa sozial eta politikoa eragitea (Blazquez, 2012).

Ikerlan honen abiapuntua ere hor kokatzen da. Bereizkerien oinarrian dauden aldagaietan, ideologietan nahiz praktiketan sakondu nahi dut; sotilak izan daitezken behaketa eta gertaeretan arreta jarri. Horretarako, jendartea egituratzen duten eta identitateen eraikuntzan esanguratsuak diren genero aldagaiaren (betiere, beste aldagaiekin elkarreraginean) analisisia baliatu dut erroetara eta hasierara jotzeko, hau da, pertsonak jaio aurreko garaia, haurdunaldira. Kategoría dikotomiko bitarrak noiz eta nola sortzen, eraikitzen eta mantentzen ote diren galderaren balizko erantzunak topatu nahi izan ditut. Begirada feministak eta generokoak behin eta berriz errepikatzen du genero bitartasuna⁶ badela, baina hori noiz eta nola gertatzen ote da pertsona baten sozializazio prozesuan? Zehatzago, zein diskurtsok eta zein praktikak egiten dute jaio berri bat neska ala mutil? Ba ote da bitartasun horretatik alde egin eta malgutasun handiagoz hezteko aukerarik? Genero aldagaiarenak bezala, beste aldagai batzuen gaineko galderak ere egin daitezke neurri berean, noiz eta nola hasten dira pertsona baten eraikuntzan arrazaren, etniaren, klasearen, eta abarren kategoriak eta egoteko/egiteko moduak eraikitzen? Ikerketa honetan, ordea, arreta eta interesa genero eta sexu aldagaietan jarri dugu, batez ere. Ahalegin honetan jarritako haziak, baina, aukerak sortzen ditu, aurrerago, beste aldagaiak kontuan hartuko dituzten eta haurdunaldiaren garaia aztertzen duten ikerketa berriak egiteko, baita aldagai batzuen eta besteen arteko elkarreraginean eta ulermenean sakontzeko ere.

Master Amaierako Lan honetan, sexu genero bitartasunak haurdunaldian hartzen duen tokia ikertu dut. Bizitzako etapa gisa ulertzen den prozesuan begirada jarri eta haurdun dauden pertsonen bizipenetan arakatu dut. Gurasoek haurra jaio aurretik dituzten generoari buruzko gogoetetan, aurreiritzietan, usteetan, espektatibetan eta hartzen dituzten erabaki praktikoetan (izendatzea, arropa antolatzea, logela prestatzea, ekografiaren unea, opariak...) nahiz hazkuntza praktiketan jarri dut begirada. Batetik, haurdun dauden pertsonekin elkarrizketa erdi egituratuak egin ditut. Bestetik, haurdunaldian zehar indarra hartzen duten hainbat objektu material (dokumentu pertsonalak diren albumak, egunerokoak... edota haurrentzako arropak, opariak...) haintzat hartu ditut. Ikerketan, askotariko iritziak, diskurtsuak eta

⁶ Emakunde argitaratutako (2020) "Feminismoa eta Berdintasuna" hiztegian honela definitzen da genero bitartasuna: eraikuntza soziala, giza anatomia, jarduerak, portaerak, emozioak eta egiteko moduak dikotomikoki femenino eta maskulino moduan kategorizatzen dituen (Emakunde, 2020:38)

praktikak topatu ditut eta horien guztien elementu komunak aztertu ditut; horrez gain, gurasoen⁷ artean dauden diferentzietan arakatu dut.

Beraz, ikerlan honek sozializazioaren gaiari helduko dio bete-betean. Haurren sozializazio prozesuan aldagai ugari eragiten badute ere, oraingoan, interesa, bereziki, sexuaren edota generoaren atxikitzean jarriko dut. Haurrak genero batean edo bestean -maskulinoa ala femeninoa- sozializatu ohi dira: izenarekin, janzkerarekin, hitz egiteko moduarekin, begirada berarekin ere bai (Delgado, 2018). Haurrak oso goiz hasten dira barneratzen neska ala mutil ote diren. Zoritxarrez, gaur egun, oraindik, neska edo mutil gisa munduratzeko eta egiteko/egoteko moduak nahiz ereduak oso hertsiak dira; ondorioz, haur gehienak, eredu batean zein bestean mugitzera “behartua” daude. Garapenaren fase horretan, hain berezkoak diren iniziatiba, sortzailatasuna eta jolasa alde batera utzi eta bi generoen arabera modelatzen ikasten dute haur txikiak (Subirats, 2013; Vega, 2015). Horrela sortzen dira, itxura batean, negarrik egiten ez duten mutilak edota inoiz haserretu ezin diren neskak; ausartak, indartsuak eta futbolzaleak (edota gerrazaleak) diren zakildunak, eta menekoak, goxoak eta zaintzaileak diren aludunak. Bestalde, sozializazio prozesuak duen indarra kendu gabe, lanean zehar gorputzaren antropologiak aldarrikatzen duen begirada ere kontuan hartu dut, hau da:

gorputza ez da gizarte arloaren eta kultura arloaren sedimentazioa, baizik eta gizartearen, politikaren eta kulturaren elkargunea, eta gorputzak, azterketa hori aztertzeko unitate gisa, beste dimentsio bat hartzen du: ingurunea eraldatzeko eta inguruneak eraldatzeko duen agenzia gaitasuna” (Bonilla, 2015:17).

Mari Luz Estebanek (2013:139) ere interpretazio marko horren alde egiten du, gorputza ikerketa objektu bat gehiago dela ulertu beharrean, ikerketa objektu nagusizat hartzen du:

un cuerpo huérfano epistemológicamente, prisionero de un dispositivo de dominación (citando a Foucault) pero al mismo tiempo libre del mismo, un cuerpo agente, sujeto. Esta perspectiva exige hacer una crítica profunda del determinismo biológico (...), como del determinismo social” (Esteban, 2013a:139).

Baliagarria eta ezinbestekoa zait gorputzen agenzia agerian jartzen duen begirada hau, azken batean, generoen nahiz sexuen deseraikitzea gertatzeko, identitateen eraikuntzan, sozializazio prozesuaz gain, norberak eguneroko praktika txikietan erabakimena eta zeresana duela jakiteak aldaketarako ateak irekitzen baititu. Gurasotasunean murgildua nagoen honetan, jabetu naiz gure haurren genero sozializazioan erabateko eragina eta zeresana

⁷ Testuan zehar zenbaitetan, eta batez ere, analisiaren atalean guraso kontzeptua erabili dut haurdun dauden pertsonak izendatzeko. Argi utzi nahi dut, lan honetan, soilik, haurdun dauden pertsonak aztertu direla, ez gurasoak oro har; nahiz eta, lanean zehar, une batzuetan, haurdun dauden pertsonak izendatzeko guraso kontzeptua erabili dudana.

dugula gurasook. Izan ere badakigu haurrek helduen keinu txiki bakoitza imitatzeke joera dutela, egiten eta sentitzen duguna ikasten eta barneratzen dute, behatzaile paregabeak baitira. Maria Llopisen (2021) hitzak bat datoz nire iritziarekin:

...las criaturas aprenden por imitación, no por lo que se les dice. Si ven que cruzas la calle cuando está el semáforo en verde, aprender a cruzar cuando está en verde. Si tú cruzas en rojo pero le dices que hay que cruzar en verde, los mensajes son contradictorios y prima la acción sobre la palabra. Esto es parte de la supervivencia de la especie. Mi conclusión final con todo esto es que si yo quiero que mi hijo sea feliz, lo que tengo que hacer es serlo yo (Jiménez, 2021:8)

Haurrak badu edota pixkanaka eskuratzen du erabakitzeke eskumena, horretarako baimena ematen bazaio behintzat. Egia da, ordea, lehen haurtzaroa izendatzen den etapan, gurasook, bizi garen testuinguruarekin harremanean,⁸ hartzen ditugula haurrarekiko erabakiak. Horren ardura nahikoa dugula oro har, baina, zenbaitetan, haurraren erabakitzeke gaitasuna, finean, bere “agertzia”⁹ kontutan hartu gabe, dena guk erabakitzen dugu. Modu honetan, hezitzaileek eskainitako testuinguruari esker hazten da jaio berria; gurasoek erabakitako izenari erantzuten ikasten du, gurasoek jantzitako arropa darabil egunerokoan, eta gurasoen aipamen, egiteke modu eta mugimenduei adi-adi izaten da, beti.

Hori horrela, generoaren dekonstrukzioari begira, hezitzaile kokalekuak galdu ezin dugun aukera sortzen digu pare-parean: norberak generoekin duen harremana errebisatzeke, birpentsatzeke eta berresanguratzeke. Izan ere, askotan, diskurtso bat darabilgu ahoan, baina kontrako ekintza/sentimena adierazten dugu egunerokoan. Gainera, ideologikoki feminismoaren iturri amaigabetik edaten dugun gurasook arriskua ere izan dezakegu gehiegi predikatu, gure haurrei diskurtsoak sorrarazi, baina praktikan gure galtza eta gonei ez erreparatzeke.

Orain arteko ezagutza feministek argi utzi dute baliagarria dela amatasunaren eta hezkuntza praktiken inguruan ikertzea, besteak beste, emakumeen bizitzak arakatzeko, genero bereizkeriak identifikatzeko eta genero erakundeak nola eraikitzen diren jabetzeko (Henley, 2021:1). Interesgarria iruditu zait gurasotasuna ikertzea, genero eta sexuaren atxikitzean duen

⁸Harreman hau askotan “presiopean” gertatzen da, izan ere, zapalkuntza sistemek (tartean sexu genero sistemek) maila inkontzientean eragiten digute eta ohartzen garenetan ere ez da beti erraza espero den horretan ez eragitea.

⁹Hona hemen Hebe Bonillak (2015) “Un cuerpo propio. Performatividad(es) en las identidades infantil(es)” izeneko *Master Amaierako Lanean*, haurraren ulermenari buruz jasotzen duena: “Cada niño y cada niña despliega una manera propia de gestionar la diversidad de modelos culturales con los cuales conviven, y que provienen simultáneamente de la sociedad de origen y de la sociedad de destino (Ballestín, 2009:234;hemen aipatua_ Bonilla, 2015:53)

eragina eta eskumena ikusita. Gurasotasunaren baitan, esandakoez gain, bada ikergaia kokatzen lagundu duen erabakia, hau da, ikergaia haurdunaldira ekartzea, gurasotasuna edota gurasogintza¹⁰ eremu zabala dela oharturik. Egia esan, erabaki horrek berak ekarri dio ikerketari berritasuna, oso azterlan gutxi baitaude etapa horretan genero aldagaia analisi kategoriatik gisa erabili dutenak. Gure haurrarekin parkean igarotako orduak ekarri zidaten argitasun hori; izan ere, han beste herritar batzuekin nagoenetan, behin eta berriz entzutea tokatu zait hauxe, bi urte baino txikiagoak diren haurrei erreferentzia eginez: “nabaria da, bai, neska dela, jaiotzatik dakarte sen argia, denaz konturatzen dira, sorgin hutsak dira; mutila den nire beste bilobaren aldean, hura patxadatsua da, inozente hutsa” Behin eta berriz entzun izan dut komentarioa eta harritu egin izan nau, berez, gizonak baitu intelektuaren eta arrazoiaren hegemonia, baina oso-oso txikitik, nonbait, neskak argiagoak dira, erneagoak eta, bide batez, maltzurragoak eta matragoak, finean, gure hizkuntzan ere ez baitago mutil matraka, zalamera edo marisorginik ez eta neska zontzolo edota morroskorik ere.

Mito, uste eta esamesa horiek guztiak generoaren sozializazioaren parte ulertzen ditut nik eta horregatik, helduon igurikapenek, pentsamenduek eta egiteko moduek haurrengan duten eragina agerian jartzeko beharra sentitu nuen. Hori dela eta, begirada haurdunaldian bertan, oraindik umekia jaio ez den garaian, jartzea eta garai horretan zein ideologia, egiteko modua eta diskurtso dauden arakatzea interesgarria irudituko zait.

Baliteke egun haurdun dauden pertsonen generoari nahiz sexuari buruz galdegitea eta horretan hausnartzen jartzea bera etorkizunean ezberdin egiten hasteko modua bat izatea; nire aldetik, berriz, entzule jarrera hartzeak, parean dudana epaitu gabe jasotzeak eta guraso horien praktiken atzean dauden ulermenak bere horretan (eraldatzeko intentziorik gabe) jasotzeak egoteko eta egiteko modua berri bat eskaintzen didate ikerlari lekuan. Orain arte, beti, hezkidetzak eta pedagogia feministetan aritu naizen hezitzailea eta aholkularia izanik, nire jarrera propositiboagoa, aholkulariagoa eta ekintzaileagoa izan baita.

Zenbaitetan, aldaketa azkarregi eragin nahiak, ordea, ez dit beti uzten dagoena eta dena ikusten; ezta nire baitan dagoen guztia ere. Horregatik, lanaren abiapuntu gisa, Miren Guillok gidatutako autoetnografiari buruzko masterreko klasean egiten hasi ginen ariketa¹¹ egin nuen,

¹⁰ Gurasogintza ez da ofizialki euskaltzaindiak onartutako terminologia. baina zenbait kale erabileratan gurasotasuna terminoa ordezkatzen duen hitza da. Kontzeptu hori erabiltzearen aldekoa naiz eta hala egin dut lanean zehar une batzuetan, hazkuntza praktiken arduradun, egile eta erabakigile gisa izendatzen duelako guraso dena eta hezitzaile rola argiago ikusarazten duen sentsazioa daukat.

¹¹ Nola aplikatuko zenuke autoetnografiaren ikuspegia zure ikerketan? galderatik abiatuz lanean jarri ginen eta ondoren, gelan partekatu genituen idatzitakoak. Oso momentu hunkigarria izan zen, azkenean ulertu nuen ikaskide bakoitzak zergatik aukeratu zuen bere ikergaia. Ikerlanaren eta norberaren bizipen pertsonalaren artean dagoen harremana argigarria egin zitzaidan, ikasketa feministek auzitan jartzen duten zientziaren objektibotasun

nire haurdunaldiari buruzko bizipena idatzi arreta genero aldagaian jarritz. Ariketa horrek hain agerian eta ordenatu gabe nuen informazioa ekarriarazi zidan eta aitortza hauxe jaso nuen bertan:

Orduan baino kontzienteago naiz orain espero nuen haurraren genitalak niretzat ere garrantzitsuak zirela, bat edo beste asko aldatzen zela niretzat etorkizunaren proiektzioa. Aitortzen dut mutila izatearen aukera zela gutxien maite nuena. Beldurra eragiten zidan zakilduna izango zen izaki txiki bat hazteak, nahiago nuen aluduna izatea. Baina uste dut orduan ez nuela kontu hau hain argi ikusten eta adierazten. Horregatik, erditu berritan, negarrez ari zen gure txikiaren hankartea ikusi genuen bikoteak eta biok eta uste dut, inoiz elkarri argi esan ez badiogu ere, aluduna izateaz poztu egin ginela (Autoetnografia testutik).

Niretzat garrantzitsua da ikerlan honen motibazioa eta interesa, lehenik eta behin, guraso izatearen esperientzia pertsonalean baliagarria izatea nahi baitut; kontraesan eta dilemez beteriko egunerokoan gure haurraren genero autodeterminazioa errealitate bihurtzeko ezagutzak eta gakoak eskuratu ditut. Ondoren, baliagarria suertatuko bada, jendarteratzean; azken batean, ikerlan honen funtzionaltasunean eta interes sozialean erreparatuz, hiru balio azpimarratuko nituzke. Lanaren lehenengo balioa litzateke itzalean nahiz inkontzientean gurasoon hazkuntza praktikak gidatzen dituzten ideologiak eta horietan eragiten duten sistemarteko zapalkuntzak eta indarkeriak¹² argira edota agerira ekartzea. Indarkeria horiei guztiei lotzen zaizkien genero eta sexuaren baita sexualitatearen naturalizazioari buruzko diskurtsoak ezbaian jartzea. Azken finean, generoen deseraikitze lanetan ari direnei galdera berriak egitea eta sexismoaren aztarnak identifikatzeko tresnak eskuratzeko. Bigarren interesa aztarna sexista horiei buruz hausnartzeko espazioak irekitzea eta sexu genero sistemen eraginak azaleratzen jarraitzea litzateke, zoritxarrez, gaur egun haurdunaldian zehar egiten diren prestaketetan ez baita gaiari buruz hitz egiten.

Lanaren hirugarren ekarpen sozialak, berriz, jaioko diren pertsonen egiten die erreferentzia. Gurasook sexismoa identifikatzeko tresnak baldin baditugu, eta formatzeko eta eta neutraltasunaren idea ulertzeko.

¹² Sistemarteko indarkeriak edota indarkeria transistemikoak kontzeptua *Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxako plataforman* kolektiboki proposaturiko kontzeptua da. Indarkeria matxista eta emakumeen eraiketen aurrean aktibatzen den protokoloaren gaineko hainbat eztabaidatan (2015; 2017) adostu zen kontzeptua. Honela definitzen da sistemarteko indarkeria: indarkeriak ez dira modu isolatuan eta bakartuan gertatzen diren erasoak. Bizi garen jendartearen antolaketa sexistak ahalbidetzen eta sustatzen duen indarkeriaren erabileraz ari gara. Hargatik, indarkeria sexistaz hitz egiten dugunean, ezinbestean kokatu behar dugu sistema oso baten barnean: heteropatriarkatua, kapitalismoa eta kolonialismoa gurutzatzen diren sisteman, hain zuzen ere. Zapalkuntza sistema horien arteko loturak askotariko biolentziak eragiten ditu. Horretaz ari gara indarkeria transistemikoez hitz egitean. Zapalkuntza sistemak ez daude airean, gure gorputzetan gurutzatzen dira hainbat une eta eratan: klasea, arraza, jatorria, adina, nazioa, hizkuntza, orientazio sexuala, genero identitatea, itxura fisikoa, aniztasun funtzionala, etab. Gurutzatze horrek (interseksionalitateak) agerian uzten du emakumeen gorputzetan eragiten duen dominazio sistema; emakume bakoitzak gizartean izango duen posizioa eta aukerak determinatzen ditu (EMM, 2017).

eztabaidatzeko topaketak sortzea posible bada, azken batean, gure etxekoak (haurrak eta ez haurrak bakarrik) askatasun, aniztasun eta genero malgutasunean hezteko aukerak hirukoiztuko dira. Norabide horretan hitz egiten du Marina Subiratsek (2013) ere: “Así que el trabajo de deconstrucción de los géneros, por decirlo en términos académicos, no termina nunca...”. Horrez gain, ingurune askeak eta askotarikoak sortzeko aukera gaineratzen du: “un entorno más libre y más diverso, en el que el sexo de las personas sea una maravillosa capacidad de gozar y dar vida, no un destino mutilado desde antes de nacer” (Subirats, 2013:15).

Lanean zehar erabili ditudan bi kontzepturen argipena egin nahiko nuke jarraian. Batetik, ama kontzeptua baino gehiago guraso edota gurasotasun kontzeptua erabiltzearen alde egin dut, alde batetik, nolabait ama esangurak dituen konnotazioak gainditzeko asmoarekin eta beste alde batetik, gaur egun, ama eta aita izateko dauden askotariko moduak, ereduak eta alternatibak ikusgarri egiteko. Horrez gain eta bestetik, hazkuntza praktikei buruz arituko naiz, hezkuntza praktikak ere izan zitezkeen, izan ere hezkuntza eta hazkuntza kontzeptuen arteko aldea ez da argia. Bien arteko diferentzia argi ikusi ez arren, hazkuntza terminoak haur txikiagoei, etxeari, etxekoei eta hasierako urteei erreferentzia gehiago egiten diela sentitzen dut. Aldi berean, hezkuntza terminoak, hazteak eta hezteak duen zeregin sozial eta kulturalagoari egiten dio erreferentzia eta hori ere garrantzitsua iruditzen zait. Beraz, hazkuntzari eta hazkuntza praktikei buruz hitz egingo da lanean bereziki, baina hezkuntzaren dimentsio hori ere barnebidu nahiko nuke kontzeptu horren bidez.

Dokumentu hau, irakurtzen ari zaren sarrera honetaz gain, bost ataletan egituratu dut: lehenik eta behin, ikerketaren helburuen eta hipotesien argipena egin dut; bigarrenik, esparru teorikoaren atala idatzi dut, atal honek egindako landa lana ulertzeko ezagutzak eta jakintzak biltzen ditu; hirugarrenik, erabilitako metodologiaren azalpena jaso dut, bertan, landa lanaren deskribapena, nondik eta nola egin den eta zein metodo erabili den kontatu dut; laugarren atalak lanaren mamia eta eduki esanguratsua biltzen du, atal horretan, egindako elkarrizketa eta landa lanaren kategoria analitikoaren araberrako analisi sakona aurkituko duzue; azkenik, bosgarren atal batean, ikerlanaren ondorioak jaso dira, baita lanaren hutsune zenbait eta aurrera begirako lan ildo proposamenak ere.

2. IKERKETA GALDERAK, HELBURUAK ETA HIPOTESIAK

Jarraian, genero bitartasuna haurdunaldian iker eremu zabala definitzeko, zehazteko eta jo puntuan jartzeko ezinbestekoak izan diren ikerketa galderak, horietatik sortu diren helburu orokorrak nahiz zehatzak eta hipotesiak formulatu dira.

2.1 Ikerketa galderak

- Gurasoek (haurdun dauden pertsonak) zein diskurtso eta narratiba dituzte genero identitateari dagokionez?
- Gurasoek (haurdun dauden pertsonak) zein praktika dituzte genero/sexu aldagaiari dagokionez.
- Dokumentu pertsonalek nahiz haurdunaldiko objektu osagarriek zein eragin/inplikazio dute generoaren sozializazioan? Nola eragiten dute genero identitatea atxikitzean?

2.2 Helburuak: orokorrak eta zehatzak

1. Haurdunaldian zehar, jaioko den haurdunaldian gurean gurasoek genero identitateari buruz dituzten uste, balio eta diskurtsoak jaso eta horiek aztertzea.
 - a. Haurdunaldian zehar bizitako gorputz sententzioak jaso eta horietan genero identitateak izan ditzakeen eraginak ikustea.
 - b. Generoaren sozializazio prozesua noiz eta nola hasten den ikertzea eta bide horretan gurasoen bizipenak, dilemak, zalantzak, galderak nahiz hausnarketak identifikatzea.
 - c. Gurasoek haurdunaldiko dituzten igurikapenetan, ilusioetan zein ametsetan genero identitateak duen eragina aztertzea.
 - d. Hazkuntza ereduak identifikatzea eta horietan genero identitateari buruz esaten dena agerian jartzea.
2. Haurdunaldian zehar, jaioko den haurdunaldian (pertsonaren) inguruan sortzen diren gurasotasun (hazkuntza) praktikak, erabakiak eta egiteko moduak bildu, identifikatu eta arakatzea. Horiek gure egunerokoan, une honetan nagusitzen diren hazkuntza ideologia nahiz praktikekin dituzten harreman eta loturak aztertzea.
 - a. Haurdun dagoen pertsonarentzat eta bere inguruarentzat haurdunaldian sexua jakitea garrantzitsua ote den identifikatzea. Horretarako, ekografiako unean

- dituzten praktikak jasotzea, inguruak egiten dizkien opariak (eta horiek sexuaren arabera ezberdinak ote diren) aztertzea.
- b. Jaioko den haurraren izendapena nola egiten den aztertzea. Gurasoek haurraren izena zein aldagairen arabera erabakitzen duten ikertzea.
 - c. Gurasotasun baimenak ezagutzea eta horiek familia antolaketan duten eraginaz hausnartzea
3. Jaio berriari lekua egiteko eta biografia sortzeko gurasoek erabiltzen dituzten objektu materialak aztertzea, batez ere, arreta genero aldagaian jarritz. Aztertutako objektu horiek generoaren eraikuntzan duten agentzia eta gaitasun sinbolikoa arakatzea.

2.3 Hipotesiak

1. Haurdun dauden pertsonen artean, genero identitateari buruz askotariko diskurtso, uste eta sinesmenak topatzea espero da. Batez ere, bi talde topatuko ditugula uste da: batetik, genero identitatearen gaiari buruz hausnartu dutenak eta generoen araberrako banaketa bitarra ezbaian jartzeko ahalegina egiten dutenak; bestetik, gehiengoak, genero identitateari buruz gehiegi pentsatu ez dutenak eta beraiek jasotako ideologia bere horretan jaioko den haurrarekin partekatuko dutenak.
2. Haurdunaldian zehar, jaioko den haurraren inguruan sortzen diren gurasotasun (hazkuntza) praktiketan, erabakietan eta egiteko moduetan sexu eta genero aldagaiek eragin zuzena eta erabatekoa dute. Hori dela eta, neska ala mutila den jakin nahi izaten dute gurasoek, horren arabera, izen bat edo bestea jartzeko, baita arropa eta etxeko logela antolatzeke ere.
3. Haurdunaldia une esanguratsu eta sinboliko gisa, gurasoek une hori erregistratzeko eta esangura emateko erabiltzen dituzten haurrentzako objektu materialak edota dokumentu pertsonalak agente aktiboak dira jaioko den pertsonaren askotariko identitateen (pertsonala, generokoa, sexuala, klasea, etnia...) eraikuntzan.

Irakurri berri dituzun galderetan, helburuetan eta hipotesietan barneratzeko eta horietan sakontzeko beharrezkoa izan da ezagutza eta oinarri teorikoetan arakatzea eta ikerketa zein begiradatik (edota begiradetatik) egingo dudan zehaztea. Datorren atalean, ikerketaren esparru teorikoa deiturikoan ikerketa honetan oinarriak izan diren ezagutza teorikoak jasota topatuko dituzu.

3. IKERKETAREN ESPARRU TEORIKOA

Atal honetan, esanda bezala, haurdunaldian zehar generoaren ikergaia sakontzeko ezinbestekoa den testuinguru teorikoa jaso da. Hiru sekzio berezitetan bildu dira ondoren analisia ulertzen lagunduko duten betaurreko teorikoak.

Alde batetik, azken hamarkadetan generoari, sexuari, sexualitateei nahiz identitateei buruz egin diren askotariko ekarpen teoriko esanguratsuak jaso dira; besteak beste, genero sistema, sexua, genero identitatea nahiz sexualitatea kontzeptuaren ulermenak harilkatu dira.

Bigarren atalean, gurasotasunean eta guraso izatearen prozesuan murgildu eta haurdunaldiaren testuingurua eta genero aldagaia kontuan hartu dira. Horren harira, XXI.mendean, guraso izateari, haurdunaldi prozesuari, sasoi horretan jasaten den genero bitartasunari (hainbat adibide argira ekarriz) eta objektu materialek generoaren sozializazioan duten inplikazioei buruz argudiatu da.

Azken atalean, genero bitartasuna ezbaian jartzen laguntzen duten aldarrikapen eta hazkuntza praktikak bildu dira, oraindik orain genero autodeterminazioaren aldeko saiakerak urriak badira ere, familia testuinguruan, pixkanaka, hainbat guraso hasi baitira maila teorikoan garatu dena praktikara eramanez.

Ikerlan hau, bereziki, antropologia feministan eta horretan dabilen adituen lanetan oinarritu da, nahiz eta diziplinen arteko mugak ez diren batere argiak, gehienetan, diziplinartekotasunari esker, jakintzagaiak elkarreaginean baitaude.

3.1 Genero sistema bitarra

3.1.1 Genero eta genero sistemak: ulermen zaharrak eta berriak

Genero sistema kontzeptuaren ibilbidea eta erabilera ulertzeko beharrezkoa da feminismoan 70eko eta 80ko hamarkadetan izan ziren eztabaida teoriko eta analisi kategorien inguruko norabidetze askotarikoak aipatzea. Testu honetan horietan gehiegi sakonduko ez den arren, esan daiteke, bereziki, eztabaida ugariren artean bazen ere, menderatze maskulinoa izendatzeko patriarkatua kontzeptua erabiltzeko joera zabaldu zela; jakin nahi zen ea menderatze hori unibertsala ote zen bere osotasunean, edota hainbat prozesuk eta faktore komunek eragiten ote zuten menderatzearen arrazoi estrukturaletan (Thuren, 2008:100; hemen aipatua: Del Valle eta al, 2002:19). Testuinguru horretan, Gayle Rubin antropologoak, 1975ean argitaratutako artikulu klasiko batean, “The traffic of Women: notes on the Political Economy of sex” izenekoan, patriarkatuaren erabateko erabileraren kritika planteatzen du

lehen aldiz. Rubinek argudiatzen du patriarkatua gizarte jakin baten, Itun Zaharreko artzain nomaden kasuan gizonezkoaren menderatze modu jakin bat baino ez dela, eta, beraz, “kapitalismo” terminoaren erabilera bezain mugatua dela hainbat ekoizpen moduri buruz hitz egiteko (Esteban, 2019a:92).

Teresa Del Valle eta al-ek (2020:20) aipatzen dutenez, kritika horren aurrean, “sexu/genero sistema” erabiltzea proposatu zuen; ondoren, berak berrikusi eta “genero sistema”-k kontzeptuagatik ordezkatu zen. Autoreak interesa zuen genero estratifikazio sistemek hartzen dituzten askotariko formak ikertzekoa, eta, ondorioz, sexualitatea eta ugalketa, baita sexuaren eta generoaren esangurak ere behar bezala deskribatzea ahalbideratuko zuten kontzeptuak proposatu nahi zuen. Ahalegin horretatik, *sexua/generoa* terminoa formulatu zuen eta erreferentzia egin nahi izan zien esku hartze sozialaren (baita arau sistemen) parte diren bitarteko nahiz hitzarmen multzo soziokulturalei, zeinak sexuaren materia biologikoaren eta giza ugalketaren osaketan eragin zuzena eta erabatekoa duten: “Este sistema constituiría, a juicio de la autora, normas, representaciones, prácticas sociales, incluida la división social del trabajo e identidades subjetivas” (ibid) eta gaineratzen du “... el género es una proceso arbitrado por las relaciones de poder y, por consiguiente, supone dar cuenta de la transformación de la diferencia en desigualdad” (Ong, 1992; hemen aipatua: Del Valle eta al, 2002:21).

Beraz, Maria Ruizek (2007:14-15) jasotzen duen moduan, boterearen eta espazioaren bereizketa eragiten duten gizonei eta emakumei buruzko irudikapen eta jarduera sozial oro da generoa. Gizonezkoak eta emakumezkoak bereizten dituzten jarrerak, sentimenduak, portaerak, balioak eta abarrak biltzen dituen eraikuntza sozialen multzoa da. Era berean, hainbat mailatan garatzen den prozesu historikoa da, estatuan, eskolan, lanean edota etxean. Gaineratzen du autoreak prozesu horrek ezaugarri eta jarduera horien hierarkizazioa dakarrela eta maskulinoari estatus handiagoa dagokiola. Hierarkizazio horri buruz eta maskulinoaren unibertsaltasunaz hitz egin zuen Simone de Beauvoirrek (1949) *Bigarren sexua* bere lanean: “Gizonaren aldean determinatzen eta bereizten da emakumea, baina ez emakumearen aldean gizona; emakumea inesentziala da, esentzialaren kontrakarrean. Gizona Subjektua da, Absolutua; emakumea Bestea da” (Beavoir, 2019:10).

Britt-Marie Thuren-en (1992:47) iritziz, berriz, “el género es todo lo demás: todas las ideas acerca de los sexos, empezando por la de cuántos sexos hay (que no siempre son dos), y toda la organización social que parte de esas ideas; los criterios para la categorización, las representaciones, la división del trabajo, el reparto de responsabilidades” (ibid: 47).

Generoa aulertzeko modu honetan, garrantzitsua da bi kontu azpimarratzea: aurrenekoa, generoaren eta beste estratifikazio faktoreen arteko elkarreragina dago. Asko dira klasea, generoa, arraza eta etniaren arteko loturak batera aztertu behar direla dioten ikerlariak, Norabide honetan, Estebanek (2019a:94-95) hauxe baieztatzen du:

La articulación del género con otras formas de jerarquización social, que ya estaba presente en los análisis antropológicos feministas previamente a la importancia que hoy día ha tomado el concepto de interseccionalidad a nivel general. Se entiende que el género no es una categoría unitaria, sino que “atraviesa y es atravesado por otras estructuras sociales de desigualdad” (Maquieira, 1999:8), como la edad, la clase social, la etnia, la raza, la nacionalidad, la experiencia colonial o la posición en el orden mundial, entre otras.

Bigarren azpimarra testuinguruaren garrantzian jarri behar da, finean, aldaketa historikoak, sozialak zein kulturalak aintzat hartzen baitira generoen ulermenetan (Ruiz, 2008:14). Estebanek (2019a:94) hauxe eranstean du: “se considera fundamental reparar en las coordenadas espaciales y temporales de las relaciones de género”. Azken batean, emakume izatea eta gizon izatea, alegia, feminitate eta maskulinitate ereduak, garai historikoaren arabera, aldaketa konstantean izan dira eta izango dira; ideologia, pentsamendu eta beste zenbait eraginaren arabera, norabide bat edo bestea hartzen dute. Testuinguru historikoaz aparte, uneko testuinguru sozial, ekonomiko eta politikoak ere guztiz baldintzatzen ditu ezarritako genero idetitateak, ezarriak edo eraikiak izanik ere, performatu eta gorpuztu egiten baitira (Fausto Sterlin, 2006).

Planteamendu horiek, azken hamarkadetan, genero sistemen teoriarik sakontzea ekarri dute eta aipagarria da horien inguruan aritu diren gizarte zientzietako hainbat feministaren (Raewyn Connell, 1987; Jane Sattzman, 1992) ekarpena. Del Valle eta al-ek (2002:23) aipatzen duten moduan, horien artean, interesgarria da Raewyn Connell aipatzea: soziologo horrek *Gender and Power* (1987) lana argitaratu zuen eta generoaren teoria sozial sistemikoa proposatu zuen. Lan horretan, ezbaian jarri zituen gizarte ikerketan nahiz feminismoan garatu ziren eta kategorietan oinarritzen ziren teoriak, horiek emakume eta gizon kategoriak estatiko eta ahistoriko gisa ulertzen baitzituzten eta, gainera, diferentzia biologikoei lotuta ulertzen ziren. Generoaren bereizkeria egoerak ulertzeko, autore horrek proposatu zuen elkarreraginean dauden hiru azpi sistema bereiztea eta horiek aztertzea: botere harremanak, lanaren banaketa nahiz produkzio moduak eta cathexis deiturikoa, konfigurazio emozionalari dagokiona (Esteban, 2019a:93). Azpisistema horien zehaztapenak ekarpen berriak egin zituen genero adierazpidearen ulermenean ere :

Desde esta perspectiva, las representaciones de género constituyen elaboraciones simbólicas no sólo visuales sino también discursivas acerca de las relaciones entre hombres y mujeres y su lugar en la sociedad.[...]Constituyen el conjunto de ideas, creencias y significados a través de los cuales cada sociedad en un tiempo histórico concreto define los atributos sociales y psicológicos, así como los estereotipos de los grupos sociales en cuestión. Las representaciones de género poseen, por consiguiente, una dimensión simbólica que afecta y es afectada por la división del trabajo, afecta y es afectada por las estructuras de poder y asimismo contribuye a la construcción de las identidades subjetivas. (Del Valle et al, 2002:28).

Genero sistemak bereizkeriak eragiten dituzten sistemak direla ulertuta (Esteban, 2019a:94) eta generoa gizarte antolaketaren oinarritzko elementuetako batenez, bere azterketa funtsezkoa da edozein gizarte fenomeno edo ikergai ulertzeko. Ikerlan honek genero sistemek herritarren egunerokoan dituzten ondorio eta eraginak aztertu nahi ditu, arreta eta begirada haurdunaldi garaian gurasoek dituzten diskurtso eta praktiketan jarriz. Norabide horretan, Connellen (1987) ekarpen teorikoei jarraiki, egunerokoan esanguratsua den erakunde batean arreta jarri da, familia edota ingurune sozio afektiboan. Autore horrek dioenez, genero harremanak erakunde guztietan daude eta haien praktiken azterketa enpirikoa eremu pribilegiatua bilakatzen da. Erakundeei dagokienez, formalizatuenak aipatzen ditu, hala nola etxeak, ahaidetasuna, hirigintza, estatua edo lan merkatua, baina baita eguneroko bizitzaren elkarreragina gertatzen den beste erakunde informal batzuk ere, hala nola kalea edo kuadrilla. Eta erakundeen sailkapen horrekin batera erakunde bakoitza izendatzeko “genero erregimen” terminoa erabiltzen du (Del Valle eta al, 2002:26).

3.1.2 Gorputzen sexuazioa prozesua: sexua(k), sexualitatea(k) eta gorputza(k)

Aurreko atalean azaldu dugu generoa gizarte eraikuntza bat dela, baina aldi berean gizartea eraikitzen duela. Maggie Bullenek (2017:49) argitzen du generoa gizarte harremanen bidez definitzen dela eta pertsonen arteko harremanak gizarte egituraren pieza garrantzitsuak direla. Hori dela eta, harreman horiek zedarritzen dute gizartearen antolaketa politikoa, ekonomikoa eta soziala. Horregatik, genero sistema gizarte ordenaren funtsezko elementua da eta, mendebaldeko jendartean, ikuspegi bitarra du oinarrian, bi kategoria bateraezinetan sailkatzeko/bereizteko joera baitu; normalean, bi kategoria baino ez daude onartuak eta horiek beraien artean baztertzaileak dira. Era berean, heteroarauaren bidez desio heterosexuala sustatzen da eta baztertzaileak diren bi sexuak nahiz generoak elkarlotzeko aukera eta betebeharra ezartzen da. Francisco Javier Perezek (2014:14) Lurdes Méndez (1995) aipatuz baieztatzen du gizarte gehienek kezka garrantzitsua dela gizon eta emakumeen

gorputzak sexuatuak direla erakustea. Gorputzean egiten diren mota askotako esku hartzeen bitartez, norbanakoen generoa ezartzen da, baita jaio berriena ere, nahiz eta horietan desberdintzea zailagoa den. Zehazten du mendebaldeko jendarteetan bereizketa bitar hori, sexuazio prozesuaren bidez, norbanako jaioberrietaraino iristen dela; horrez gain, galdera interesgarria egiten du: zergatik dugu hainbeste interes/behar nesken eta mutilen gorputzak desberdintzeko?:

En un afán por predecir su sexo y comenzar a mostrarlo como individuo sexuado a través del color de la ropa, de su dormitorio, de sus juguetes y el resto de enseres que lo acompañarán los primeros meses hasta que la misma pueda ser realizada por otros medios. Posteriormente, las intervenciones sobre el cuerpo son continuas y se realizan atendiendo al uso de determinadas prendas de vestir o su colorido, calzado, uso de ciertos adornos para el cuerpo, como collares, brazaletes, pendientes... Tener un cuerpo sexuado conlleva la enseñanza de unos patrones distintos de comportamiento, de motricidad, de uso del espacio, de alimentación y, consiguientemente, de talla y peso. La pregunta que deberíamos realizarnos a colación de esto es: si son tan evidentes las diferencias entre los dos sexos, ¿por qué tanto afán en diferenciar los cuerpos? (Perez, 2014:14)

Gainera, mendebaldeko pentsamenduan hedatua dagoen mundu ikuskera dualista hori hierarkikoa da, bi aldeen artean beti botere harremanak baitaude. Bullenen (2017:45) arabera, hain barneratuta daukagu mundua bi erditan banatzen dela, bata femeninoa eta bestea maskulinoa, non —baita ikerlari feministaren jardunean ere— oso zaila egiten baita pentsamenduaren egitura dimorfikoa gainditzea; eta are gehiago onartzen bada, ez generoa, ez sexua ez direla kategoria bakar, lineal edo homogeenak, munduan bi aukera baino gehiago daudela (Bullen, 2017:45). Horrez gain, politikoki kontserbadoreak diren ideologietan ohikoa da bi sexu eta bi generoen existentzia eta emakume eta gizonen arteko harreman sexual heterosexuala (sozialki desiragarri den instituzio bakar gisa) justifikatzeko biologiaren jakintzagaia erabiltzea. Jeffrey Weeks-ek (1992; Perez, 2014:14) aipatzen du naturala denaren justifikazioak, hau da, gertaera sozialak berezkotasun natural bati esleitzeak, gure ideiei sendotasuna eta egiazkotasuna ematen diela, horregatik biologiara jotzeko joera. Hala ere, diziplina horrek ez dio ikerlariaren subjektibotasunari eta bere iruditeria kulturalari ihes egiten.

Aurretik esanda bezala, bai Antropologia Feministaren bai Gizarte Zientzietako ikuspegi feministaren asmoa da eta izan da bitartasun hori agerian eta ezbaian jartzea. Ukaezina da dualismoa naturalizatzeko joera zientziara zabaldua dagoela. Horren aurrean, ezagutza feministaren lana izan da sailkapen hori eraikia dela agerian jartzea, nahiz eta Fausto-Sterling (2006:36) bat datorren aurrerago aipatu dugun Bullenen (2017) iritziarekin: “Pero las

feministas también tienen proposiciones incorregibles, y una central ha sido que todas las culturas, como escribe la antropóloga nigeriana, «organizan su mundo social a través de una percepción de los cuerpos humanos» como masculinos o femeninos” .

Aipatzen ari garen bitartasun hori agerian jartzeko, interesgarria da sexuaren eta sexualitatearen kontzeptuek historian zehar lekuaren nahiz garaiaren arabera izan dituzten ulermenetan arakatzea. Elvira Burgosek (2012:335) argi adierazten du: “postular dos sexos diferenciados, irreductibles, y solo dos, ni menos ni más, es una exitosa estrategia para sedimentar dos sistemas de opresión en el mismo movimiento: sexismo y heterosexismo se refuerzan mutuamente”. Nolabait, sexua terminoaren bidez ezaugarri fisiko, fisiologiko, anatomiko, biologiko eta abarrei egiten zaie erreferentzia. Askotan, ugaltze ahalmenarekin ere lotzen da, baina hori baino askoz ere gehiago da —adibidez, gizon eta emakume antzuek daude— eta beste gaitasun batzuekin ere erlazionaturik dago (Ruiz, 2007:12). Maiz, sexua zeozer objektiboa, neutrala, naturala eta biologikoa dela pentsatzen da, baina badira termino horren gainean egiten diren interpretazio sozial zein kulturalak (Ibid). Thomas Laqueurrek (1994; Burgos, 2012:334) hori baieztatu zuen *La construcción del sexo* izeneko bere lanean: “el concepto sexo, de dos sexos, es un recurso, potente sin duda, para naturalizar el género binario, aquello que es una elaboración propia de lo humano en su contexto social”.

Anne Fausto-Sterling da sexuazio prozesu bitarra ezbaian jarri duen eta giza portaera sexuala (sexualitatea) historia eta kulturaren arabera aztertu behar dela dioen biologo feminista ezagunetako¹³ bat. Gainera, *Cuerpos Sexuados* (2006:42) bere lanean, sistema ontogenikoen teoriak baliatuta, biologia ere soziala¹⁴ dela aldarrikatzen du eta honela azaltzen du bere lanaren tesi nagusia:

...las verdades sobre la sexualidad humana creadas por los intelectuales en general y los biólogos en particular forman parte de los debates políticos, sociales y morales sobre nuestras culturas y economías. Al mismo tiempo, los ingredientes de nuestros debates políticos, sociales y morales se incorporan, en un sentido muy literal, a nuestro ser fisiológico. Mi intención es mostrar la dependencia mutua de estas

¹³ Perezek (2014:15-16) Anne Fausto-Sterlingez gain, gutxienez, sexuaren naturalizazioa auzitan jartzen duten beste bi autore aipatzen ditu. Batetik, Joan Roughgard biologo estatubatuarra, *El arcoiris de la evolución* izeneko liburuan, mundu naturaleko sexu eta sexualitateari buruzko azterketa sakona egin zuen, ondoak, landareak, intsektuak eta ugaztunak barne. Bere kalkuluen arabera, animalia-espezieen erdiak ez dira arrak eta emeak kategoriatan sartzen. Bere ustez, sexuari eta sexualitateari buruz ditugun ideien eremua zabaldu behar da, naturak eskaintzen duen aniztasunaren magnitudea ulertzeko. Bestetik, María Jesús Izquierdo (1985; Perez, 2014:15ean aipatua) zeinak sexuazio prozesuaren ar eta eme ulermen mugatua zabaldu eta xehetasunak ikusarazi nahian sexu kromosomikoari, sexu gonadei eta sexu hormonei buruz eta horien artean gertatzen diren askotariko aukerei buruz hitz egiten duen.

¹⁴ Bere baieztapenek Per J. Taylor autorearen ideietan dute oinarria; honek prozesu sozialak eta naturalak ezin direla banatu argumentatu zuen (Fausto-Sterlin, 2006:17).

afirmaciones, en parte abordando temas como la manera en que los científicos (a través de su vida diaria, experimentos y prácticas médicas) crean verdades sobre la sexualidad; cómo nuestros cuerpos incorporan y confirman estas verdades; y cómo estas verdades, esculpidas por el medio social en el que los biólogos ejercen su profesión, remodelan a su vez nuestro entorno cultural (Sterling, 2006:20).

Autoreak baieztatzen du gure gorputzak konplexuegiak direla ezberdintasun sexualen gainean eratzun definituak eta itxiak topatzeko: “cuanto más buscamos una base física simple para el sexo, más claro resulta que «sexo» no es una categoría puramente física” (ibid:19). Gorputz intersexualen adibidea erabiltzen du hori berresteko; izan ere, mendebaldeko anatomia eta fisiologiari buruzko ezagutza mediku eta zientifikoak dio XX kromosomadun jaioberri bat obulutegiarekin zein umetokiarekin eta aldi berean zakila zein barrabil zorroarekin jaiotzen bada, ugaltzeko duen gaitasunarengatik (nahiz eta kirurgia eta tratamendu hormonalak erabili behar izan gorputzean aldaketak egiteko) neska dela. Horren aurrean, autoreak zera aipatzen du: “la elección de los criterios para determinar el sexo, y la voluntad misma de determinarlo, son decisiones sociales para las que los científicos no pueden ofrecer guías absolutas” (Ibid: 20). Beraz, neska edo mutil izendatzea erabaki soziala da finean, ezagutza zientifikoak erabaki horretan lagundu badezake ere, generoaren ulermen sozialak eta ez zientziak definitzen baitu sexua (ibid:17). Horrela, kultura europearrak eta amerikarrek bi sexu bakarrik existitzen diren ideari sendotasun osoz eusten diote, hizkuntzak berak bi sexu baino gehiago izendatzeko aukerarik ez eskaintzea da horren abibidea.

Kontrara, gure gizartean, Fausto Sterlingek (2006:48) baieztatzen duen moduan, umekia jaio aurretik sexu batean ala bestean kategorizatzeke joera areagotzen ari da gaur egun:

En efecto, hemos comenzado a insistir en la dicotomía macho hembra a edades cada vez más tempranas, lo que ha contribuido a que el sistema de dos sexos se implante más profundamente en nuestra visión de la vida humana y nos parezca innato y natural. Hoy día, meses antes de que el feto abandone el confort del útero, la amniocentesis y los ultrasonidos identifican su sexo. Los progenitores pueden así elegir por anticipado el papel pintado del cuarto del bebé: motivos deportivos —en azul— si esperan un niño y florales —en rosa— si esperan una niña..

Sexua kontzeptuaren inguruko kezka eta hausnarketak sexualitatearen ulermen eta esanahiekin elkarloturik doaz. Honela azaltzen du Burgosek (2012:338):

El sexo que porta le es asignado sin que yo, en primera instancia, pueda pronunciarle al respecto; el género que exhibe le es prescrito en coherencia con el sexo; el deseo y la sexualidad le es inducido por la rígida norma de la heterosexualidad. La sociedad se encarga de difundir repetitiva e insistentemente la erotización heterosexualizada de los cuerpos negando y disimulando, si no prohibiendo, otros referentes del deseo.

XIX. mendetik aurrera, eta hiritartasun kontzeptu ilustratuari lotuta, jokabide sexuala (heterosexuala) definitu zen eta sexualitatea identitatearen parte gisa ulertu zen (Garaizabal, 1998; hemen aipatua: Perez, 2014:24):

Colectivos como homosexuales, transexuales e intersexuales, especialmente estos dos últimos que se han visto obligados a adaptar su cuerpo a las exigencias binarias del sistema de sexo/género (Hausman, 1998), se han mostrado en numerosas ocasiones como grupos identitarios.

Hala ere, heterosexualitateak desira sexuala berezko ezaugarri egonkor eta aldaezin gisa ulertzen du. Horren aurrean, alderantziz, Fausto-Sterlingek (2006) sexualitatea eragin kulturalak sortutako gertaera somatikoa dela baieztatu du (ibid:37). Horri lotuta, interesgarria eta beharrezkoa da berarentzat soziala dena materia nola bihurtzen den galdetzea (ibid:281). Judith Butlerrek adibidez, gorputz materiala izendatzea galdegin zuen pentsamendu feministari ekarpena egiteko modu gisa eta iradokitzen du giza gorputza esangura sozialek produzitzen dutela eta, aldi berean, produzitua dela: “así como cualquier organismo biológico siempre es el resultado de las acciones combinadas y simultáneas de la naturaleza y el entorno” (ibid:39). Butlerren arabera, badira hormonak, geneak, prostatak, umetokiak eta beste gorputz atal fisiologiko zenbait zeinak arren eta emeen arteko bereizketa egiten laguntzen duten. Atal material horiek esperientziaren eta sexu desioaren barietateak sortzen diren substratuaren parte bihurtzen dira. Are gehiago, fisiologiaren alderdi horietako bakoitzean gertatzen diren aldaketek sakon eragiten diote generoaren eta sexualitatearen banakako esperientziari (ibid:38):

Cada vez que intentamos volver al cuerpo como algo que existe con anterioridad a la socialización, al discurso sobre lo masculino y lo femenino, «descubrimos que la materia está colmatada por los discursos sobre el sexo y la sexualidad que prefiguran y constriñen los usos que pueden darse a ese término. Puesto que la materia ya contiene las nociones de género y sexualidad, no puede ser un recurso imparcial sobre el que construir teorías «científicas» u «objetivas» del desarrollo y la diferenciación sexuales (ibid).

Gauza bera defendatzen du Marina Subiratsek (2013:17) bere lanean: “La interacción entre el medio, con sus características propias, y la dotación biológica del individuo, es lo que va a determinar cómo llegue a ser este individuo, como va a producirse el desarrollo posterior a su nacimiento y su evolución vital hasta que desaparezca”. Gizakiak izate sozialek gara; jaiotzen garenean, etengabe gurekin elkarreraginean dagoen jendarte batek jasotzen gaitu eta elkarreragin horretan eraikitzen dira norberaren sexua, generoa eta baita sexualitatea ere. Egia

da bizitzeko behar-beharrezkoa dela alderdi biologikoa: “nuestro perro no llegará nunca a hablar, por mucho que le hablemos desde que nace. Pero nosotros tampoco llegaríamos a ser capaces de hablar si alguien no nos hablara desde que nacemos” (Subirats, 2013:21-22). Hori dela eta, gure gorputzak eta horri lotutako keinuak, adierazpenak, oihiturak, ezaugarriak, desioak eta preferentziak jendartearen eraginpean eraikitzen dira (ibid:22).

Hori horrela bada ere, askotan eta, oraindik orain, generoa eta sexualitatea giza existentziaren ezaugarri unibertsal gisa aurkezten zaizkigu. Horren ondorioz, sexualitatea eta generoa sortzetikoak ala eraikiak ote diren eztabaidak puri-purian jarraitzen du, bai jendartean, bai akademian. Ikuspegi ontogenikoak aukera ematen digu eztabaida horiek beste modu batera planteatzeko. Hori azaltzeko, irribarrearen adibidea erabiltzen du Fausto Sterlingek (2006:293); izan ere, badira ikerketa esperimental ugari irribarrean eragiten duten aldagaiei erreparatzen dietenak, esaterako irribarrearen forma, denbora eta funtzioari. Ikuspegi sistemikoaren baliagarritasunaren alde egiteaz gain, egungo hainbat erronka izendatzen ditu:

En primer lugar, tenemos que dejar de buscar causas universales del comportamiento sexual y la adquisición del género y aprender más sobre (y de) la diferencia individual. En segundo lugar, tenemos que esforzarnos en estudiar el sexo y el género como partes de un sistema ontogénico. En tercer lugar, tenemos que ser más imaginativos y concretos en lo que respecta al término entorno (Fausto-Sterling, 2006:294).

XXI. mendean zehar, hausnarketa zein begirada horiek eta sexua eta sexualitatearen ulermen sozialak nahiz kulturalak tokia egin die gorputzaren beraren (baita bere bizipenen eta identitateen) ulermen berriei. Horren etsenplu da Elvira Burgosek (2013:203) gorputzari buruz dioena: “Nuestros cuerpos no son abstractos, muestran formas y figuras singulares; están sexuados, generizados, sexualizados, racializados, habitados por cambios y mutaciones. No son al margen de las diferencias sino que son en las diferencias”. Bere ustez, gorputzean bizi da bizitza eta bertan harremantzen gara, bertan maitatzen edota kontrara, bertan egiten dugu atzera, bertan gorrotatzen dugu eta bertatik egiten dugu ezikusia. Gainera asko dira gorputza egikaritzen duten hariak, lan horretan hari pribilegiatuak dira: sexua, generoa, desioa eta sexualitatea (Burgos, 2012:332).

Estebanen (2008:137-140) hitzetan, berriz, testuinguru horretan sortu zen gorputz antropologia ere, zeinak gorputza ez duen ikerketa objektu bat gehiago bezala ulertzen, baizik eta ikerketaren helburu nagusi gisa: “un cuerpo huérfano epistemológicamente, prisionero de una dispositivo de dominación (citando a Foucault) pero al mismo tiempo libre del mismo, un cuerpo agente, sujeto”. Horrez gain, gizakia modu “soziologikoan, kognitiboan edota

robotikoan” ulertu beharrean, gizarte zientzietan nahiko bazterrean geratu dien alderdietan, batez ere bizipenetan, arreta jartzea proposatzen du (sentsazio fisikoak, eskema sentsorialak, emozioak, besteak beste):

Un análisis de la sexualidad como práctica, como proceso, como actos, percepciones y sensaciones incorporadas... vernos a nosotras/os mismas/os como cuerpos organizados sexual y amorosamente en un mapa socio-cultural concreto pero mutante; en encrucijadas condicionadas por relaciones de poder que pueden ser contestadas; y todo ello, en convergencia con los reflexiones y experiencias de teorías y movimientos sociales, como el transexualismo/transgenerismo o la teoría queer... nos transporta inevitablemente más allá de las definiciones dicotómicas, limitantes, androcéntricas y heteronormativas de lo que se ha venido en llamar la identidad sexual (ser heterosexual, lesbiana, gay...), la identidad de género (ser mujer, hombre...) las relaciones unívocas entre sexualidad, cuerpo y género, o las explicaciones absolutamente etnocéntricas de la experiencia del deseo y del goce sexual (Esteban, 2008:140).

3.1.3 Genero identitatea atxikitzea

Elvira Burgosek (2012:332), beste autore feminista batzuekin batera, zera baieztatzen du: aurreko atalean sakonago aztertu dugun sexu bitarraren “asmakizuna” genero bitartasuna naturalizatzeko estrategia bikaina dela, nahiz eta, berez, gizakiak bere testuinguruan egiten duen sorkuntza izan. Identitatearen dimentsioa eta horren barruan genero identitatearena beharrezkoa da ikerlan honen oinarrian dagoen begirada ulertzeko, azken batean, haurdunaldian zehar gurasoek dituzten igurikapenek, pentsamenduek nahiz praktikek jaiokoen pertsonaren identitatean izango dituzten eraginetan arakatzea baita asmoa.

Askotariko jakintzagaietan, asko hausnartu, eztabaidatu eta idatzi da identitateen gaiari buruz. Sakonki horretan murgildu gabe, baliagarriak eta interesgarriak zaizkigun identitateen eta zehazki, genero identitatearen hainbat autoreren hurbilpenak jasoko dira jarraian.

Josune Fernandezek (2018:16) jasotzen duen moduan, identitatea pertsonon garapen kolektibo eta pertsonalaren ardatz nagusia da, prozesuan eraikitzen da etengabeko aldaketa eta mugimenduan, beraz, ez da ez betierekoa, ez monolitikoa. Iritzi bera du Perezek (2014:13):

El concepto clásico de identidad implica reconocer a los considerados iguales y diferenciarse de los considerados otros, es decir, la constante alteridad antropológica. Pero además de ser socialmente construida, conviene entenderla como un proceso relacional, dinámico, variable, menos estable y permanente de lo que habitualmente se cree (Garaizabal, 1998; hemen aipatua: Perez, 2014:13).

Fernandezek (2018:16) Stuart Hall (1992) eta Fredrik Barth (1976) aipatzen ditu. Azken horiek argudiatu zuten identitatea ez dela soilik barneko elementuekin garatzen, baizik eta identitateen eraikuntzan mugak eta eta kanpo munduarekin harremana beharrezkoak direla. Bat dator Perez (2014:13) begirada horrekin eta berresten du, etnizitatearekin eta klase sozialarekin batera, norbanako baten identitatea osatzen duela (Moreno,1991; hemen aipatua: Perez, 2014:13): “su importancia trasciende la de ser una simple característica de la persona para convertirse en uno de los ejes que vertebran su forma de definirse a sí mismo, un yo soy, y de ser definido por los demás, un tú eres, es decir, una identidad personal o subjetiva y una identidad social o cultural (Bolin, 2003)”. Hortaz, batetik, interpelatzeko gaituzten diskurtso eta praktikek, eta bestetik, prozesu subjektiboei bat egiten duten elkargunea litzateke identitatea (Perez, 2014:16).

Estebanek (2013:188), ostera, Connellekin (1995) bat eginez, ezbaian jarri nahi ditu determinismo biologikoa eta determinismo soziala. Zentzu horretan, esaten du generoa ez dela ikusi behar kulturalki ezarritako identitate zehatz bat bezala, gorputzak ezinbesteko dimentsioa duen praktika sozial eta indibidual gisa baizik. Verena Stolcke (2003) aipatuz, generoa munduan egoteko modua dela dio, ez garena, baizik eta egiten duguna. Horrela azaltzen du bere ikuspuntua *Genero ariketak* (2013) izeneko saiakera liburuan:

Era horretan, norbanakoaren nahiz talde identitatearen praktikak (generozkoak, sexualak, maitasunezkoak...) munduan egoteko moduak lirateke, eta ez izatekoak, dikotomikoak edo kulturak finkatuak. Ikuspegi honek generoaz besteko arloak ere (sexualitatea eta maitasuna, kasu) desentzualizatzen laguntzen digu. Izan ere, generoari dagokionez, oinarri-oinarrian gorputzarenak diren ekintzez arituko ginateke (sentitzeko, ibiltzeko, adierazteko, mugitzeko, janzteko, apaintzeko, (elkar)ukitzeko, (elkar)hunkitzeko, (elkar)erakartzeko, gozatzeko, sufritzeko moduez), betiere beste pertsonekin harremanean; denboran eta espazioan eraldatuz doazen ekintzak, gorputz ibilbideak eratuz, non gizarte testuingurua eta ekonomikoa, gorpuztasuna eta narratibotasuna uztarturik gelditzen baitira. (Esteban, 2013b:188-189)

Ezin aipatu gabe utzi goian azaldutako ideiak osagarritzen dituen identitate performatiboaren proposamena, Judith Butlerrek *Generoaren nahasmendua* (1990) lanean eta aurretik idatzitako zenbait artikulutan proposaturikoa. Bertan, generoari aukera berriak irekitzeko asmoa agertzen du. Horretarako, batetik, minorian dauden praktika sexualei bere lekua eman nahi die, genero bitartasunarekin amaitzeko, berau ezegonkortzeko eta analisi kategorial gisa ere kuestionatzeko. Bestetik, generoaren desnaturalizazioa lortu nahi du, eta genero anbigua proposatzen du zeinak ezarritako kategorial hertsia gainditzen lagunduko lukeen (Perez, 2014:24-25). Gainera, identitate moldakor, dinamiko hau performance edo antzezlan baten

moduan definitzen du sexuari, generoari eta sexualitateari dagokionean. Identitatea kulturalki eraikitako patroien egonkor baten imitazioa omen da. Identitatea norberaren ezaugarri bat baino gehiago, kolektibo oso baten baldintzak kontuan harturik, jendarte horretan hegemonikoa den eredu kulturalaren baitakotzat jotzen du. Hegemonia sozial horretan eredu zehatz batzuk aldeztu dira, eta baztertuak ez izateko gehienek horiek bere jarreretan errepikatzen joko dute. Alegia, izateko moduak, identitateak, ez dituela pertsonen jarrerak zehazten, baizik eta hartzen ditugun jarrerak zehazten dutela nolakoak garen. Beraz, aurretik esan dugun moduan, identitatea norbanakoaren izaera zurrun eta betiereko baten ordean, aldakor eta performatiboa den ezaugarri kolektiboki definitu moduan uler liteke (Ibarguren, 2019:20). Identitatea performatiboa dela onartzeak, ondorioz, horren konplexutasuna mahai gainean jartzera garamatza. Ideia honek adierazten du mutil izendatu batek neska izendatu baten patroia eta identitatea har dezakeela. Hala ere, prozesu horiek ez dira sinpleak. Normalean frustrazio eta ezintasun askoren iturri izaten dira, norbera berari “ez dagokion” rola jokatzeko ariko bailitzateke (Missé, 2013; hemen aipatua: Ibarguren, 2019:21). Aldi berean, performatibitateak ikuspegi bitarrari erronka sakona planteatzen dio. Paradoxa hauxe jasotze du Burgosek (2012:340):

El tejido de lo discursivo, social, cultural, esa red diseminada que nos precede y nos envuelve, actúa performativamente produciendo incesantemente la emergencia de aquello que decimos ser, que decimos que nos pertenece, y en función de lo cual se nos reconoce y nos reconocemos, si bien nunca de un modo plenamente acabado y consolidado, y ni siquiera absolutamente consciente y evidente. Este mecanismo funciona de un modo abierto, plural y paradójico. Ello nombra la tragedia y a la vez la riqueza de la existencia humana.

Generoari eta sexualitateari lotutako arauak gure portaerak, desioak, gure gorputzaren estiloak eta formak, gure psikeak antolatzen dituzte. Baina prozesua performatiboa da, hortaz, irekia, ez itxia, ez bukatua. Inkoherentzia eta ezegonkortasuna dira inplikaturik gauden prozesuaren eta mekanismo performatibo horren emaitzaren ezaugarri nagusiak: gizabanakoak, genero identitatea eta sexualitatea duten subjektu gisa; identitatea, beraz, ezegonkorra eta inkoherentea da. Izan ere, performatibitatearen ekintzak errepikapenaren eta bazterketaren logikaren arabera egiten du lan: horixe da logika soziala eta banakakoa (Burgos, 2012:341-342).

3.2 Generoaren sozializazioa haurdunaldian

3.2.1 Gurasotasuna XXI. mendean: hazkuntza ereduak eta generoa

Aurretik zetorren joerari jarraiki, XXI. mendetik aurrera, mendebaldean, baita Euskal Herrian ere, familia ereduak aldaketa nabarmenak izan ditu. Itziar Alonsoren (2006:7) arabera, aniztasunak, laguntza bidezko ugalketa teknika berriek, nazioarteko adopzioen kopuruaren igoerak, pertsona homosexualen errekonozimendu sozialak eta bikote homosexualak ezkatuta ez egoteak, besteak beste, herrialde frankotan familia eta gurasotasunaren kontzeptuak berridaztea ekarri du. Badira gobernuen aldetik aldaketa horretan eragin duten arau zein legeak, esaterako, sexu bereko bikoteen arteko ezkontza baimentzen duen Espainiako Estatuko legea (2005) edota azken urteetan gurasotasun baimenak berdintzea¹⁵, zehatzago, 2021ean atera zen Espainiako Errege Dekretua¹⁶. Alonsok (2006:7) baieztatzen du azkenaldian guraso izateko patroiak asko aldatu direla gure herrian, eta horretan eragin dutenak, bere ustez, badira mugarriz batzuk familiaren ikuspegia modu argian aldatzera eramaten dutenak, besteak beste: familia osaketetan konfigurazio berriak (haur bakarrekoen eta haurrik gabekoen gorakada, gurasobakarrak, sexu bereko bikoteak, dibortzio kasuak eta konfigurazio berriak eta abar); lanaren eta zaintzaren bateragarritasuna suspertzen duten lan neurriak eta neurri legalak; ugalketa teknologia berriak gehiago erabiltzea. Aldaketa horiek guztiek ez dituzte, ordea, menderatze sistemak gainditu, zirrikitu eta arrakalak sortu badira ere, gure kulturaren oinarrian genero sistemek eragiten jarraitzen dute eta etengabe berregituratzen dira. Eremu ekonomiko eta politikoaz gain, ahaidetasun sozialaren testuinguruan ere eraikitzen eta sortzen dira genero menderatze sistemak. Maria Valdés eta Anna Piellaren (2016:7) arabera “es por ello por lo que el estudio de los procesos de procreación, adscripción y crianza puede proporcionar datos valiosos sobre la construcción de las relaciones de género”.

Gurasotasuna begirada eta diziplina ugariatik aztertu eta ulertu daiteke. Esaterako, ahaidetasunaren antropologian kokatzen diren Valdésen eta Piellaren (2016:4) ugalketari eta hazkuntzari lotzen zaizkien errepresentazio kulturalen, jokabideen, harreman sozialen nahiz kulturalki hitzartuta dauden emozioen multzo gisa definitzen dute gurasotasuna:

De este modo, la parentalidad sería entendida como un proceso y como un conjunto

¹⁵ Bi guraso dauden kasuetan, biek 16 asteko baimen tarte bera dute

¹⁶ Real Decreto-ley 6/2019, de 1 de marzo, de medidas urgentes para garantía de la igualdad de trato y de oportunidades entre mujeres y hombres en el empleo y la ocupación. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera jarri zen martxan.

de relaciones que, partiendo de la procreación y la crianza y todo lo que ello conlleva, se va construyendo a lo largo del tiempo y acaba convirtiéndose en el componente generador de parentesco. En consecuencia, son los procesos parentales los que constituirían relaciones de parentesco. En esta construcción no debemos dejar de lado el hecho de que la parentalidad está atravesada por relaciones de apego resultantes de procesos evolutivos y psíquico-afectivos que atañen a los vínculos parentales expresados socioculturalmente (ibid:8) .

Gurasotasuna ikusteko modu horrek hainbat gai jartzen ditu agerian, hala nola sinesmen sistemak, sexualitatearen errepresentazioa eta praktika, genero sistemak, haurren osasunean zentratuak dauden erakunde espezializatuak, hezkuntza sistemak edota haur nahiz helduen zaintza erakundetua (ibid:7). Bestalde, gurasotasunaren alderdi soziala ikusgarri egiten du. Elixabete Imazek (2006:99) gogoeta hauxe ekartzen digu:

Argi dago gurasotasunak gure bizitza komunitate baten biografiarekin lotzen duela, gure adin-talde, herri edota lagun taldearekin identifikatuz. Gurasotasunak ere badu gizartearen esfera batzuekin lotzeko ondorioa, seme-alaben bitartez gure errealitatekin kanpo zeuden gizarte-pusketara gerturatzeko aukerak zabalduz. Hezkuntza eta hazkuntza oso gratifikanteak izan daitezke, beren bitartez sortzen den gurasoen eta haurren harreman berri horregatik eta horren bitartez sortzen den gure egunerokotasunaren birdefinitze horregatik. Horrez gain, gurasotasunak heldutasuneko gizarte-posizio definitibo eskaintzen jarraitzen du komunitatearen aurrean eta prestigioz jantzia agertzen da.

Horrez gain, amatasunaren nahiz gurasotasunaren gainean dagoen naturalizazioa eta esentzialismoa agerian jartzeko aukera ematen digute gizarte antropologiaren eta feminismoaren teoriak. Izan ere, Imazen (2010:102) arabera, hiru dira naturalizazio horri eusten dioten dimentsioak: batetik, ugalketa prozesua guztiz eta bakarrik biologikoa dela onartzea, alegia, esku-hartze sozialik gabea; bestetik, amaren eta haurraren arteko binkulua berezkoa dela pentsatzea, uste da haien arteko harremana eta afektuak berehalakoak eta erditzearen ondoriozkoak direla; hirugarrenik, emakumeei ezartzen zaizkien zaintza eta hazkuntza lanak sexuaren arabera lan banaketa natural bati dagozkiola uste izatea. Antropologo feminista honen ustez, mendebaldean azken urteetan nagusitzen den ideologian “instintuak” protagonismoa hartzen du, eta argudio nagusi gisa erabiltzen da giza portaerak azaltzeko, bereziki emakumezkoenak: hala, gizakiak instintuzko aginduz ugaltzen dira, emakumeek beren haurrak instintiboki onartzen eta maitatzen dituzte; eta amak berez inplikatzeko dira haurren zainketan eta hazkuntzan, beraien senari esker. Horren aurrean, ulertzen du, beraz, amatasunak garai konkretu bakoitzean hartzen dituen formak ez direla unibertsalak, hauxe gaineratzen du: “tras la irreflexiva definición de “la buena madre” que se

pretende natural y por ello intercultural, interclasista e interracial se esconden no dictados de la naturaleza sino modelos ideológicos que buscan su hegemonía (Imaz, 2010: 103). Modu horretan, dagoeneko ezin da amatasuna unibertsal gisa pentsatzen jarraitu, ezin da ugaztunen eta giza hazkuntzaren arteko lerro zuzena trazatu, eta ezin zaie emakumeei esentzia komun bat esleitu, mundu osoan haurrak zaintzeko gaitzen dituen, eta are gutxiago argudiatu behar da amatasun senak gidatu dituela (Ibid:102). Paola Tabet-ek (1985; Esteban, 2006:46) naturalizazioaren ebidentzia agerian jartzen du bere hitzekin: “obulu eta haziaren sorreraren eremu ez neutroaren eta umeak ekoizten diren eremuaren artean genero harremanak eta sexualitatearen antolakuntza soziala jokoan daude; baita emakumezkoen trukea eta menderakuntza ere” eta zera gaineratzen du:

Heterosexualitateari lehentasuna ematen zaionean, emakumeen sexualitatea bereziki zelatatzen denean, ezkontzen antolakuntza konkretu bat eratzen denean, antisorgailuak eta abortua legezztatzen direnean (edo ez), haurdunaldia edo erditzea modu batean edo bestean gauzatzen denean, edo umeen sozializazioa era batera edo bestera gertatzen denean, besteak beste, sozialki erregulatzen da amatasuna (Esteban, 2006:46)

Amatasunaren unibertsaltasuna ezbaian jarri zuen 70eko hamarkadatik aurrera emakume feminista beltzen mugimenduak ere. Patricia Hill Collinsek (2000:46; Henley, 2021:4) argudiatzen du Estatu Batuetako emakume beltzek, amatasuna eta lana ez zituztela esparru berezitu gisa bizi izan. Historikoki, emakume zuriak baino parte hartze handiagoa izan dute ordaindutako enpleguetan, zehazki, familia zuriaren etxeetan etxeke langile gisa lan egiten zuten (duten) emakume beltzen esperientziak amatasunaren ikuspegi berria eskaintzen zuten. Pentsalari feminista zuri askok zaintza eta etxeke lana zapalkuntza gisa kokatzen zuten (dute), gizonen onura ateratzen zuten (duten) soldatarik gabeko lan gisa. Collinsek (2000) iradokitzen zuen, berriz, emakume beltzek ordaindu gabeko lana gizonen (eta zurien) explotazio modu bati erresistentzia egiteko modu gisa ikusten zutela (Henley, 2021:5).

Hala, bada, hausnarketa horiek guztiek eta baita egun sortu diren askotariko familia ereduak ere bidea irekitzen dute “amatasun” terminoaren barruan sartzen diren atributuen eta giza jardueren aldakortasunari buruz birpentsatzeko eta ama (guraso) deitzen ditugun testuinguru desberdinetan esleitzen zaizkion ezaugarri psikiko, fisiko, sozial eta emozionalen buruz hausnartzeko.

Soziologian eta psikologia sozialean oinarritzen diren eta mendebaldeko jendarteei buruz ari diren ikuspegi soziologikoagoek, berriz, familiei eta lehen sozializazioari buruz hitz egiten digute. Marina Subiratsen (2013:23) hitzetan, jaiotzatik egiten den ikaskuntzari “lehenengo

sozializazioa” deitu izan zaio, hain zuzen, izaki sozial bihurtzen gaituzten oinarrizko ezaugarriak eskuratzean datzalako. Bere ustetan, lehen mailako sozializazioa bizitzako lehen urteetan gertatzen dena da, gure nortasunaren eta ohituren oinarriak jartzen dituena. Gaineratzen du lehenengo urteetan eraikitzen diren oinarriak eta lortzen ditugun ohiturak, gero, aldatzen oso zailak direla, sozializazio arauak gure ezaugarri biologikoak moldatzen baitituzte. Bat dator Nerea Manduina (2017:2) baieztapen horrekin, familia, lehen mailako sozializazio iturri den aldetik, jendartearen hezkuntza prozesuaren muina da oraindik ere. Autoreak aipatzen duenez, familia funtsezko faktorea da pertsona eraikitzeko, lehenengo bizi esperientzien garrantzia dela eta. Familian erakunde gisa ulertuta, balio pribatuak zein publikoak, erlijiosoak, generoarekin zerikusia dutenak, klase balioak, gizalegekoak eta politikoak eta abar parekatzen dira (ibid:2). Gauza bera baieztatzen dute Carmen Galet eta Teresa Alzak (2015:100): “familia da pertsonen bizitzako sozializazio agente garrantzitsuena, sozializazio prozesuaren fase guztietan baitago”. Gizarte egitura horri eusteko eta hura birsortzeko, eraikitze prozesua pertsonaren jaiotzatik hasten da, eta familiak hasten du esleipen prozedura, eta, eguneroko bizikidetzan, modu informalean ziurtatzen du gai sakon eta delikatuenak, hau da, sinesmen, balio, pentsamendu, jarrera eta jokabideak barneratzea. Azken horiek erabakigarriak izango dira, garrantzi handiko zerbait, norberaren nortasunean; beraz, familiaren hazkuntza ereduak horretan eragin zuzena dute (ibid:98).

Aipaturikoaz gain, Teresa Vegak (2015) gaineratzen du familiek indartu egiten dituztela sozializazio prozesu horretan genero sistemek eragindako bereizkeriak, esaterako jaiotako sexuaren arabera alderdi desberdinak sustatuz, eta hurrei jardura desberdinak eskainiz: “Familiak identitate generikoen prestakuntza sustatzen du; haurtzaroan eskuratutako horiek nekez alda daitezke” (Díaz, 2003:6; hemen aipatua: Vega:2015:18). Haurdunaldiaren unetik bertatik ere, gurasoek beren desio eta itxaropenekin desberdin jokatzen dute. Prozesu honetan, kide berriek bakoitzak bere gain hartu behar duen portaera ikasten dute, emakumea edo gizona den kontuan hartuta. Eta harago joanda, portaera espezifikoak ikasteaz gain, haurrek femeninoa maskulinoaren mende dagoela ikasten dute, hau da, oso txikitatik ikasten dute gizona dela nagusi emakumearen aurrean, eta, hala, beraien artean badela botere harremana: “Identitate generiko horiek hierarkizatuak dira eta ikasketa hori familian hasten da eta eskolan eta gizartean jarraitzen du” (Ceballos, 2014:3). Aurretik aipatu den moduan, generoaren asimetria barneratzearekin batera barneratzen dira beste aldagai zenbait ere, arraza edota klase soziala besteak beste. Kontua da familiko hazkuntza ereduak etxeetako intimitatean gordeta nahiz ezkutuan geratzen direla, eskola eremua publikoa den moduan,

etxe bakoitzeko hezkuntza ereduak zein praktikak eremu pribatuan gertatzen baitira eta askotan ez dugu nahikoa datu familian gertatzen dena ezagutzeko (ibid:3). Esperanza Ceballosen (2014) eta Vegaren (2015) iritzi bera du Subiratsek (2013:14):

Seguimos transmitiendo estereotipos de género, anticuados, caricaturescos, peligrosos. A menudo ni siquiera somos conscientes de ello; los transmitimos en cada gesto, en la vida cotidiana, al hacer un regalo, al pedir un favor, al salir al patio en la escuela, al leer un libro de texto. No nos damos cuenta, pero es grave. A las niñas y niños del siglo XXI, que se comunican por internet, que juegan con compañeros a miles de kilómetros de distancia, que tienen una información que nunca soñaron nuestros antepasados, les seguimos transmitiendo unos hábitos, unos prejuicios, unas formas de vida que surgieron en los primeros años de la historia –probablemente la prehistoria estuvo más libre de ellos.

Laburbilduz, genero identitatea haurtzarotik eraikitzen da modu dinamikoan, eguneroko elkarrekintzaren bidez, ezaugarri eta jokabide jakin batzuk maskulinoarekin edota femeninoarekin lotzen baitira (Domínguez Folgueiras, 2009; hemen aipatua Ceballos, 2014:3). Horregatik, diskurtso handiak lausotuta geratzen dira seme-alabei bideratutako hazkuntza praktiketan, esandakoak baino ikusitakoak eragiten baitu, eta egunero ikusten dituzte gurasoak. Ikusi eta esperimentatutakoak eragina izan ohi du eta horrela ikasten dute esaterako, amak eta aitak (bi figura horiez osatuak dauden familietan behintzat) denboraren erabilera ezberdina egiten dutela, aisialdiarena batez ere, etxeko eta zaintza lanen banaketetan ezberdintasunak daudela (Ceballos, 2014:3).

3.2.2 Genero bitartasuna haurdunaldian: hainbat adibide.

Elixabete Imazek (2010:232) Mary Douglas (1988) aipatuz adierazten duen moduan, alde batetik, haurdunaldia gizakiarentzat behin eta berriz errepikatzen den prozesua da; bestetik, norbanakoarentzat singularra da eta esanahiez betea dago. Haurdun daudenez gorpuztasunaren bizipen intentsua izaten dute denbora tarte mugatuan, azken batean, haurdunaldia emakumearen gorputzean bertan gertatzen da: “son nueve meses de transformaciones corporales visibles, perceptibles por la mujer misma y por los que la rodean” (Imaz, 2010:231). Gaur egun, haurdun dauden gorputzak beti emakumezkoenak ez badira ere¹⁷, autore honek haurdunaldia eta ama izateko prozesua sakonki aztertzen du eta

¹⁷Gaur egun haurdun geratzen diren gorputzak ez dira emakumezkoenak soilik, badira haurdun geratzen diren gizonezkoak, ondoren aita izendapenean eroso sentitzen direnak. Horiei buruz hitz egiten du Damien W.Riggsek (2015:89) eta honako baieztapen hau egiten du: “ Los relatos de los hombres transexuales sobre sus embarazos hacen posible desligar el embarazo de su relación normativa con identidades corporales concretas (femeninas) y volverlo a conceptualizar como una función que puede desempeñar cualquier identidad corporal (siempre que sea una que ocupe un cuerpo capaz de procrear). Beraz, aita izateko modu berriei buruz hitz egitea eskatzen du

haurdun dauden gorputzen lau alderdi arakatzea proposatzen du: lehenengo alderdiak haurdun dauden gorputzen interpretazioak eta horiek amatasunaren errepresentazio sozialean dituzten islak aztertzen ditu; bigarrenak medikuntzak definitzen duen “barne gorputza”-ri egiten dio erreferentzia, zeinak emakumeen gorputza ugalketaren dimentsioan ulertzen duen; hirugarrenak “kanpo gorputza”-ri buruz hitz egiten du, hau da, gorputzaren eremu publikoa eta bere bizipena, besteen begietatik hautematen dena. Azkenik, “gorputz intimoa” deituriko alderdia aztertzen du, hots, haurdunaldi propioaren hautematea gorputzaren autoirudiari dagokionez (ibid:233). Haurdunaldia gorputzean bertan gertatzen denez, normalean, ikusgarritasun handiko gertaera bihurtzen da eta horregatik, ingurukoek gorputz horiek haurdun daudenaren ziurtasuna izan ohi dute. Hori dela eta, hasten da haurdun dagoen gorputza materializatzen eta publiko bihurtzen (ibid:263); horrekin batera umekiari buruzko ezinbesteko lehen galdera egiten hasten da: “zer da neska edota mutila?”. Galdera horren erantzunak, hau da, generoaren atxikitzeak, umekia gizaki bilakatzen du, nor bihurtzen da eta familiako kide eta herritar bezala jendarteratzen da (Byström, 2015). Haurdun dagoen gorputzaren publikotasunak baimentzen du edonor intimoa izan daiteken horri buruz galdetzen hastea, hori bera baieztatzen du Imazek (2010:263):

La visibilidad externa del embarazo crea reacciones en el entorno que se siente legitimado para hacer observaciones y amonestaciones respecto a actitudes y conductas de la mujer que se considerarían inoportunas en caso de ser dirigidas a una persona no gestante. Es interesante fijarse en ellas porque parecen responder a la consideración de que, en cierta medida, el cuerpo gestante es un bien colectivo, al igual que el niño o niña que se gesta en él también lo es. En ocasiones, tras la interpelación parece encontrarse el interés en defender el bienestar del futuro bebé.

Hortaz, haurdunaldian, umekiaren jaiotza soziala gertatzen da, Montesek (2007:111) dion gisara “Las mujeres y parejas al planificar su maternidad/paternidad activan, renuevan y actualizan toda la amalgama ideológica que lo envuelve, con la que conforman una determinada estructura de lo que para ellos/as es, y además proyectan que sea, el nacimiento”. Orain arte esanda bezala, generoaren sozializazioa familia esparruan eta haurdunaldian bertan hasten dela baieztatzen dute hainbat autorek (Subirats, 2013; Ceballos, 2014; Vega, 2015). Beraz, haurdunalditik (edota jaiotzen garetik) modu desberdinean hezi eta sozializatzen gaituzte, gure sexuaren arabera, eta horrek ondorio handiak ditu gure bizitzako alderdi guztietan (familia, ikasketak, lana, gizarte harremanak...). Gurasoak dira

errealitate berri honek, horrez gain, haurdun dauden gorputzak “beti” emakumezkatat edota emetat ez hartzea ere eskatzen du. Hori horrela izanik ere, lan honetan baliagarriak iruditu zaizkigu ama ereduaren eraikuntzan haurdun dauden gorputzek dituzten inplikazioak aztertu dituzten lanak.

genero balioen eta estereotipoen lehen transmisoreak. Horri dagokionez, Alfonsok eta Aguadok (2012; Menduiña, 2017:8) hiru alderdi nabarmentzen dituzte: seme-alaben portaerari buruz aitak eta amak dituzten itxaropenak, neska ala mutil izan modu berezitan hazteko eta tratatzeko joera eta aitaren eta amaren arteko harremana. Haurra jaio aurretik, askotan, familiak hezkuntza berezitua praktikatzan du neska ala mutila izango den kontuan hartuta, eta sexuari lotutako gizarte estereotipoak jartzen dira martxan, horiek helduen eta haurraren arteko elkarreraginean zuzenean eragiten dute (Ibid:8).

Ondorioz, jaio aurretik, sexu kromosomikoa jakitearekin batera hasten da umekia amaren sabelean bertan generoz janzten gurasoen eta inguruko praktika moduen (komentarioak, opariak, itxaropenak eta abar) eraginez (Byström, 2015:1). Finean, generoen sozializazioan etapa garrantzitsua da haurdunaldia eta genero harremanak aztertzeo aukera oparoa eskaintzen du. Hau horrela izanda ere, ez dira erraz topatzen haurrak jaio aurreko garaia ikertu izan duten lanak. Gutxi horien artean dago 70eko hamarkadan Elena Gianini italiar feministak idatzi zuen *A favor de las niñas* (1978) liburua. Bertan, argi adierazten du oraindik ere indarrean dagoen galderak zeharkatzen duela haurdun dagoen pertsona: “¿Será un varón? ¿Será una hembra? El período de espera está dominado por esta pregunta” (Gianini, 1978:17). Bat dator June Fernandez (2019:19), berrogehi urte beranduago:

Haurdunok ere erantzun behar dugun etengabeko galdera da. Askotan, “Zer izango da?” besterik ez digute galdetzen. Hamaika gauza erantzun genezake: “Pertsona bat”. “Ematen dituen ostikoekin, agian, karateka”. “Espero dut polizia edo militarra ez izatea!”. Baina badakigu “Zer izango da?” galdetzen digunak bi erantzun posible eta bakar dituela buruan: neska ala mutila.

Horrez gain, estrainekoz, Gianinik (1978) gurasoek etorkizuneko haurra neska edo mutila izateko dituzten preferentziei buruz hitz egin zuen, eta bere garaian betiere arra jaiotzea nahiago izaten zela argudiatu zuen. Zenbait herrialdetan hain ohikoak ez badira ere, toki askotan haurdun dauden gorputzen hautemateen arabera mantentzen diren uste eta sinesmenak gogora ekarri zituen:

Si el vientre de la madre está más engrosado a la derecha, nacerá un niño, y así también si el seno derecho es más grande y el pie derecho más inquieto que el izquierdo. Si la gestante está de buen humor, nacerá un niño, si de mal humor llora fácilmente, nacerá una niña. Si tiene buen color, parirá un niño, si está pálida, una niña; si se pone bonita será un niño, si se afea, una niña [...]. Examinado los indicios que se han enumerado, revelamos una característica común: los que anuncian el nacimiento de una niño, son positivos; en realidad el número impar tiene algo de más, una unidad, respecto al número par (Ibid:18)

Oraindik orain, gure jendartean mantentzen diren uste horiez gain, jaioberriarentzat prestatzen den logela eta osagarrien inguruan ere hitz egin zuen: “el adulto se siente en paz consigo mismo sólo cuando ha hecho por su parte lo mejor para crearle un ambiente que sea adecuado al sexo al cual pertenece” (ibid:29). Jokabide horiek erakusten dute haurren sexuazio eta genero atxikitze prozesuetan helduek konplizitateak dituztela, modu goiztiarrean esku hartzen da desiatua den jokabide berezituak lortzeko. Bere iritzia bestelako da, “si cada hijo fuese visto como un individuo único, provisto de potencialidades propias y al cual se le ofrece el máximo para ayudarlo a desarrollarse en su dirección, el problema del sexo perdería automáticamente importancia” (ibid:26). Argudio horiek erabiliz baieztatu zuen haurdunaldian zehar genero bitartasuna bazela eta egun baliagarri zaigun hausnarketa utzi zuen idatzita:

Todo esto revela que los humanos son mucho más conscientes de lo que parece de que el sexo no viene determinado de una vez por todas, por los caracteres sexuales anatómicos típicos; que la identidad sexual debe ser adquirida por el niño a través de la cultura propia del grupo social al cual pertenece y que el modo más seguro para que el niño la alcance es asignarle el sexo a través de actitudes y modelos de comportamiento que no permitan equívocos (ibid:30).

Bitartasuna agerian jartzen duten orain arte aipatutako argudioez gain, hizkuntzaren erabileraren inguruan hitz egiten dute hainbat autorek. Katy Witterick-ek (2015) dio, haurdunaldian zehar, gurasoek behin umekiaren sexua jakinda, harreman bat eraikitzen dutela haurrarekiko eta elkarreragin horretan etorkizuneko neskei eta mutilei hitz egiteko moduak ezberdinak direla:

Las futuras madres canturrean a sus barrigas redondas, pero caracterizan involuntariamente y atribuyen un significado incluso a los movimientos fetales, en función del sexo (Rothman, 1988:130). La convención social fomenta la asignación del género sin consulta previa, basándose en la fisiología y la constante repetición del género asignado: !Es un niño! !Buena chica! !Qué chico tan grande!!Qué niña tan guapa!. (Witterick, 2015:38-39)

Norabide berean, Marina Subiratsek (2013:87) dio hitzek gure pentsamenduak eta emozioak egituratzen dituztela, eta haurtzaroan hitz egiteko moduek berebiziko eragina dutela:

... las palabras que se dirigen a los niños y a las niñas no son las mismas, ni dicen lo mismo. Hay algunas diferencias de matiz entre unas lenguas y otras pero en muchas de ellas el género gramatical masculino es tomado como universal, mientras el femenino es un caso particular [...] En cualquier caso: cuando un niño oye la frase “Los niños pueden ir a jugar”, por ejemplo, no tiene ninguna duda de que se están refiriendo a él, mientras que cuando la frase la oye una niña, puede tener la duda, y a menudo la tiene. Recuerdo haber oído a dos niñas hablando en una clase cuando la

maestra pronunció esta frase, y su diálogo fue: “Oye, ¿tú crees que nosotras también podemos salir a jugar?” y la respuesta de la otra niña fue “Si, mujer. Cuando dice niños quiere decir niñas” (Subirats, 2013: 87)

Haurdunaldian zehar egiten diren ekografiak dira genero bitartasunaren aztarna duten beste adibide bat. Ikusten denak forma hartzen du eta materializatu egiten da eta askotan beharrezkoa izaten da ikustea, sinesteko. M^a Jesus Montesek (2007) haurdun dauden emakumeen gaineko ikerketa batean hauxe adierazi zuen:

Ver al embrión produce sin ninguna excepción en las mujeres del estudio su humanización: “Se otorga identidad al ser que se está gestando” aseguran Montserrat Juan y Josep Rodríguez (1994:175). Adquiere categoría humana desde que “se ve”, y esto se produce con la primera ecografía entre las ocho y doce semanas. Comienza, en palabras de Scheper-Hughes (1997), el proceso de antropomorfización del feto en el que los/as médicos en primer lugar, y los padres como eco, le atribuyen “características humanas tales como la conciencia, la voluntad, la intencionalidad, la conciencia de sí... (Montes, 2007:158-159).

Gurasoek pertsonifikazio hori barneratu egiten dute eta umekiarekin harremanetan jartzeko baliatzen dute, harreman hori hauraren sexua jakiten denean indartu egiten da:

[...]cosa que, en general, todos están interesados: “Julio: Yo tenía muchas ganas de saber si era chico o chica (...) y ahora ya está, se habla de Pablo, es uno más de la familia. Alba: Me ha ido muy bien saber el sexo y eso para hablar con él. Julio: Ahora hablamos de él continuamente... (Montes, 2007:159).

Beraz, adibide horiek guztiek baieztatzen dute Gianinik (1978) deskribatutako genero zantzuak ez direla gehiegi aldatu XXI. mendean zehar. Ebidentzia hori berresten du Tea Meadowk (2011) azken urtetako garaiei erreferentzia eginez, hau da, generoak pertsonen nortasunean, oraindik orain, leku/paper garrantzitsua jokatzen duela gurean: “durante el último siglo, han proliferado en la biomedicina, la psiquiatría y la cultura popular las formas de “conocer” el género; y en consecuencia, a los individuos se nos exige que comprendamos y comuniquemos nuestro género cada vez con más detalle” (Meadowk, 2011:727; hemen aipatua: Joy Green eta Friedman, 2015:14)

3.2.4 Objektuak eta subjektuak etengabeko harremanean.

Objektuen agentziari buruz mintzo dira, besteak beste, Maria Ruiz (2019), Natalia Alonso Rey (2016) eta Josune Fernandez (2018) gizarte antropologoak. Autore horien arabera, garrantzitsua da objektuek “egin” dezaketena eta horien agentzia kontuan hartzea. Horretarako beharrezkoa izango da: batetik, objektu eta subjektuaren artean sortzen diren

topaketetan dauden narrazioak aztertzea eta bestetik, sortzen diren emozio nahiz intentsitateak ulertzea, horiek eragiteko duten gaitasuna eta sortu ditzaketen esangurak kontuan hartuz (Alonso Rey, 2016:43; hemen aipatua: Ruiz, 2019: 279).

Ulermen horren oinarrian dago Daniel Miller-en (1987) begirada, objektu eta subjektuen arteko dualismoa gainditu eta kultura materiala aztergai duena. Millerek (1987; Alonso, 2016:37) “objektuen/gauzen umiltasunaz” hitz egiten du, hau da, inguru materialak gure jokabideen, orientazioen eta esanguren alde aurretiko prestaketan duten zeresan isilari egiten dio erreferentzia: “Subjektuen eta ingurune materialaren arteko elkarrekintzak mundua ulertzeko moduak aurreikus ditzake. Sozializazio horretan, objektuek zeregin garrantzitsua dute, baina ez zaie erreparatzen, ia ikusezinak baitira, nahiz eta gure bizimoduan rol aktiboa izan” (Alonso, 2016:37). Maria Ruizek (2019) honela garatzen du aurretik aipatu dugun ideia:

Reflexiones similares sobre cultura material han dado lugar a diversos enfoques y aproximaciones teóricas sobre la agencia de los objetos o sobre una agencia compartida entre sujetos y objetos que se transforman mutuamente, campo en el que han destacado autores como Baudrillard (2010[1969], Wagner (1986), Miller (1987), Appadurai, Wastell (2007) y Hicks (2010). Así, cuestionando las perspectivas más antropocéntricas, para las cuales los objetos no serían más que meras entidades sobre las que recae la intencionalidad humana, cada vez es más común reconocer que los objetos también son agentes, sujetos activos, actores sociales, parte constituyente- y no solamente reflejo o receptor- de los procesos sociales. (Ruiz, 2019:279)

Alonso Reyren (2016) arabera, pertsonak beren objektu biografikoekin dituzten elkarreraginek euren bizipenak nahiz esperientziak ulertzen lagun diezagukete. Pertsonak gordetzen dituzten objektuak oso adierazgarriak dira, botere sinboliko eta gogorarazle argia baitute, leku, une eta harreman garrantzitsuetara jotzen laguntzen dute, eta biografien barruan esangura sortzen dute (Alonso Rey 2012:42; hemen aipatua: Ruiz, 2019:280). Iraganeko gertaerak oroitzen laguntzen dute objektuek. Ruizek (2019:280) baieztatzen duen moduan, objektuen balioa ez dago hor bakarrik; objektu bat denboran zehar kontserbatzen bada, ez dela “izan zenagatik” bakarrik izan, baizik eta une honetan duen esanguragatik eta etorkizunean izango duenagatik ere bai. Haurdunaldian zehar, oraindik pertsona ez da jaiotzen, umekia umetokian dago, baina gurasoen praktikei eta erabiltzen dituzten objektu osagarriei esker etorkizuneko haurraren biografian garrantzitsuak diren aztarnak sortzen dituzte. Hori dela eta esan daiteke objektuek etorkizuna ere eraikitzen dutela. Honakoa adierazten du Ruizek (2019) Alonsoren esanak baieztatuz:

Objektuak iraganera jotzen du, baina haren garrantzia ez da hor amaitzen. Orainaldian du garrantzia, subjektua eta objektua dauden aldi bakoitzean, narrazioak eguneratuz, esanahiak berreginez, emozio-intentsitate handiko prozesu dinamikoa eta bukatu gabe batean (Alonso Rey, 2017:288-289; hemen aipatua: Ruiz, 2019: 280).

Haurdunaldian zehar etorkizuneko haurrarentzat izango diren hainbat objektu material prestatzen dituzte gurasoek, hala nola, arropak, haurra mugitzeko karroak, eserita izateko tronak, sehaskak, logelako osagarriak eta beste. Objektuek, beste esangura batzuekin batera, generoari lotutako errepresentazioak, esangurak eta informazioa jasotzen/biltzen dituzte: "a partir de los 80, las técnicas de diagnóstico prenatal que detectaban el sexo del feto indirectamente abrieron grandes oportunidades de negocio, se podían individualizar mucho más las compras y aumentar las ventas" (Vives, 2015). Horixe baieztatzen dute azken urteetan haurren publizitatearen gainean egin diren ikerketek, jostailuak generizatuak daudela eta haurrek generoaren arabera hautaketa egiten dutela: "niñas y niños escogen juguetes ya indicados para su género y rechazan los contrarios. Sin embargo, señalaron que también los elegían en base a sus gustos cuando los juguetes no estaban previamente marcados de un estereotipo sexista"(Eisenbud y Rose; 1995; hemen aipatua: Ministerio de Igualdad, 2020:22).

2018an egindako publizitatearen gaineko ikerketa batek gauzak gehiegi ez direla aldatu berretsi du:

[...] se evidencia que, pese a haber sido eliminadas de la publicidad algunas de las más llamativas muestras de sexismo, se ha aumentado otro tipo de mecanismo que estimulan la segregación de género como: separar de forma más marcada el tipo de juguete según sexos (vehículos y acción solo para ellos), reducir el contexto (el hogar como único espacio para ellas), y el aumento de la «afectividad» según lo que transmite el juguete, -valor restringido solo para ellas-. (González-Anleo, Cortes eta Garcelán, 2018; hemen aipatua: Ministerio de Igualdad 2020:25).

Gainera, Esther Vivasek (2015) dion modun, "el mundo de la indumentaria del bebé está dominado, sin lugar a dudas, por el rosa y el azul". Kasu horretan, koloreek eta bereziki, kolore arrosa eta urdinak dituzten esangura sozialek eta kulturek eragin zuzena dute subjektuak objektuaren gainean duen harremanean. Jo B.Paoletti-ren (2012; Ministerio de Igualdad, 2020:34-35) arabera, kolore arrosa eta urdina 80ko hamarkadatik aurrera indartu zituen genero marketingak, neska eta mutilak bereizi eta diferentziatzeko helburuarekin. Autore honen arabera, aurretik bi kolore horiek ez zuten sexuaren arabera esangurarik eta inork ez luke irudikatuko sexua sinbolizatzeke funtzioa izango zutenik.

3.3 Genero bitartasuna ezbaian jartzen duten hazkuntza praktikak.

3.3.1 Haurraren autonomia: genero autodeterminazioa

Antropologia Feministaren ekarpene artean daude “agentzia” eta “erresistentzia” kontzeptuen ulermenak, baita berauek errebisitzatzeko beharra¹⁸ ere (Esteban, 2019:96). Hainbat autorerekin batera, Magie Bullenek (2017:29) ere gizakiaren agentzian enfasia jartzeko beharra aipatzen du. Finean, pertsona gizarteak eta kulturak baldintzatutako genero sistema batean mugitzen da egunerokoan eta sistema horrek ezarritako erreferentzia eremuan dauden aukeretan aritzen da. Horregatik, autoreak dio generodunak diren gizakien eraikuntza prozesu dinamikoaren analisia beharrezkoa dela, batez ere, genero arauak nola barneratzen diren behatu nahi du gorputzaren, sexualitatearen eta identitatearen bidez: “... y en la puesta en escena, por las y los actores sociales, de los papeles de género impuestos o elegidos, asumidos o transformados, por medio de múltiples representaciones o performances (Bullen, 2017:29). Zentzu berean, Connellek ere (1987:95; Del Valle et al, 2002:24), gizarte egituren erreprodukziori garrantziarik kendu gabe, gizakiaren hautatzeko gaitasunetan jartzen zuen arreta: “pone el énfasis en la “vulnerabilidad” de la estructura a través de la práctica porque la acción humana actúa contra la estructura deliberadamente y es precisamente ese compartimiento el que nos convierte en agentes de la historia “(Ibid). Agentziaren inguruko ideia horiez gain, baliagarria da Serry Ortner-en (2006) begirada: “hace una diferenciación fundamental entre la agencia como resistencia al poder y la agencia como intención o proyecto, en la que el eje principal no es la resistencia o dominación, sino la consecución de logros particulares” (Esteban, 2019:96).

Agentziaren inguruan orain arte aipatutakoak¹⁹ haurrek ere agentzia badutela baieztatzea dakar ezinbestean. Hori horrela, beraien generoa atxikitzea egitura sozial eta erakundeen eraginpean gertatzen bada ere, beraien aukera da ekitea, posizio bat edo beste hartzea edota beraien bizitzak egituratzeko moduak ezbaian jartzea (Fernandez, 2018:18). Beraz, badute agentzia eta ezinbestekoa da subjektu ekintzaile gisa ikustea. Pentsamendu hori bera indartzen du Fausto Sterlingek (2006:297) Barrie Thorne soziologoak esaten duena aipatzen duenean:

¹⁸ Mari Luz Estebanek (2019:96) agentzia eta erresistentzia kontzeptuak lantzen dituzten lau autore aipatzen ditu gutxienez: Lila Abu-Lughod (1990), Sherry Ortner (2006) Saba Mahmood (2008) eta Dolores Juliano (2004;2017). Azken honek lan ugarian behatu du nola bazterreko kolektiboen parte diren emakumeak beraien egoera “gutxienez” parekatzen eta hobetzen saiatzen diren, hauxe agentzia ariketa gisa ulertuz.

¹⁹ Zehazki, antropologi feministaren nahiz gorputz antropologiaren begiradatik

Se queja de que las ideas tradicionales sobre la socialización del género presumen una interacción vertical del fuerte (el poderoso adulto) al débil (el niño como receptor pasivo) y que, aun concediendo cierta capacidad de acción a los niños, los sociólogos los han definido como meros receptores, cuerpos afectados por los adultos y la cultura circundante. Los adultos tienen «la categoría de actores sociales consumados», mientras que los niños son «incompletos, adultos en ciernes». Thorne argumenta que los sociólogos harían mejor en contemplar a los niños no como la siguiente generación de adultos, sino como actores sociales en una variedad de instituciones.

Aldi berean, haurraren autonomiari buruz hitz egiten dute ikuspegi psikologikoagoek, baita hezkuntza eragileek ere:

Umeak hamaika gaitasun ditu: helduarekin lotura esanguratsua eraikitzeke, bere burua eta testuingurua aurkitzeke, jolasteko, imitatzeke, esperimendatzeko, bere barnea proiektatzeko, erakusteko eta lotsatzeko, beldurtzeko, berdinkideekin harreman positiboak izateko, loturak eraikitzeke, lankidetzan aritzeko, hainbat modutan komunikatzeko, mugitzeko, adierazteko, barre egiteko, disfrutatzeko, egiteko, erabakiak hartzeko, bizitzen duen guztiarekin loturak egiteko (Barandiaran eta Larrea, 2016; hemen aipatua Salegi, 2021:152).

Hortaz, haurrak baditu mundua ezagutzeko tresnak, autonomia edota agentzia; osoa da, globala alderdi kognitibo, afektibo eta sozialei dagokienez. Eta globaltasun horretatik barneratzen du inguratzen duen mundua ere (Mendiarras, 2008, hemen aipatua Salegi, 2021:152). Ikerlanek kontu bera azpimarratzen dute heldukeriaren gainean : “La lógica adultocéntrica es excluyente y fomenta lo que Bourdieu (2008) llama habitus, espacio simbólico que no solo genera una descripción de la diferencia (en este caso, adultez y niñez), sino que naturaliza la desigualdad: una sabe, la otra ignora; una impone, la otra obedece; una transmite, la otra recibe; una habla, la otra repite, etc..” (Jara, 2018:57). Hori dela eta, egitura sozialak eta hezkuntza praktikak hobetzeko aukera sortzen du haur eta helduen arteko indarkeri maila berrikustek (ibid:56).

Bestalde, haurraren autonomiari eta erabakimenari buruz aritzean ez da, oraindik orain, ohikoa genero autodeterminazioaz hitz egitea. Errealitate horren aurrean zera proposatzen du Kathy Witterick-ek (2015:48): “La agencia y la libertad de expresión son muy importantes para los seres humanos, y la infancia que conforma las normas de género defiende precisamente que todos tengamos estos derechos”. Autore horrek genero sortzailetasunaz, genero disidentziaz edota generoarekin konprometitutako hezkuntzaren beharraz hitz egiten du (ibid:50).

Genero autodeterminazioa herritarron eskubide gisa kontsideratzen du azken hilabeteetan Espainiako Diputatuen Kongresuan eztabaidatzen ari den trans pertsonen eskubideak jasoko

dituen Lege proposamenak. Askotariko eztabaida eta zalaparta sortu duen arren, pixkanaka genero autodeterminazioaren aldarri eta eskaera soziala indartu egin da. Askotan, genero autodeterminazioa mintzaigai denean, transexualitatea bizitzen ari diren pertsonengan pentsatzen bada ere, Jane Ward (2015:63) haur guztiei dagoekioen eskubidea dela adierazten du:

Cuando aplicamos las ideas de la teoría queer y feminista a la labor de crianza, nos comprometemos a proporcionar a todas las niñas y niños (no solo a aquellos que “muestran señales” de disconformidad de género) las herramientas sociales, culturales y políticas que pueden usar para trabajar, simultáneamente, con y contra el género binario, un proceso al que denomino “autodeterminación e género”. Para ofrecer a la infancia una autodeterminación de género son necesarios dos esfuerzos: 1) cultivar activamente la familiaridad de la infancia con el imaginario, el lenguaje, los cuerpos, la política y la subcultura queer, y su apreciación, y 2) acoger con agrado su interacción con los significantes de género (colores, juguetes, objeto, imágenes, sentimientos y modos de relacionarse generizados) sin realizar un diagnóstico de género o imponer un significado a lo que las propias criaturas están queriendo decir, a su identidades o su naturaleza.

Bere ustez, generoaren autodeterminazioari esker, haurrak generoari lotutako asoziazio hertsiekin jolasten hasten dira eta plazererako bideak irekitzen zaizkie; azken batean, genero nortasun itxi bat konkretatzeko beharizanik gabe: “reconoce que ningún niño o niña tiene más capacidad innata para la creatividad o la fluidez de género que otro. Todos tienen este potencial y, por tanto, nuestro proyecto no debe centrarse en prestar apoyo a unos niños o niñas que son especiales, sino en construir un movimiento a favor de la autodeterminación de género de toda la infancia” (ibid:63). Horrez gain, queer hazkuntzaren alde egiten du eta guraso eta hezitzaileei bost aholku edota praktika proposatzen dizkie: lehenengoa, ez hitz egin neska eta mutilei buruz, haurrei buruz baizik; bigarrenkoa, queer moduekin bat egin ezazu; hirugarrena, ez egin zure haurren generoaren gaineko diagnostikorik, utzi berari; laugarrena, haur liburu eta pertsonaien izenekin eta jolastu; azkena, eta bosgarrena, zure haurren inguruko heldu batek bere generoa jakiteko grina azaltzen badu, galdegiozu zergatik behar duen jakitea (ibid:64-68).

3.3.2 Generorik gabeko haurtzaroa: geroz eta errealagoa den utopia?

Asko dira genero bitartasuna ezbaian jartzeko ahaleginak eta horiei lotutako proposamen praktikoak. Esaterako, familiek hainbat estrategia erabiltzen dituzte bide horretan: generoaren kontzeptua zabaltzeko praktika diskurtsiboetan nahiz ekintzaileetan parte hartzea, askotariko genero hautuak babestea zein errespetatzea eta askotariko ereduak eskaintzea (Moore y

Moore, 2011; Green eta Friedman, 2015:22an aipatua). Horiez gain, badira beste estrategia zenbait: liburutetan, pelikuletan, iragarkietan eta hedabideetan agertzen diren hizkuntza, mezu eta irudien gaineko hausnarketa kritikoa egitea, baita jostailuen, arroparen, jolasen eta harreman pertsonalen erabilerarena ere. Joe Green eta May Friedmanen (2015:22) arabera, “cuestionar las actitudes y los comportamientos de otras personas de diversas maneras también es un ejemplo de resistencia al género impuesto”.

Marina Subiratsek (2013:184-185) dio, gizarteak ezarritako jokabide ereduak diren heinean, generoek desagertu egin behar dutela: “[...]Lo que no tiene sentido es que la agresividad sea prescrita a los muchachos por el hecho de serlo;; y la ternura y la empatía en las muchachas, aunque no vaya con ellas.[...]” Bere ustez norbanako bakoitzak femenino eta maskulino gisa izendatuak izan diren ezaugarriak bere erara konbinatzeko eta esperimendatzeko aukera izan behar du: “y poder hacerlo desde la libertad, en las dosis y las circunstancias que le parezcan más convenientes” (ibid). Helburu hori dute Euskal Herrian eta inguruetan hezkidetzaz edota pedagogia feministaren txapelapean martxan diren proiektu, plan, asmo eta saiakerek. Esaterako, Bilgune Feministak kaleratutako *Transsexualitateak* liburuxkan horixe jasotzen da: “generoa deseraikitzeke ezinbestekoa izango da: batetik, haurren eta pertsona helduen autodeterminazioa nahiz agenzia indartzea; bestetik, bizitzako alderdiei generoa kentzeko ariketa egin dezagun!” (ibid:51). Amelia Barquínek (2015), berriz, norberaren seme-alabak intersexualak bailira bezala haztera gonbidatzen ditu gurasoak, generoari buruzko bere blogean²⁰. Alabaina, proposatzen diren ariketa horiek egunerokoan praktikan jartzea ez da erraza suertatzen beti, finean, genero bitarra hausteko entseguek jendartearekin haustea ekartzen baitute derrigor. AEBetan eta Kanadan generoaren autodeterminazioaren alde egiten duen guraso talde batek zera aitortzen du:

[...]existe una estrecha relación entre pensar en el género y pensar en el riesgo. [...] hacer elecciones no normativas y permitir que los niños/as y jóvenes sean objeto de burlas. Pero al mismo tiempo, [...] existe un grave riesgo de inacción, de afianzar los roles de género normativos para evitar el dolor a corto plazo, poniendo en riesgo la salud física, social y espiritual a largo plazo (Green eta Friedman, 2015:22)

Haurrak, neskak eta mutilak genero sortzailetasunean hazteko oinarritzkoa da haurtzaroan zehar beraien autoafirmazioa baimentzea eta haurrak adierazten duena entzutea. Ohikoak dira norabide berean hainbat diziplinetan lanean ari diren feministen ahotsak ere; generoak

²⁰ Hona hemen Amelia Baquinen Kinka izeneko blog kritikoa: <https://abarquin.wordpress.com/>

ezbaian jarri eta dualismotik harago ikustea proposatzen dutenak, adibidez, queer teoria eta mugimenduak beste horrenbeste proposatzen du:

La teoría queer, a pesar de estar aún poco extendida en el ámbito académico de nuestro país, ha ayudado a desestabilizar los conceptos de sexo, género y sexualidad, buscando la deconstrucción de las identidades de género estáticas y atacando las normas binarias de género y sexualidad dominantes para contemplarse la posibilidad de que un individuo pueda declararse abiertamente pansexual, atravesando el binarismo de los conceptos heterosexual, homosexual o bisexual (Martín, 2008; hemen aipatua: Perez, 2014:24-26).

Geroz eta gehiago dira maila teorikoan garatu dena praktikan jartzeko ahalegina egiten ari diren guraso eta hezitzaileak, ez da atal honen helburua horiek guztiak biltzea eta aipatzea, baina generoaren disidentzian kokatzen diren askotariko familia eta zenbait gurasotasun edota amatasun esperientziak aipatu nahi dira hemen. Bizipen horiek eta beste zenbait jasotzen dira *Maternidades cuir* (2020) eta *Maternidades Subversivas* (2015) argitalpenetan. *Maternidades subversivas* lanean, Maria Llopisek amatasun eredu hegemonikoa hausten duten gurasoak elkarrizketatu zituen: “he entrevistado a cada una de las personas que forman este libro, porque cada una ofrece un punto de vista diferente sobre la maternidad salvaje, gozosa y no normativa (2015:19). Bestetik, Gracia Trujillo eta Eva Abril koeditoreek gidatutako *Maternidades Cuir* (2020) izeneko liburua dugu. Publikazio horretan amatasuna queer aldarrikapenez janzteaz hitz egiten dute “Queremos queerizar la maternidad: queerizar, de torcer, de tortillar, de atravesar, redefinir, cuestionar -y un largo etcétera- ese ideal de "maternidad" que nos encorseta y agobia” (Trujillo eta Abril, 2019:15).

Aipatutakoez gain, AEB eta Kanadako herrialdetan badira gisako esperientziak. Horiek jasotzen dituzte, Joy Green eta May Friedmanek (2015) *Buscando el final del arcoíris* argitalpenean. Bertan, genero autodeterminazioaren alde egiten duten AEB eta Kanadako hamar familia baino gehiagoren esperientziak, aholkuak eta proposamenak jasotzen dira. Azpirragarriak dira aipatzen dituzten hainbat elementu: batetik, genero bitartasuna ezbaian jartzea posible da; bestetik, hori egin ahal izateko ezinbestekoa da komunitatearen beharra :

Para promover la praxis, el reajuste y la resistencia son fundamentales las comunidades y las redes basadas en la confianza. La confianza entre los individuos y las comunidades se adquiere con el paso del tiempo y se basa en las relaciones y los contactos personales entre quienes viven en una comunidad y se implican en ella. Las redes y las comunidades suelen desarrollarse de un modo específico a través de familiares, amistades y alianzas que pueden estar conectadas de diferentes maneras con individuos, grupos y/o colectivos locales o dispersos geográficamente (Green eta Friedman, 2015:23-24).

Genero bitartasuna haurdunaldian nola, zergatik eta zein dimentsiotan gertatzen den ikusten laguntzen diguten ezagutza feminista teoriko horiek guztiek bide eman diote haurdun dauden pertsonen eta beraien pentsamendu nahiz hazkuntza praktikak (generoaren sozializazioari dagokionean) errealitatean zein eta nolakoak diren ikertzeko. Hurrengo atalean, ikerketan egin den landa lanaren metodologiaren azalpena aurkituko duzu: bertan, zein gorputzetatik ikertu den, metodoa zein izan den eta laginaren ezaugarriak deskribatu dira.

4. METODOLOGIA

4.1 Ikerketa metodoa: elkarrizketak eta objektu materialen azterketa

Ikerketa metodo nagusia elkarrizketa sakonak egitea izan da, zehazki erdi egituratuak diren elkarrizketak. Horrez gain, neurri txikiagoan bada ere, objektu materialen azterketa egin dut. Metodologia kualitatiboa hautatu eta erabili dut, egiteko modu dinamikoa, malgua eta prozesuari lotua, hain zuzen ere (Gonzalez, 2009). Zentzu horretan, azterlanean, etengabe egokitzen, birpentsatzen eta malgutasunez jokatzeko asmatzea izan da nire erronka nagusia. “Ikerketa Feministak eta generokoak” masterrean ikasitako zein hausnartutako begirada eta egiteko modu feministetan, zehazki, antropologia feministan inspiratu eta oinarritu naiz lan honen metodologia zehazterakoan. Horren adierazle da une honetan bizitzen ari naizen gurasotasun prozesu pertsonalean arreta jartzea, nire pentsamendu eta praktikak behatzeko ahalegina egitea generoaren aldagaia erdigunean jarritz; are zehatzago, aldagai horrek (beti beste batzuekin elkarreraginean, noski) haurdunaldian zehar zer nolako eragina duen aztertu nahi izan dut, betiere, gurasoon diskurtso, praktika eta egiteko moduak kontuan hartuz. Epistemologia feministari jarraiki, Blazkez-ek (2012), Sinref²¹ eta Hegoa (2014) elkarteek (2014) nahiz Castañeda-k (2012) azpimarratzen dutena gogoan hartu dut lan honetan: lehenik, beharrezkoa da behaketaren interpretazio markoei kritika egitea; bigarrenik, ikerkuntzan eragina duten rol eta balio sozial zein politikoak deskribatu behar dira; eta hirugarrenik, ezinbestekoa da objektibitatearen, arrazionaltasunaren, neutraltasunaren eta unibertsaltasunaren idealekin kritiko izatea.

Haur/pertsona baten esperoan dauden gurasoak, zehazki, haurdun daudenak elkarrizketatu ditut. Garrantzitsua izan da elkarrizketa horietara iritsi aurretik egindako bidea, hain zuzen ere, nik neuk haurdunaldian zehar bizi izandako kontraesan, kezka eta galderen kontaketa idaztea eta berrirakurtzea izan da lehen pausua. Azken batean, ariketa autobiografikoak (autoetnografikoak), ‘ni’ gogoetatsuak erabat zalantzan jartzen du behatzailearen irudia inpersonala eta arrotza denaren ideia; gainera, ezbaian jartzen du objektibotasuna lortzeko edozein asmo (Hernandez, 1999:53). Bizi izandakoa jasotzeak eta nire bikotearekin nahiz

21 SIMReF: Ikerketa Feministaren Metodologiaren Diziplinarreko Mintegia. Estatu mailan epistemologia eta ikerketa feministaren metodologia eztabaidatzeko, prestatzeko eta sustatzeko gune finkatua. Bi helburu dituen esperientzia da: ikerketa feministen potentzialtasunei eta mugei buruzko eztabaida sutatzea, hainbat diziplinatan errealitatea aztertzekeo paradigma berri gisa eratzeko, eta metodologia feministei buruzko prestakuntza-espazioa formalizatzea, nazioarteko eztabaidak bildu eta ikerketa hobetzen laguntzeko (Simref eta Hegoa, 2014)

inguru hurbilarekin partekatzeak ikerketan zehar egin ditudan elkarrizketetako galderak, gaiak, kategoriak eta abar argiago ikusten lagundu dit. Baliagarria izan da, gehiago ala gutxiago, ikergai honekin dudan harreman pertsonalean miatzea eta horri esker ikergaiarekiko ditudan inplikazioak ikustea. Norabide horretan, Estebanek (2019) autoetnografiari hausnarketa esanguratsua partekatzen du:

Idazten duen emakume antropologoak, esan gabe, zera esaten du: «hau ni naiz, hemen nago, begira, entzun nazazue»; bere buruarentzat eta besteentzat izatearen, askatasuna eta plazera aldarrikatzen ditu, alegia, ezberdina izatearena; desberdina, sistemak, kulturak eta disziplina berak eraikitzen eta mugatzen duenaren ezberdina; dibertsifikatzeko eta autotransformatzeko aukera aldarrikatzen du, aldi berean autoritatea sortuz eta horretarako espazioa eta denbora definituz (Esteban, 2019:5)

Aipatu dudanez, ikerketa metodo gisa, alde batetik, banakako elkarrizketa erdi egituratuak egin ditut eta horiek aurrera eramateko elkarrizketa gidoia²² diseinatu eta prestatu nuen; aztergai ditudan kategoriak kontuan hartuz diseinatu nuen galdetegia. Galderak prest izan ditut, nahiz eta, elkarrizketatu bakoitzarekin egokitzen joan naizen. Beste alde batetik, objektu material zenbait (ekografiak, arropak, opariak edota logelaren antolaketa) ere aztertu ditut. Horretarako, batetik etxeetara egindako bisitetan behatutakoaren nahiz sentitutakoaren gaineko oharren kuadernoa osatu dut; bertan, elkarrizketa unean eta ondoren behaketak eta deskribapenak jaso ditut. Horrez gain, elkarrizketatuen etxeetako logelen eta arropen eta jaso dituzten oparien argazkiak egin ditut. Ondoren, zenbait argazkiren deskribapenak egin ditut. Azken batean, objektuak ere informazio iturri gisa ulertu ditut, haurdunaldian zehar, datorren norbanakoari lekua egiten eta ibilbide biografikoa eraikitzen laguntzen dutelako. Batetik, haurdunaldiaren esperientzia ulertzen lagundu dit; eta bestetik, horixe da ikerketa honen helburua, jaioko den pertsonak bizi duen genero sozializazioa noiz eta nola gertatzen den oihartzen lagundu dit. Finean, generoa eta sexua pertsona baten etorkizunean zenbateraino diren elementu zentralak ikusteko aukera eman du eta horretan hainbat objektu subjektuekin harremanean zein eragin/inplikazio/funtzio duten.

Elkarrizketa horiek haurdun dauden pertsonen etxeetan egin ditut. Horren bidez, galderak egin eta erantzunak jaso/sentitzeaz gain, etxea sentitu eta datorren pertsona berriari tokia nola egiten zaion behatu nahi izan dut. Begirada feminista txertatu nahian, nire ahalegina eta intentzioa egiteko moduak zaintzean jarri dut, bai elkarrizketetan, baita etxeetara egindako bisitetan ere. Izan ere, Gonzalezek (2009) dion moduan, ikertzen duen pertsona errealitatea

22 Interesa izanez gero, lanaren eranskinetan topatuko duzu elkarrizketa gidoia.

modu subjektiboan interpretatzen duen subjektua da, eta oreka mantentzen ahalegindu behar du, “erreflexibitatea” erabiliz prozesuak eskatzen duen malgutasunaren eta zorrotasunaren artean. Horregatik, ezinbestekoa da jarrera konstante, gogoetatsu nahiz kritiko eta kokatua izatea egin nahi den ikerketa lana ahalik eta zintzoena, zorrotzeta eta gardenena egiteko (Gonzalez, 2009). Hori horrela, elkarrizketatzaile eta ikerlari izateak ematen didan autoritatea gogoan hartu dut batetik; bestetik, elkarrizketatuekin berdintzen ninduten elementuak baliatu ditut: ni neu guraso izatea eta haurdunaldia orain dela gutxi bizi izana. Elkarrizketetan, etxean egin berri dituzten aldaketei buruz galdegin dut, baita etxea erakusteko eskatu ere: jaio berriari prestatutako lekua (halakorik baldin bada), lo lekuen antolaketa, erosi edota eskuratu dituzten haurrarentzako osagarriak, arropa eta abar. Gainera, haurdunaldian zehar jaso dituzten opariak erakutsi eta horiei buruz ere hitz egin dugu. Materialtasunari erreferentzia eginez, objektuek duten agentzia eta horiek genero identitatearen eraikuntzan duten inplikazioa aztertzen saiatu naiz. Horretarako, atal honetan kontatu dudan moduan, elkarrizketetako galderez gain, argazkiak eta espazio fisikoen eta objektuen deskribapenak erabili ditut. Horien azterketan eta ulermenean ezinbestekoa izan da Natalia Alonso Rey (2012,2016,2017), Josune Fernandez (2018) edota Maria Ruizek (2012) egindako artikuluetan jasotzen duten objektuen analisiaren gaineko begirada. Orain arte aipatutako ikerketek objektuen gaineko begirada hori iragana aztertzeke baliatu izan dute, dagoeneko pasa diren bizi prozesuak aztertu dituzte, esaterako, Alonsoren (2016) kasuan migrazio prozesuak, Fernandezek (2018), berriz, adopzio prozesuak edota Ruizek (2019) kartzelako egonaldian gordetako karpeta bat eta bertako dokumentuak ikuskatu zituen. Nire lanean, berriz, aipatutako objektuak, bereziki, etorkizuna eraikitzeke bide urratzaileak dira. Iragana gordetzeko, jasotzeko eta memoria antolatzeke elementu izateaz gain, aurrera begira, sortuko den pertsonaren gaineko proiektzioak nahiz igurikapenak egiteke bide ematen dute. Oraindik fisikoki izate berezitu gisa existitzen ez den horri leku bat ematen diote objektu osagarri horiek, etxera datorrenari tokia egiteke aukera sortzen dute (Alonso, 2016: 41).

Informazio nagusia elkarrizketetatik atera da eta, horrenbestez, objektuei begira egindako ekarpena xumea izan da, niretzat ere berria den objektuen antropologiaren eta materialtasunaren gaian lur hartzeke aukera eman dit, hala ere. Elkarrizketak, gehienbat, etxeetan egitea eta etxearen antolaketan erreparatzea, haurraren etorkizuneko logelari, arropatxoei argazkiak ateratzea eta bertan zeuden objektuetan arreta berezia jartzea izan da

nire lana. Gainera, kasu batzuetan eskatu diet jaso dituzten opari guztiak elkarrekin argazki bat atera eta bidaltzeko.

Objektuen gainean egindakoa, beraz, gaira eta metodora hurbiltzeko lehen urratsa izan da eta aukera eman dit aurrera begira lan lerro baliotsua dela jabetzeko. Esaterako, ekografia bera objektu material gisa ulertuta aztertzen saiatu naiz, baina jabetu naiz ikerketa oso bat egin daitekela ekografia gai hartuta generoaren eraikuntzan duen inplikazioa aztertzen. Beste adibide bat ekartzearren, haurdunaldian zehar sortzen diren dokumentu pertsonalak direnak (albumak, bideoak, argazkiak...) aztertzeak ere informazio baliotsua ekarriko lioke gaiari.

Elkarrizketak 2021eko maiatza eta uztaila bitartean egin ditut, ordu bat eta ordu eta erdi bitarteko iraupena izan dute, bataz beste. Normalean, elkarrizketarekin aurretik edo ondoren kafe bat edota egoera informalago bat partekatu izan dut. Zazpi elkarrizketetatik bost egin ditut etxeetan, beste bi kalean egin ditut, azken horiei etxeko argazkiak bidaltzeko eskatu eta halaxe egin dute. Orokorrean eskuzabalik hartu naute elkarrizketarekin, batzuek urduri, -zer kontatua izango ote zuten kezkatzen bazituen ere-, berehala zabaldu dira eta beraien bizipen, pentsamendu, uste eta prebisioak partekatzeko prestutasuna agertu dute.

Elkarrizketen eta informazioaren azterketa egiterakoan, lehenengo eta behin, informazioa kategoria analitikoaren arabera kodetu dut (haudunaldia; gorputz sentazio fisikoak, emozionalak eta mentalak; gurasotasuna; hazkuntza ereduak eta balioak; hazkuntza praktikak: izendapena, guraso baimenak, ekografiak, opariak, arropak eta objektu osagarriak; generoaren sozializazioa;) eta kodetutako datuetan sakontzen eta analizatzen jarraitu dut, ikertzen ari naizen gaiaren konplexutasuna ulertu nahian; hau da, haurdunaldian genero bitartasuna non eta nola islatzen den, zein forma edota kolore hartzen dituen eta gurasoen ideologia nahiz praktiken arteko aldea zein den ikusi nahi izan dut. Zehazki, hauek dira kategoriak:

- Haurdunaldia: gorputz sentazio fisiko/emozionalak; zer da neska ala mutila galdera?; covid-19aren eraginak
- Gurasotasuna: guraso izateko nahia, beldurrak eta ilusioak
- Hazkuntza ereduaren gaineko uste eta pentsamenduak: balioak, generoaren gaineko iritzia, neska ala mutil izatearen nahia.
- Hazkuntza praktikak: sexua jakitea ala ez; izendapena; gurasotasun baimenak
- Objektu materialak: ekografia, neutraltasuna; arropak; opariak; logelaren antolaketa

4.2 Ikerketaren lagina: haurdunak

Gipuzkoako herri batean bizi diren eta une honetan haurdun dauden zazpi pertsonarekin elkartu naiz. Horien aukeratzean, honako irizpidea kontuan hartu ditut: lehenik eta behin, lehenengo aldiz haurdun dauden pertsonak elkarrizketatzea erabaki dut, beraien bizipena intentsuagoa eta beste haurdunaldi batekin konparatu ezina delako. Zazpi lagunetatik bat bigarren aldiz haurdun geratu dena izan da, baina gainontzean denak lehenengo aldiz. Bada lehenengo aldiz haurdun geratu den baina aurretik ere guraso den pertsona bat ere. Bigarrenik, haurdun dauden pertsonen artean, aldagai ezberdinen araberrako aniztasuna lortzen saiatu naiz: adina, arraza, lanbidea, feminista ote den eta beste. Aldagai horiek nire ikergaian zein eragin duten alderatzea zen nire lehen asmoa. Ikerketan aurrera egin ahala, ordea, elkarrizketatuen aniztasun hori lortzea oso zaila egin zait, pertsona arrazializaturik ez dut topatu, lanbidez elkarrizketatu asko (une honetan, lanean ez badaude ere) hezkuntza munduarekin oso binkulatuak daude eta feministak direnen eta ez direnen arteko aldeak ere ez ditut erraz identifikatu. Adinari dagokionez elkarrizketatu oso gazteak topatu ez baditut ere, 24tik 41 urtera bitartekoak izan dira berriemaileak. Hirugarrenik, nire oso gertukoak ez direnak elkarrizketatu ditut, tartean oso gertukoa den kide bat badagoen arren. Azkenik, aurretik esan den moduan, denek partekatzen dute, batek izan ezik, bizilekua, Gipuzkoan kokatua dagoen herria²³. Haurdun dauden pertsonak elkarrizketatzeaz gain, haurdun ez dagoen guraso bat elkarrizketatu dut, guraso ez diren eta gaian adituak diren bi lagunekin ere kontraste zenbait egin ditut. Ezin ahaztu haurdunaldia eta generoa gaitzat hartzea erabaki nuenetik hona bidean topatu ditudan bidaideak (klasekideak, irakasleak, parkeko gurasoak, etxeakoak...) eta horiekin izandako elkarrizketak, grabatuak izan ez diren arren, lan honen ulermenetara iristeko ezinbesteko hizketaldiak izan baitira.

Haurdun dauden gorputz guztiak beti emakumezkoenak ez badira ere, horren adibide dira haurdun geratzen diren gizon transak,²⁴ ikerlan honetan elkarrizketatu ditudan guztiak emakume kategorian eta izendapenean gehiago ala gutxiago eroso topatzen dira, nahiz eta

²³ Anonimotasunaren alde egitearren, lanean zehar herria zein den ez zehaztea erabakia dut.

²⁴ Aurretik ere argitu dugu, Damien W. Riggsek (2015:89) gizon transexualek bizi izan dituzten haurdunaldien gaineko kontakizunei esker, haurdunaldiak gorputz identitate zehatzekin (femeninoarekin) duen harreman normatiboa haustea posible dela, horrela, berriz kontzeptualizatzeko aukera sortzen da edozein gorputz identitatek bete dezakeen funtzio gisa (beti ere ugaltzeko gai den gorputza izan behar du, noski). Azken batean, gertaera fisiologikoa da gizon batzuk erditu egiten direla.

elkarrizketatuak bat bolleraren izendapenarekin emakumearenarekin baino identifikatuago sentitzen den. Hauek izan dira²⁵ beso zabalik hartu nauten zazpi lagun elkarrizketatuak:

- **Laura:** 41 urteko hezitzailea, lan finkoa du 0-2etapan. Haurdun geratzeko prozesua ez da erraza izan beretzat eta bi urteren ondoren geratu da haurdun klinika batean. Bere bikotearekin batera erabaki du guraso izatea lehenengo aldiz. Gehiago identifikatzen da bolleraren izendapenarekin emakumearenarekin baino. Aktibista feminista eta LGTBIQ mugimenduko kidea da. Hiru logeladun etxe batean bizi da bikotearekin alokairuan. Etxeko logeletako bat jaioko den haurarentzat izango da. Musikaria da denbora librean eta oso lagunzalea.
- **Bea:** 38 urte dituen naturzalea eta itsasoko zientzialaria da. Itsasoaren ikerketa zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa bateko langilea da azken hamar urteetan, lan finkoa du, beraz. Bikotearekin (heterosexuala) bizi da azken sei urteetan, mutilaren etxean. Lehenengo aldiz izango da guraso, nahiz eta, berak dioen moduan, haur asko zaindu izan dituen. Kirolzalea da eta azken aldian txanpuak eta kremak egiten hasi da etxean.
- **Nekane:** 28 urte ditu eta langabezian dago une honetan. Enpresa ekintzaile izateko ikasketak amaitu zituen eta azken bi urteetan nekazarien elkartean aritu da dinamizatzaile lanetan, baina ez diote kontratu finkoa egin. Ikasten jarraitu nahi du, abuztuan lehenengo aldiz erdituko den arren, irailean berdintasunerako masterrean izena emana du. Urte asko landa eremuan etxe baten bila aritu ostean, baserri batean bizi da bere bikotearekin (heterosexuala). Hipoteka ordaintzen dute bien artean.
- **Ainhoa:** 26 urte ditu eta irakaslea da lanbidez. Une honetan langabezian dago eta kontratu laburretarako deitzen dute hemendik eta handik. 24 urterekin izan zen lehenengo aldiz guraso. Bere bikotekidearekin (heterosexuala) landa eremuan bizi da mutilaren familiako etxean, ondoan amaginarreba, aitaginarreba, kointak eta horien bikoteak eta seme-alabak bizi dira.

²⁵ Elkarrizketatuen izenak asmatuak dira. Beraien anonimotasuna gordetzeko asmoarekin protagonisten, bikoteen eta abarren izenak eta abizenak aldatu/asmatu egin dira.

- **Maitane:** 33 urte dituen irakasle funtzionarioa lehen hezkuntzan. Etxea erosi berri bikotekidearekin eta obra eta etxea ordaintzen ari dira. Bigarren aldiz izango da guraso, aurrekoan bere bikotekideak erditu baitzuen. Bikotekidea kazetaria da eta ez du lan finkorik, une honetan aldizkari batentzat egiten du lan. Aktibista feminista da azken urte luzeetan.
- **Ibaia:** 26 urteko ikaslea. Haur Hezkuntzako Gradua amaitzeko azken urtea egitea falta zaio. Bere senarrarekin eta bi txakurrekin bizi da azken lau urteetan, gurasoena den etxe batean. Senarrak lan finkoa du, berak ez du enplegurik. Haurrak izan eta ikasketekin jarraitzea da bere asmoa, horretarako senarrak gurasotasun baimena eta ondoren eszendentzia hartuko du. Bizkiak espero dituzte.
- **Maite:** 26 urteko dentista laguntzailea. Kirol zalea, motorrak, kotxeak eta zaldiak gustatzen zaizkio. Bere senarrarekin eta txakurrarekin bizi da herrian, baina obra egiten ari dira senarraren baserriaren zati batean, bertara bizitzera joateko. Senarra autonomoa da eta lehen sektorean egiten du lan, baserrian bertan

Behin, metodoaren ezaugarriak, laginaren nondik norakoak eta oinarri metodologikoak ezarrita, hurrengo atalean, landa lanaren analisisian sakonduko dut. Datorren lerroetan aurkituko dituzu lanaren mamia, elkarrizketatuek emandako informazioa eta ikertu den gaiaren esangura nagusienak, korapiloak, elkarrizketatuek aipatuko alderdi komunak nahiz beraien bizipenen arteko aldeak.

5. GENEROA ETA HAZKUNTZA EREDUAK HAURDUNALDIAN

Atal honetan, elkarriketetan jasotako informazioaren analisia jaso dut. Ikergaiaren helburuak eta asmoak kontuan hartuta lau ataletan antolatu dut: lehenik eta behin, guraso izateko nahian eta haurdun geratu aurreko bizipenetan jarri dut arreta; izan ere, etorkizuneko gurasoa “ez lekuan” sentitzen den garaia da haurdunaldia, aurreko bizimoduaren eta datorrenaren artean kokatzen da (Turner, 1988; hemen aipatua: Montes, 2010:16). Atal honetan, guraso izateko nahiaren, guraso izatearen ilusio nahiz beldurren gaineko bizipenak jaso dira.

Bigarren atalean, haurdunaldia bera ezaugarritzen duten elementuak izan ditut ikergai. Kontua da haurdunaldia, kategoria sozial batetik bestera igarotzea baimentzen duen prozesua dela. Horren ondorioz, emozio ugariaren artean, antsietatea eta urduritasuna ere sentitzen diren garaia izan ohi da, finean, ez delako jakiten igarotze hori nolakoa eta norakoa izango ote den (Montes, 2010:16). Atal honetan, batetik, elkarriketatuek haurdunaldian zehar bizi izan dituzten gorputzaldiei, aldaketei eta abarrei erreparatu diet, zehazki covid-19aren eraginak ere kontatu dituzte; bestetik, haurdun dauden gorputzen publikotasunean arakatu da, publikotasun horren barnean, jendearantzat (jendartearentzat) umekiaren sexua jakiteko beharra eta nahiaz ere hausnartu dut.

Hirugarren atalean, guraso izatera iritsi aurretik, haurdun dauden pertsonak dituzten ideologietan, usteetan eta pentsamenduetan arakatu dut, bereziki, genero gaiari buruz dituztenetan. Gainera, aurrera begira familia gisa nola antolatzea (etxeko zaintzak, enpleguratzak, eskolaratzak eta abar) pentsatu duten eta horri lotuta gurasotasun baimenak nola hartzeko asmoa duten ikertu dut. Finean, bikotearen barruan emakume edota gizon gisa izendatzen direnen artean ea alderik dagoen ikusi nahi izan dut.

Azken eta laugarren atalean, berriz, hazkuntza praktikei erreparatu diet, generoaren sozializazioari begira egiten diren hautu eta erabakietan; esaterako, umekiaren sexua jakin ala ez, haurren izendapena edota haurra inguratuko duten objektu material zenbaiten gaineko azterketa eta abar.

5.1 Haurdunaldiaren aurretik: guraso izatear.

5.1.1 Gurasotasuna: nola, norekin eta noiz izan guraso.

Marko teorikoan sakondu eta argudiatu da amatasuna sozialki eta kulturalki eraikitzen den identitatea dela (Esteban, 2006:46) eta, beraz, gurean, mendebaldeko genero sistemen erabateko eraginpean eraikitzen da guraso identitatea. Hori dela eta, gaur egun, oraindik orain, guraso kontzeptuak baino indar eta pisu handiagoa dute ama eta aita esanahiek, hau da, biak ala biak guraso badira ere, genero bitartasunak bereizi egiten ditu “aita” eta “ama” izateko moduak, funtzioak zein esanahi sozialak. Aurrez ere aipatu dugun moduan, garaiotan, badaude askotariko familia ereduak eta guraso izateko moldeak ere aldatzen ari dira. Zenbait espazio feministatan (jardunaldiak, aldizkarietako artikululuak, publikazioak) eztabaidagaia da amatasuna, ez izendapena bakarrik, baita kontzeptuak barnebiltzen dituen sinesmen, uste, balio nahiz arau sozialak ere. Aktibista feminista den elkarrizketatu batek (gainontzekoek ez) ekarri du gaia erdira *“ni gauza batek kezkatzen nau “ama” kontzeptuak, ama izendatzea. Iruditzen zait dela hitz bat kristoren pisua daukana”*(Laura) eta argi adierazi du ez dela eroso sentitzen ama izendapenean, ez eta identitate horretan ere: *“Nik hasiera batean, ama, ez. Zera egiten dit, rintintin gisako bat. Ez dakit, pisua dauka, karga dauka. Aitak ere badauka beste bat, baina arinagoa da”*(Laura). Hori dela eta, oraindik ez badaki ere, bere haurrak “ama” baino bere izen propioz deitzea nahiagoko duela eta haurrak berak zer nahi duen kontuan hartu nahiko lukeela baieztatu du:

“Nire izena Laura, eta kito... niri jende askok esaten dit “amatxo” eta urduri jartzen naiz. Ez baitakit zer izango naizen. Nik uste dut hala ere berari argi esango diodala ni izendatzeko berak nahi duen bezala eta ni ez banago eroso esango diodala, baina berari ere utziko diot aukera hori, non dagoen eroso”(Laura).

Asko dira azken hamarkadan amatasuna ikuspegi feminista batetik hausnartzeko proposamena egiten duten publikazioak. Horien artean, aurretik aipatu ditugun bi dokumentu. Batetik, *Maternidades subversivas* (2015) Maria Llopisek idatzia. Esan bezala, liburu horretan, heteroarautik kanpo kokatzen diren askotariko gurasoen bizipenak, irudiak nahiz esperientziak jasotzen dira. Beste dokumentu batzuen artean, Del Lagrace Volcano²⁶k bere haurraren bila haur eskolara joan zen batean bizi izandakoa kontatzen du: *“Hace unas semanas, cuando fui a recoger a Mika a la guardería, algunos de lxs niñxs le dijeron: «Mika, aquí viene tu papá».* Pude ver que Mika estaba un poco confundido porque para él soy MaPa,

²⁶ Intersexuala den artista, idazle eta pertsonaia publikoa

no papá” (Llopis, 2015:87). Adibide horrek aita eta ama izendapenetik harago egunerokoan hainbat guraso egiten ari diren proposamenen eta alternatiben berri ematen digu.

Ikerketa honetako elkarrizketatu batek ere gaia hainbat espazio feministatan lantzen ari dela kontatu du eta beharrezkoa dela horri buruz kolektiboki hausnartzea:

“Zama, bai, ama zara, eta beraz, ama zarelako izan behar duzu halakoa. Daukazu kuestionatzea eta hori dena. Zalantzan jartzen dut asko, honi buelta batzuk eman dizkiot: nahi dut ama izendatzea edo ez? Hor gaude, Zalaoa ere. Askotan hitz egin dugu gai honetaz, egin genuen behin ikastaro bat online Madrilgo batzuk antolatuta, zela “Maternidades habitables” eta oso interesgarria izan zen. Asko hitz egiten zen ama kontzeptuari buruz, eta buelta batzuk eman behar zaizkiola uste dut”(Laura)

Hori guztia esanda, guraso nola, norekin eta noiz izan norberaren (eta bikotearen) desiraren araberakoa da normalean, gurean²⁷. Desira hori, betiere, guraso izateko baldintzatzaile sozial, kultural eta ekonomikoen eraginpean dago, noski. Hain zuzen ere, Imazek (2010:179) ama bilakatzeko prozesuari buruz egindako ikerketan, garai hauetan, “ama izateko desioa” guraso izan aurreko beharrezko urrats gisa ulertzen dela ondorioztatu zuen. Hautatua izateak, ordea, ez du bermatzen bidean kontraesanak nahiz bizipen elkargurutzatuak izaten ez direnik: “En este proceso de convertirse en madre, la persona se halla, a menudo, ante sentimientos diversos, a veces, contradictorios, y también enfrentada a reflexiones desde perspectivas contrapuestas” (Imaz, 2010:177). Prozesuan zehar izaten diren gorabeherak, bizipenak eta erabakiak ezagutzeko asmoz galdegin diet elkarrizketatuei noiz, nola, norekin guraso izatea zein puntutaraino erabaki duten, zer duten garbi eta zer ez. Askotariko erantzunak jaso ditudan arren, bi dira nabarmenduko nituzken elementuak:

Lehenik eta behin, elkarrizketatu gehienek aipatu dute txikitatik datorkiela guraso izateko nahia. Elkarrizketatu batek, ordea, kontrakoa adierazi du “*Nik ez dut izan ama izateko beharrik, eta lehenengo haurra eduki genuenean, nik ez nuen edukiko, ez balitz Alazne izan esan zuena “nik gestatuko det” eta nik ordurarte ez neukan interesik, egia esan*”(Saioa). Harritu egin nau gainontzekoek hain argi esatea txikitatik desiratu izan dutela: hauxe dio batek “*Ba, egia da, igual nahia... Ez dakit gehiago planteatua edo gutxiago planteatua, baina nik nahia beti sentitu izan dudana zerbait izan da, izan nahi nuela*”(Bea); eta beste batek adierazpen bera egin du “*Ba egia esan, beti nahi izan dut gazte izan guraso*”(Ainhoa). Nahiz eta kasu batzuetan kosta egin den haurdun geratzea “*Nire kasuan izan da haurdunaldi bat hain-hain espero nuena, desio nuena, azkenean etorri dela, kasi bi urtez saiatu gara*” (Laura). Beste batek ere zailtasunak izan ditu hizpide:

²⁷ Mendebaldeko, Estatu Espainiarreko eta Euskal Herriko errealitateari erreferentzia eginez.

Bai, oso txikitatik... Bueno oso txikitan... pentsatzen dut 11 izango nituela. Como concepto, beti oso presente, oso presente izan dudana zerbait izan da. Gero, bikote bat oso gaztetatik ez izatea... Alegia, ba 30 urte arte ez dut izan bikote bat, zenekin sentitu dut bai, berarekin nahi dut guraso izan. Eta bestetik, ba denbora bat pasa nahi izan dut berekin. Ama bakarria izatea ere burutik pasa izan zait. Nahiz eta gero prozesu horretan aurrera egin izan nuen momentu batean, eta justu ikusi nuelako beste haurdunaldi batzuk... O sea, amak nola zeuden eta ama bakarria izatea nola izango zen imajinatu nuenean... Esan nun buah... ba ez dakit ama bakarria izango nintzatekenik. Galdera ikurra hor gelditu zen”(Bea).

Horrez gain, deigarria egin zait guraso izateko desira txikitatik zuten bi elkarrizketatuk oso argi zutela baita bikoterik gabe ere ama izan nahi zutela:

“Ba nik betidanik nahi izan dut ama izan. Txikia nintzela esaten nuen hiru seme-alaba izango nituela. Bi nireak eta beltzaran bat. Eta igual zitzaidala bikotea izan edo ez, nik izango nituela. Eta amonak esaten zidan *“baina Garazi, zuk ba ahal dakizu zer esaten ari zaren? Nola bikoterik gabe? Hiru seme-alaba... badakizu zer den hori?”* Klaro, bera bere esperientziatik, como diciendo, *“honek ba ahal daki zer esaten ari den, oraindik panpina eskutan du eta, gainera, hiru seme-alaba bera bakarrik ateratzeko...”* Ze ni beti eskopetilla izan naiz... Eta ni *“ui, eta ze horretarako bikote izan behar da? Ba ez, porque nik nahi baldin badut eta kapaza banaiz, zerren zai egon behar dut?”* Eta horrela, ez? Etxean beti esaten zidaten ni jaio nintzela ama izateko. Eta bueno, hori beti hor egon da, nahiz eta jakin momentua ez zela”(Nekane).

Txikitatik nahi izan arren, elkarrizketatu batek aipatu du feminismoak desio hori birpentsatzeko aukera eskaini ziola:

“Urte pilo bat pasa nituen txikitatik bai, bai, bai, super klaro, nahi ditut eduki umeak, eta gainera halaxe esan nion amari: *“Ama nik nahi dut mutil bat umeak edukitzeko eta gero mutil hori tiburoietara botako dut”*. Gizona umeak edukitzeko eta kito. Egon naiz urte pilo bat baiezkoan, gero nik uste dut feminismoa ezagutu nuela eta izan zen, *“aber, aber, aber”*... nondik dator hau dena?”(Laura)

Bigarren elementu deigarria, Imazen (2010) ikerketarekin bat eginez, elkarrizketatutako guztien haurdunaldia desiratua izatea da. Nahiz eta bakoitzak haurdun geratu bitarteko prozesuan zailtasunak eta aldeko baldintzak izan dituen, denbora tarte luzeagoan ala laburragoan lortu dute haurdun geratzea eta guztiak pozik eta ilusionaturik daude. Alabaina, elkarrizketatu batek dio oso pozik dagoela, baina nahiago zuela ikasketak amaitu ondoren geratu izan balitz haurdun, pixkat aurreratu egin dela: *“nik nahiago nun ikasketak bukatuta izan ama, baina esan ziguen asko tardatzen zela haurdun gelditzen eta saiakera bat egitea erabaki genuen eta gero pixkatean ez saiatzea berriz. Haurdun geratu nintzen eta ekografian jakin nuen bi ziala”*(Ibaia). Guraso izateko beharrezko baldintzen artean aipatu dituzte egonkortasun ekonomikoa eta horri eskutik lotuta doan bizileku finkoa izatea:

“Bai. A ver ez nago esaten zure etxe propioa izan behar duzunik, baina zerbait finkoa edo ya alkiler seguru batean zaudenean, edo ya beste egonkortasun batekin. Bai, eta gehienbat lana. Lanak ere asko baldintzatzen du. O sea, bietako batek lan finko bat izatea asko egiten du, eta gainera ez da oso gauza erreza orain lan finko bat izatea. Bizi gara kontratutik kontratura.” (Ainhoa).

Azken honek gazte izan nahi zuen guraso eta 26 urterekin bigarrenez izango da ama. Berak eta bikoteak komunitatean bizitzeko hautua egin zuten, horretarako aukera izan zutelako, familiako baserriaren alde batean etxea egin eta bertan bizitzekoa. Elkarrizketatuak nabarmentzen du bizi diren komunitatean laguntza handia dutela beraien haurra zaintzeko eta horri esker izan dutela aukera guraso gazteak izateko “*Etxeko laguntzarik gabe, seguruenik ba beste urte dezente itxaron beharko genituzke guraso izateko*”(Ainhoa). Gainontzeko elkarrizketatuak ez bezala, laguntza sare zabala du eskura eguneroko zaintza eta hazkuntza lanetan aritzeko:

“Gaude familia nuklearra edo esango genukeena; garela ni, nire bikotea eta umeak. Baina gero ondoan daude aiton-amonak, izeba-osabak, lehengusinak, eta abar, eta abar. Eta nik... Joe ba ez dakit... Orain bigarren haurdunaldian, ba medikutara joan behar naizela, edo joan behar naizela asteazkenean ginekologoarengana... pues umea uzten dut amonarekin; edo amona ez badago, ba izeben bat edo beti dago, edo beti norbaitekin uzteko aukera dut. O sea, gu, esango genuke, familia nuklear nahiko berezia garela, zeren gu zabaltzen gara zuhaitz baten adarrak bezala eta hor dago, ez? Red de apoyo, edo esaten zaiona” (Ainhoa).

5.2.2 Gurasoen ilusioak eta beldurrak

Gurasoek eta kasu honetan haurdun dauden elkarrizketatuek genero aldagaiari buruz dituzten pentsamendu, uste eta sinesemenetan sakondu ahal izateko, interesgarria iruditu zait guraso izatera doazen une honetan, haurdunaldian zehar, sentitzen dituzten ilusioei eta beldurrei buruz galdetzea. Galdera orokorrak izanagatik, behatu nahi izan dut, oro har, beraien ilusioetan nahiz beldurretan genero aldagaiak islarik ba ote duen. Ilusioei dagokionez bollera izendatzen den elkarrizketatu batek familia aniztasunari egin dio erreferentzia:

“Gero ilusio pilo bat egiten dit Zaloarekin, beste neska batekin, edukitzea ume bat, gu gara bikote bat eta izatea familia bat. Ilusio handia egiten dit, honek sortu dezakeena eskola mailan edo parke batean... Interesantea iruditzen zait, ilusioa egiten dit” (Laura).

“Niretzako adibidez bada erronka bat eta era berean ilusioa egiten didan gauza bat da eta da eskolarizazioan irudikatzen dudala elkartzea orain arte elkartu ez naizen familiekin, adibidez. Ez daukaguna zerikusirik ezertan orain arte, baina bizitzak elkartu gaitu eta igual interseksionalitate hori bilatzeko espazio bat izatea. Horrek espezialki ilusioa egiten dit, ilusioa egiten dit jende ezberdinekin elkartzeak. Nahiko nuke gure umea ere bizitzea inguru batean... direnak beste umeak errealitate oso

diferentzetatik datozenak eta elkarrekin ikasiko dutenak eta arraza eta klase eta etnia desberdinekoak izango direnak” (Laura).

Bestalde, beste bat lau generazio ezberdin elkartzek eragiten dion ilusioaz mintzatu da:

“Aitor eta ni nahiko gazteak garenez, Eiharak, bueno eta Haitzek ere izango ditu, birraitonak eta birramonak izango dituzte. Orduan, dena da ilusio hori, zera hori... Ba ikustea zure amonarekin, edo zure aitonarekin; eta esaten duzu joe... lau generazio eh. Ez du ematen, baina lau generazio dira, eh” (Ainhoa)

Askotan ilusioak eta kezkek batera doaz, txanponaren bi aldeak izan ohi dira, horren adibide da elkarrizketatu honek kontatzen duena:

“Eta bikotearen aldetik ere, kezka eta ilusioa, biak etortzen zaizkit, zeren iruditzen zait bikote bezala konpartitu dezakeguna potentea izango dela, bai kezka bat bezala, zeren ya bi ez gea; eta hiruko horrek ekarriko dituela gauza batzuk eta kenduko dizkigula beste batzuk. Eta ekarriko ditun horietatik, momentuz ilusioa sentitzen dut bi ez izateak, ez? Eta beste aldetik, pues galduko dugun horrek kezka sortu dezake, ba nola izango den gure harremana. Ba ez dakit, pixka bat hor nago”(Bea).

Gainera, elkarrizketatu batek aitortu du beldurrek oihartzun handia hartzen dutela “*Joe, hori dena ilusioz bizitzen duzu, baina beldurrak... Batzuetan, uste dut, gehiago direla beldurrak ilusioak baino*”(Ainhoa). Dudarik gabe kezka nahiz beldur gehienak haurren ongizateari loturikoak dira:

“Hasierakoak osasunaren aldetik, umearen osasuna. Gero dago bestea. Ekografietara joaten zara eta hor ari zaizu makinarekin begiratzen, tik-tik, eta ez dizu ezer esaten, eta zu zai zaude hor, ea zer esaten dizun. Eta gero esaten dizunean, “bueno ondo dago bizkar hezurra, ondo dago burmuina...””(Ainhoa).

Era berean, guraso identitate berriari lotutako beldurrak izendatu dituzte: “*orain arte Nekane, Nekane izan da; eta orain izango da Nekane eta zerbait gehiago. Egia da Nekane hori mantendu nahi dudala, porque Nekane ere bada eta bere bidea egin behar du*”(Nekane). Halaber, guraso izatearen autoexigentziari lotutako kezkek ere adierazi dira, alegia, guraso ona ala txarra izateko “barne epailea”ri beldurra: “*Zure buruarekiko ere mila duda. “Guraso ona izango naiz? Ondo moldatuko naiz bikotearekin?” Zeren gauza bat da planteamendu batzuk egitea kasu hipotetiko batean, eta gero, hor dagoenean, ba desberdina da. Beldurrak hori, mila.*”(Ainhoa). Beste elkarrizketatu batek ere antzeko aipamenak egin ditu:

“Ardura ikaragarria eta gauza asko orain argi izan ditzazkedala, baina gero momentuan egoera horiek nola kudeatu, edo asmatuko ote dudan, edo orain pentsatzen dudanarekin bat egiteko kapaza izango naizen (...) Azkenean, ni neure

buruarekin oso exigentea naiz eta horren baitan neure burua asko matxakatu izan det” (Nekane).

5.2 Haurdun dauden gorputzak

5.2.1 Aldaketak: fisikoak, emozionalak, aldartearenak eta beste

<<Handik gutxira hasi zen bularreko min handia, baita zorabio modukoak ere. Bikoteari esan nion gorputza ezberdin sumatzen nuela, ez nintzela betiko “ni”. Kontua da ez bata ez besteak ez genuela sinesten haurdun nengoenik >>²⁸

Haurdunaldia garai berezia da, Imazek (2010:232) dioen moduan, “un periodo limitado pero intenso desde el punto de vista de la experiencia corporal”. Gorputzak aldaketa fisiko nabarmenak izaten ditu eta, autoreak azpimarratzen duen moduan, guraso izateko prozesuari ekiten zaio sasoi horretan: “período de “preparación”, en el que el cuerpo se convertía en un recordatorio continuo de la próxima maternidad” (Imaz, 2010:231). Ikerketa honetan, haurdunaldia ezaugarritzeko unean “aldaketa” hitza behin eta berriz agertu da. Batzuek, batez ere, aldaketa fisikoei eta gorputz sentrazio berriei egiten diote erreferentzia:

“Jo... ba hasiera batean zure gorputzaren aldaketak. O sea, momentu batean, hasiera batean, igual, ez? Jasotzen duzunean positibo hori eta oraindik ez zarela guztiz kontziente, baina gero hasten zara detaile txikietan begiratzen eta jo... “*ba aldatu zait ez dakit zer, eta jo titiak ez dakit, eta tripa ez dakit, ba hasi naiz zerbait nabaritzen*”. Eta orduan ya kontzientzia hori hartzen hasten zarela, jo ba beste bizitza bat ari zarela sortzen... Orduan... Oso- oso polita da. Gero ya hasten zarenean nabarmentzen umea mugitu egiten dela, bestea... Gero bukaera aldera, egia da, asko pisatzen duela, mina ematen dizula saihetsetan, ezin duzula lo ondo egin, ez dakit zer, komunera mila buelta eman behar dituzu...”(Ainhoa)

Beste batzuek aldaketa orokorrago bati egin diote erreferentzia, guraso bihurtzearen inpaktuari edo: “*Niretzako aldaketa potente bat, esango nuke. Gauza berria den heinean... Egia da, nik uste baino... O sea, idealizazio horretatik edo pentsatu ez nuen “ah ba haurdun gelditzen zea eta listo” horretatik, nire kasuan behintzat, mugimendu askokoa izan da*”(Bea). Gainera, bere ohiko aldarte emozionalean sentitutako aldaketak azpimarratu dituzte, elkarrizketatu pare batek:

“A ver, ba nik igual gehiena flipatu nuena da... o sea, haurdun nengoela jakin nuen egunean, nire buruan zerbait aldatu egin zela. O sea, aldaketa ez txiki bat... o sea, derrepente... eta desiratua izan zen eta alde horretatik ez da egon sustorik, esan nahi dut. Baina bai izan da susto de “ai ama eta orain zer?” (Bea).

²⁸ Testu zati hauek ikerketaren hasieran egindako autoetnografia ariketatik sortu zen idatzitik atera ditut. Bertan nire haurdunaldiaren bizipena jasotzen da.

Guztiek aipatu dituzte aldaketak, baina gorputz sentsazio fisiko, emozional edota mentalei buruz galdetzean, haurdun bakoitzak erantzun ezberdinak eta askotariko esperientziak aipatu ditu. Badaude komunak diren kontuak, baina, zenbaitetan, bizipen batetik besterako aldea handia da, halaxe dio batek: *“fisikoki, beste gauza indartsuena izan ditudanak dira nauseak. O sea, egon ezina eta botaka larria. Botaka asko (...) haurdunaldia osoan zehar. Igual fisikoki horrekin flipatu dut gehiago, más que tripa hazi, edo ez hazi, edo...”* (Bea); beste batek, ostera, ondoezik ez duela izan baieztatzen du haurdunaldiaren amaieran: *“Gero, klaro, sintoma txarrik... bueno, ondoezik eta ez dut izan”*(Nekane). Haurdunaldi bakoitza eta haurdun dagoen gorputz bakoitzaren bizipena bakarra eta ezberdina da. Horixe bera adierazten du M^a Jesus Montesek (2010:34) haurdun dauden pertsonen jasotzen duten asistentziaren gaineko ibilbideei nahiz bizipenei buruzko bere lanean, haurdun daudenen esperientziak ezin direla estandarizatu:

Aun existiendo un protocolo común establecido, las formas en cómo se vive son individuales y van a estar influenciadas por muy diversos aspectos; entre otros, la propia personalidad y valores ante la vida, las personas del entorno, profesionales, el seguro social al que están acogidas y los hallazgos de las múltiples pruebas que desde los servicios médicos se les realizan; y todo enmarcado en un entorno social, económico y político desde el que se irán construyendo y definiendo sus vivencias(íbid).

Bakoitzak bere bereizgarriekin bada ere, gehienek poztasuna eta ilusioa aipatzen dituzte, prozesuan zehar sentitzen dituzten emozio nagusi gisa, beraien hitzetan ez ezik,- *“Oso zoriontsu sentitu izan naiz. Zoriontsu baino, alaitasun handia izan dut”*(Nekane)-, keinuetan, begiradan zein aurpegikeran elkarrizketatuak ilusionatuak, itxaropentsu eta alai somatu ditut. Hala ere, Imazek (2010:177) haurdunaldiaren gainean egindako doktorego tesian esaten duen moduan, prozesua konplexua da eta poza eta asebetetzeaz gain, ohikoak dira zalantzak, dudak, kezkek eta beldurrak. Zentzu horretan, argigarriak dira haurdunaldiaren hasierako eta amaierakoa fasea²⁹ eta horietan jasotako hainbat bizipen fisiko nahiz psikiko. Hasierako fasean, Montesek (2010:21) *“konfidentziala”*³⁰ gisa izendatzen duen horretan, aldaketa eta seinale fisikoei dagokienez, nekea eta jateko ohiturak aldatu izana aipatzen dituzte, besteak

29 Zazpi elkarrizketatuetatik bost, behin 35. astea beteta elkarrizketatu ditut, beste bi, berriz, 30 astearen aurretik; beraz, bi elkarrizketatuk ez dute haurdunaldiaren azken fasea bizi elkarrizketatuak izan ziren unean.

30Montesek (2010:21) haurdunaldian lau etapa bereizten ditu: lehenengoa, konfidentziala edo isilpekoa; bigarrena, partekatua; hirugarrena agerikoa eta laugarrena itxaronaldia. Bere arabera, isilpeko etapa hasten da emakumeari haurdunaldia diagnostikatzen zaionean; datu hori ez da inguruan jakinarazten, edo zirkulu txiki batean egiten da. Eta fasearen amaiera, obstetrari edo emaginari egindako lehen bisitak markatzen du. Hori gaituz gero, sozialki aitortuko zaio haurdun dagoela, eta etapa partekatuan sartuko da.

beste: *“Lehen hiru hilabeteak logura askorekin... izan ere, bueno ni nekatur nago baina umea hortxe dago eta hori behar du”*(Nekane). Elkarrizketatu batek, alderdi emozionalagoei erreparatuz nahasmena aipatzen du:

“Begira, lehenengo hiru hilabeteak nahiko nahastua. Nik uste dut gorputza nahastuta dagoela baina zu ere nahastuta zaudela...Derrepente haurdun zaude, zuk imajinatzen duzu gainera enteratuko zinen egunean egingo zenuela kristoren negar pilo... izango zirela su artifizialak..., eta ez zen horrela izan. Horrela hasi zen haurdunaldia, zure ideia guztietatik zerbait desberdina. Zaude arraro, gorputza baldin badaukazu, zera... ideia bat egitea ume bat daukazula eta abar, arraroa da”(Laura).

Bukaerako faseari dagokionez, hau da, Montesek (2010:21) “agerikoa” bezala definitzen duenaren inguruan askotariko sentsazio eta bizipenak jaso ditut, aurretik ere aipatu ditudanak: esaterako, triparen dimentsioak sortzen dituen molestiak *“Azkeneko egunetan igual ohean eta buelta emateko... Eta esaten duzu “ai ama zer dut? Ume bat edo hormigonera bat?” Eta inkluso, lo zaude, super gustura, ez? Eta esnatu behar”* (Nekane); edota etengabeko pixagurea *“eta nire dilemarik handiena da gauean lo egotea eta pixagura horrekin esnatu eta jaiki egin behar... Hori izan da niretzat kriston putada, eta bada. Eta askotan galdetu egin dut “bueno pixagurarena erditu eta gero erregulatu egiten da, ez?”* (Nekane).

Askotarikoak dira haurdunaldiko gorabehera fisikoak nahiz emozionalak eta interesgarria da lagun batek haurdunaldiko ongizatea baldintza ekonomikoekin edota sozialekin guztiz lotuta dagoela azpimarratu izana:

“Haurdunaldia zoragarria da, alde batetik kobratzen dudalako, badaukadalako kontratu bat eta kobratzen dudalako, baja daukadalako eta alde horretatik kristoren lasaitasuna daukat. Niretzat haurdunaldiaren disfrutea lotuta dago baldintza ekonomikoekin, berez zerbait hormonalarekin baino” (Laura).

Beste batek, lan finkorik ez badu ere, bigarren haurdunaldia duenez, beste haurra zaintzeko duen familiako ezinbesteko laguntza aipatzen du, bai haurdunaldia ongi eramateko, baita berak lanera joateko aukera izateko ere:

“Ba nik, egia esan, ondo konpajinatzen det etxian laguntza dudalako, amaginarreba etxian dudalako eta edozein momentuetan berarekin utzi dezakedalako. Beste egoera batean egongo banintz, ez litzaidake hain erreza egingo lanera joatea, zeren azkenean, ez dut postu finko bat” (Ainhoa)

5.2.2.1 Haurdunaldia COVID-19aren garaian.

Marko teorikoan aipatu da eta elkarrizketatuek ere adierazi dute haurdunaldia gertaera soziala eta kulturala dela. Horregatik, ezinbestekoa da testuingurua kontuan hartzea, finean, faktore

ekonomikoen, politikoen, balio eta arau sozialek, baita faktore familiarrek eta indibidualak eragin zuzena baitute prozesuan (Montes, 2010:17). Zentzu horretan, ezin da ahaztu, elkarrizketaturiko pertsonak Covid-19aren pandemia garaian bizi izan dutela haurdunaldia. Silvia Costak eta Mahault Behaghelek (2020:5) haurdunaldia eta pandemiari buruz egindako ikerketa batean hauxe diote: “a las incógnitas que habitualmente rodean al acto del nacimiento, se añaden ahora nuevas incertidumbres por la pandemia de la COVID-19”. Haurdunaldiaren asistentziari begirako protokoloak aldatzen joan dira 2020ko martxotik gaur egun arte eta eraginak begibistakoak izan dira.

Jakina da Covid-19ak edota pandemiak harreman sozialetan eragin duela. Hala dio elkarrizketatu batek ere: *“nik uste harremanak orokorrean denok mugatu gaituen gai bat izan dela. Nola harremandu, ezin zara jende askorekin egon, orduan niri selekzionatzea egokitu zait, zeinekin geratu...”*(Laura) eta hauxe ere gaineratu du: *“Nik harreman asko dauzkat Zarautzetik kanpo ere, eta beraz oso mugatuta. Ezin duzu bidaiatu, ezin zara joan ez dakit nora baina bueno”* (Laura). Oraindik orain, garai berriek eta birusaren prebentzioari begirako neurriek harremanetan izan dituzten eraginei buruz ikerketa asko egin ez badira ere, Laura Fontanak (2020:1) egiten duen baieztapena kontuan hartzekoa da: “La COVID19 ha trastocado, en muchos sentidos, la cotidianidad de las personas en los países afectados, y en especial sus dinámicas sociales”. Errealitate horrekin topatu dira elkarrizketatuak ere, haurdun, pandemia garaian, eta ohikoak zituzten harremanetan murrizketa handiekin:

“ni behintzat saiatu naiz ahal izan dudanean konpartitzen, bai beste haurdunekin, bai ama izan direnekin, bai ez dakit zer... Orduan, harreman guzti horiek notatu ditut. O sea, igertzen dut denak distantzia sozial hori mantentzen dugun momentuan, ba beste distantzia emozionalak ere... niretzat edo nik behintzat horrela bizi dut, ez? Distantzia emozional handiago batekin” (Bea).

Batik bat, haurdun dauden beste pertsona batzuekin, naturaltasunez ezin harremantzea bota dute faltan elkarrizketatu zenbaitek; horrela kontatu dute bi lagunek:

“nik uste dut falta izan zaidala hori, eztabaidarako, zalantzan jartzeko, hausnartzeko tarteak egotea. Horretaz konturatu naiz, ez? Igual baita bikote gabe ere momentu askotan. Nahi dut egon haurdun daudenekin eta esan: “begira, sudur puntako mina dut”, ”begira, nik ere bai”. Ba kito, gaur lasai egingo dut lo. Hori pilo bat bota dut faltan, pilo bat” (Laura).

“ba harreman emozionalen distantziak eta horrela bai, eta igual haurdunaldiak partekatuzetik hasita, ba Osakidetzak zailtasunez ematen dituela klaseak, ez? Prepartokoak”(Bea)

Elkarrizketatu bat oso haserre agertu zen erditzeurreko aurrez aurreko klaseak oraindik martxan jarri ez zirelako³¹: *“Adibidez hemengo osasun zentroarekin haserre. Emaginien partetik, una pasada. Eta iruditzen zait alferkeria, puntu honetan. Uste dut haiiek eskatuko balute aurrez aurrekoak egitea, onartuko lieketela eta ez dute egiten”* (Saioa). Online saioak izan dituzte, azpimarratu dute ez dela gauza bera, bik parte hartu dute eta hiruk ez (beste bi elkarrizketatuei oraindik ez dagokie): *“Online eskaintzen dute. Ez naiz behin ere sartu. Zeren aparte, ordenagailu hori Alaznerena da lanekoa eta nik ez daukat ez Internet, ez mobil, ezerrez. Gainera ez naiz ikusten hor”* (Saioa). Gainera, ekografia eta kontsultetara bakarrik joan beharra, laguntzailerik onartzen ez zelako, oso zorrotz kritikatu dute.

5.2.2 “Baina, zer da?” “Zer espero duzu?”. Generoa, haurra gizaki egiten duen errealitatea.

<<Ez nintzen nazkatu gauza bera erantzuteaz eta galdera bera pedagogia pixka bat egiteko baliatzea erabaki nuen: “ez dakit bere sexua, azken batean garrantzitsuagoa da dena ongi izatea eta neska ala mutil ez al da ba kontu bera? Gainera, berak erabaki dezala zer izan nahi duen, ezta?” Ia beti deserosoa zen erantzuna, baina baiezko batekin, “hori da-hori da” esanez erantzun zidaten gehienek. Harrigarriena zen ezezagunek ere galdetu egiten zidatela>>

Aurreko ataletan ikusi dugun moduan, elkarrizketatu bakoitzak bere bizipen partikularrak ditu, nahiz eta partekatzen duten testuingurua, herria, pandemia garaia, haurdunaldiaren prozesua eta abar berberak izan. Baina bada elkarrizketatu guztiek argi sentitu duten eta adierazten duten errealitatea: haurdun dauden gorputzak publikoak dira, ukigarriak, komentarioak egiteko aproposak, ezezagunek geratu eta elkarrizketa bat pizteko errazagoak. Publikotasun horri buruz, finean, aurretik ere aipatu dugun prozesuaren izaera sozial eta kulturalari buruz hitz egiten du Montesek (2010:17):

Al igual que otros procesos, este acontecimiento está inscrito en un sistema social, que es quien determina sus límites, esto es, la forma de experimentarlo, vivirlo. Y las actividades a realizar o evitar vienen determinadas por el complejo cultural desde donde se proporciona el espacio en el que adquiere sentido y significación.

Imazek (2010:263) ere horri buruz hausnartzen du marko teorikoan sakonagoa azaldu dugun “kanpo gorputza” deituriko alderdiari buruz hitz egiten duenean: “es decir, la vivencia de la corporalidad en el espacio público fuera del espacio doméstico y familiar, donde el cuerpo es percibido a través de los ojos de los otros”. Bere ikerketan, Anne Quéniart (1988) aipatuz, honela jasotzen du:

³¹ Lan hau 2021ko abuztuan ari naiz idazten eta badirudi Zarauzko anbulategian 2021eko uztailetik aurrera, erditze aurreko eta erditze ondorengo eta laktantziako aurrez aurreko saioak berriro egiten direla.

Y es que el embarazado es un cuerpo indiscreto (Quéniart, 1988:119), que atrae las miradas y que es en cierta medida inmune a los “ritos de borramiento” que habitualmente ocultan la corporalidad (Le Breton 2002a:126y ss.): es un cuerpo que es interpelado porque su propia presencia parece, en cierta medida, interpelar (Imaz, 2010:263).

Elkarrizketatu batek publikotasun horri buruz hausnarketa egina zuen eta haurdunaldiari buruz galdetu eta berehala erantzun zidan: *“Jendeak galdetzen dizunean edo zoriontzen zaituenean, askok esaten dizute nola izan behar duen zure haurdunaldiak. Zuretz galdetu beharrean, zure haurdunaldia modifikatzen saiatzen dira edota berea kontatzen”*(Laura). Bat dator beste elkarrizketatu bat ere gaiarekin: *“kalean ere oso gauza publikoa da haurdun egotea. Eta denak galdetzen dizute. Ba neri nola gauzak publikoki erakusteak, normalean, ez den nire ilusio bat izaten, ba orduan, igual, alde horretatik, kostatu zait”*(Bea).

Beraz, haurdun dauden gorputzak ezberdin tratatzen dira (Imaz, 2010:263), irisgarriagoak dira eta elkarrizketa bideak irekitzen dituzte normalean baino errazago, lotsagabeago eta arinago. Horren adibide da beste ikerketa batzuetan ere nabarmen agertzen den triparen ukitzea, batzuentzat eroso gertatzen dena (Quéniart, 1988:120; hemen aipatua: Imaz, 2010:263) eta besteentzat ez:

“Eta gero badago jendea ukitu egiten dizula tripa... Niri berdin zait, baina nik ulertzen dut. Pertsona batzuei ez zaie gustatu behar... ez dakit. Marijo ikusten duzula arratsaldean... astean behin, kalean kruzatzen duzula emakume bat, etortzen zaizula eta tripa ukitzera... Nik ulertzen dut jendeak esatea “ba nik ez dut nahi tripa ukitzea...”(Ainhoa)

Haurdun dagoenari edozeinek zer pentsatzen duen filtrorik gabe entzutea tokatzen zaio, nahi ala ez entzun egin behar izaten du, jendeak bere iritzia emateko baimena sentitzen baitu. Erabaki pertsonala (edo bikotearena) dirudi guraso izateak, baina oso gertaera soziala eta kolektiboa da aldi berean. Normalean, haurdun dagoena eta bikotea (bikoterik balego) dira protagonistak; horrez gain, gertuko familia, lagunak, bizilagunak ere prozesuaren parte eta berriemaile bihurtzen dira. Denak ez, baina ia denak poztu egiten dira haurdun baten parean. Hala ere, haurdunaldian dena ez da poza, eta askotan, prozesua mitifikatua eta goraiatua agertzen da:

“Niretzako hau daukat oso apuntatuta eta haurdunaldiaren inguruko erromantizazio bat oso handia eta azkenean, dependitzen du ere fisikoki nola zauden, ondoan nola zauden akonpainatua, zer ardura daukazun inguruan, ez da bakarrik lana. Dauzkazu zaintza-ardurak. Dauzkazu beste mila ardura lagunekin, familiarekin... haurdunaldia ez da beti zoragarria!”(Laura).

Haurdunaldia, prozesu kulturala eta soziala dela behin eta berriz baieztatzen den honetan, deigarria iruditu zait bollera gisa identifikatzen den elkarrizketatu batek aitortu duena, hau da, haurdun egotean orain arte disidentzian sentitzen ziren hainbat gorputz normatibo edo arruntagotzat jotzen direla: *“Badirudi ume bat edukitzen duzula eta kito. Ahanzten zaio mundu guztiari zure bikotea neska bollera ote den, zer ote den, berdin da, izan ere ume bat ekarriko duzue eta sartu zara normatibitatean eta orduan jendea lasaitu egiten da”* (Laura). Bizipen honek elkarrizketatua harrিতuta eta jendea ulertu ezinda utzi du, bere amak izandako jarrera kontatzen du:

“Laura, kito, esan diot koadrilako denei umea edukiko duzula, eta beste neska batekin”. Orain arte izan da “un puto drama”, ez zuen hitz egiten nitaz ezertarako. Horretaz gain, “niri ez zenidaten haurrik eskatzen, nire ahizpari bigarren bat eskatu zenioten, jakinda nire desioa hor zegoela eta orain derrepente...”(Laura).

Aipatu ditugun adibideez gain, bada publikotasuna baieztatzen duen eta haurdunaldian oso ohikoa den galdera iraunkor eta errepikakor bat: zer da? Zer espero duzu? Mutila ala neska da? Galdera intimoa izan zitekeen, ekografiei esker umekiaren sexua jakin ohi denez, baina alderantziz, ia-ia zoriondu aurretik egiten den ohiko galdera arrunta da. Normalean, bizi berri baten etorrerak irribarre bat, komentario baikor bat edota oroitzapen goxoren bat edo beste pizten ditu. Hala ere, kuriositatea eta neska ala mutila den jakiteko beharra izaten da une horretan nagusitzen den jakin-mina. Hori bera baieztatzen du Marta Perezek (2021:29) urtebeteko bere haurrak inspiratutako narrazio liburuan duen pasarte batean:

Durante muchos meses, nos asediaron con la pregunta: ¿es niño o niña? Al principio, no queríamos decirlo. Sin embargo, el interrogatorio se fue haciendo tan acuciante que resultaba más cómodo quitarnos a la gente de encima con un simple: “niña!”, que argumentar por qué lo del sexo no nos importaba. Habría que plantearse, seriamente, de dónde sale tanta obsesión por este tema.

Egiazki oso jende gutxi galdetzen dizu ea haurdunaldia zer moduzkoa ari den izaten, zer moduz ote zauden eta zaudeten, ez lehenengo galdera gisa behintzat, aurren-aurrena neska ala mutila den argitzeko eskatzen da, beti:

Denek galdetzen dute. Eta batzuetan iruditzen zait izan leikela galdera bat para romper el hielo, edo políticamente correcto, ez? Depende eta zein tokatzen zaizun, ba ulertzen dut, baina beste asko, es como que automatikoki... eta nik ez dut sekula galdetu. Igual ere horregatik txokatzen dit, ez dakit. Eta amari esan nion eta *“si chica, es algo que se pregunta”* Y digo *“pues chica, yo nunca he preguntado”*. Eta galdetzen zidatenean *“ba bueno, momentuz genital maskulinoak, gero gerokoak, ez dakigu zer etorriko zaigun...”* (Nekane).

Bigarren aldiz ama izango direnek, kasualitatez, lehenengoa eta bigarren haurrak sexu ezberdinetakoak dituzte eta beraz heterosexualitateari erreferentzia egiten dioten iritziak entzutea tokatu zaie:

“Bai. Baina zer den beti galdetzen didate. Beti. Lehengoan azokara joan nintzen eta “¿qué traes? Pues niño. Ah mira la parejita”. Eta bestea “¿qué es?”, ez? Eta esaten duzu, ze inporta du... baina bueno”; “Bai, bai, bai. Gainera, bigarrena izanda gehiago. Betiko komentarioa “*la parejita, ze ondo, la parejita*” (Ainhoa).

“Hamarretik bederatzi alditan. Bai, bai. Hori eta gero dator komentario “¡Ay, la parejita!. Bai, bai. “*Aiba, ya esta hirugarren bat zertako, ja neska eta mutila badituzue*”. Holako gauzak”(Saioa).

Ohikoa da beraz, elkarrizketa berean umekiaren sexuazioari nahiz generizazioari, baita heteroarauari buruzko komentarioak, iritziak eta epaiak jasotzea. Orokorrean, elkarrizketatu gehienak kexatu dira galdera hori askotan entzun beharra izan dutelako eta beraietako batek, bere burua feminista gisa izendatzen duenetako batek, aipatu du haurdunaldian zehar genero bitartasuna indar handiz agertzen dela eguneroko hainbat egoeratan:

“bitartasun hori behin eta berriz etortzen den momentu bat da haurdunaldia. O sea, oso-oso garbi sentitzen dudana, mundua neska eta mutiletan banatua dagoela gaur egun. Bai egiten diren galderetan, bai egiten dizkidaten oparietan, bai egiten dizkidaten... Dena. Neurketak ere, “*zer da neska edo mutila?*”... O sea, galdetu egiten didate. Eta hortik hasita, ba kaleko edozein konbertsazioetan, orain, ba pixka bat begiratu hori, jarrita baldin badaukazu, ez? Konturatzen baldin bazara komentario guztietan, ba oso-oso presente dagoen zerbait sentitzen dut, egia esan” (Bea).

Elkarrizketatu batzuek umekiaren sexua beste komentariorik gabe esatea erabakitzen dute, beste elkarrizketatu batzuek berriz, ez beti, baina batzuetan galderarekin modu ezberdinetan jokatu (jolastu) izan dute. Hona hemen galderari bere horretan erantzun beharrean, martxan jarri dituzten hainbat estrategia:

“Esan zigun “*ze, mutil txikia?*” Eta ni “*bai, bueno, momentuz hori esan digute, dator con genital maskulino, baina gero gerokoa Bittor, gaur egun ya ez dakizu...*” Eta begiratu zian como “*jesus neska, mutila dela*”, como diciendo “*mutila dela esan badizue, mutila izango da*” sabes?”(Nekane)

“Bai. Eta jartzen deten aurpegia da asperdurarena. Eta zer da neska edo mutila? Erabaki nuen esatea neska zeren...Bai. Neska da, baina bueno bost inporta zait esaten dut, azkenean zuk hori da nahi duzuna jakin, alua daukan edo ez. Bai. Gainera Zuainekin erabaki genuen bezala ez esatea ezer eta... Bai. Baina beste galderekin ez naiz ari politika egiten, ze esaten det “que rollo. "Bueno berak ikusiko du, berak erabakiko du". Ez du hitz egiten oraindik eta” (Saioa).

“Gaur goizean galdetu didate “zer dator?” pentsakor geratun naiz, horrela erantzunik gabe, galdera ulertzuko ez banu bezala... eta “Zer? Zer dator? Zer?” Horrela, ez? Galdera egin dut bueltan...Beti ez, porque... bueno, ba beti ez dut bueltatu horrela galdera. Baina bueno, bai izan da zerbait esaten dudana ui, ba behintzat frentekoari ere deskolokatzeko puntu hori, ba gustatzen zait. Gustatu edo iruditzen zait ikasi egin dezakegula hortik. Eta adibidez, nire bikoteak ez du hori. O sea, berak esango zuen “mutila eta listo” (Bea).

5.3 Gurasotasuna iristear: oinarrian dauden balio, iritzi eta ideologiak

5.3.1 Gurasoaren begirada sentikorra: haurren autonomia eta genero autodeterminazioa.

<<Haurdun nengoela banuen utopia hori: haurra intersexuala izango balitz bezala hezteko gaitasuna izango nuela: Amelia Barquin-ek (2015) dion moduan. azken batean, berak nahi edota desio duen horri bide emanaz, askotariko aukerak eskainiz, bere hautuak errespetatuz, eta abar. Bat nator Barquinekin, nire irudiko, ez dugu zertan helduok erabaki zer izango den haurra, berak deliberatu behar du. Hori dela eta, gurasoen zeregina da haurrak identitateekin jolasteko aukera errealak izatea. Benetan nahiko nuke hori horrela izatea, baina kontziente nintzen bestelakoa zela eta dela errealitatea, genero bitartasuna hezurretaraino barneraturik nuela/dudala eta badirudi neska eta mutil kategoriarik gabe munduak ez duela funtzionatzen, horiek gabe hutsean geratuko ginatetekeela>>

Atal honetan gurasoen begiradan jarri dut arreta, batetik, haurrarekiko zein ulermen duten; bestetik, nola ulertzen duten haur eta gurasoen arteko harreman hori. Eider Salegik (2021) irakaslearen begirada sentikorrak hitz egiten du argitaratu berri duen tesian. Bertan, irakaslearen begirada kontzeptua nola ulertzen duen adierazten du:

Zer da, bada, irakaslearen begirada? Begiratzeko moduari erreparatu nahi zaio; “nola”, “zer”, “nondik” eta “zertarako” galde-lerroak barne bilduz (Nicastro, 2006). Oinarri oinarrian irakasle horien sinismenak daude. Sinismenok funtsezko eginkizuna dute identitatearen eraikuntzan eta horrek eragin zuzena du irakaslearen portaeran eta jardura profesionalean (Vizek & Domović, 2019). Sinesmenen baitan ulertzen dira irakasleen usteak, iritziak, esperientziak, itxaropenak, beldurrak eta kezak. Azken finean, irakasle bakoitzak adierazten duen eta bere bizitza, lana nahiz ingurua nola ikusten edota begiratzen duen; hori guztia jasotzen du “irakaslearen begirada” kontzeptuak (Salegi, 2021:152).

Hezkuntzan aditua den autorea irakaslearen begirada sentikorra izatearen beharraz eta sentikortasun horren eraikuntzaz ere mintzo da: bere ustez, irakasle sentikorra enpatikoa nahiz komunikatzailea da eta haurren autonomia sustatzen du, hau da, haur bakoitzaren berezitasunera iristea du helburu (Salegi, 2021:157). Irakasle sentikorraren kontzeptuarekin guraso sentikorraren esanahiaren paralelismoa egin dut; izan ere, gurasoa irakaslea bezainbat

da hezitzaile.³² Elkarrizketatuei beraien haurra zein baliotan eta nola hezi nahi duten galdetzean, elkar harremanean egiteko bide gisa ikusten duela aitortu du elkarrizketatu batek *“Imajinatzen dudanean, batez ere, berarekin komunikazio bat, berarekin ze ikasiko dudana, badakit... edo iruditzen zait gauza asko ikasiko ditudala berarekin; eta horrek ilusionatu egiten nau.”* (Bea) eta gaineratzen du denboran zehar elkarrekin ikastea espero duela *“niretzat hazteko modu bat izango da eta izango da bizitza guztian nirekin garatzen joango dena elkar harremana eta ni berekin garatzen joango naizen prozesua”* (Bea).

Hitz horietan heldukeriari³³ aurre egin eta haurra pertsona autonomo gisa ikusteko nahia islatzen da. Norabide honetan, June Fernandez kazetariak (2021) haurrek jasaten duten heldukeria salatu zuen orain dela gutxi *Argia* astekarian:

Ordea, noizbait haurra izan banintzen ere, ama izan arte ez naiz heldukeriaren bortxaz ohartu. Izan ere, zapalkuntza bizi dutenei subjektu politikoaren estatusa ukatzen zaienean zaila da aliatuak lortzea. Haurrekin gertatzen da hori gurean, baina baita ere zaharrekin, desgaitasun intelektuala dutenekin edota gizaki ez diren animaliekin” (Fernandez, 2021:18).

Kazetariak heldukeria salatzeaz gain, Katixa Agirre (2020) erreferentziatuz haurrak ere pertsonak direla aldarrikatu du: *“Feminismoak ideia iraultzaile hau zabaldu zuen: emakumeak ere pertsonak dira. Antzeko lelo iraultzailea bota beharra dago: umeak ere pertsonak dira”* (Agirre, 2020; hemen aipatua: Fernandez, 2021:18). Marko teorikoan ere landu den *“agentzia”*³⁴ kontzeptuarekin lotura zuzena egiten dut guraso sentikorra eta haur autonomoa esanahiak zehaztean, finean, gurasoen eta haurren agentzia agerian jarri da elkarrizketetan ere. Zazpi elkarrizketatuetatik lau hezitzaile lanetan aritzen dira eta ez dakit horrek³⁵ zein neurritan eragin duen guraso gisa haurra ikusteko izango duten moduan, baina kontua da, bai hezitzaile direnek eta ez direnek ere behin eta berriz aipatu dutela haurren autonomiaren garrantzia. Honan hemen haurren agentziari erreferentzia egiten dioten elkarrizketatuen hainbat mintzagai:

32 Halaxe baieztatu du osagarri gisa elkarrizketa egin diodan guraso batek: *“Nik guraso izatea hezkuntza prozesuarekin lotzen dut. Hori da ateratzen zaidana, askotan pentsatu det. Ama naiz eta hori ez det ukatzen, baina zaila egiten zait identifikatzea “guraso” edota “ama” gehiago ateratzen zait hezitzaile. Hezitzaile ateratzen zait”* (elkarrizketa osagarria) eta bere haurrekiko duen begirada ere aipatzen du: *“ni naiz nire haurren laguntzaile, hezitzaile, ni beraiekin noa...”* (elkarrizketa osagarria).

33 Heldukeria hitza erdarazko *“adultocentrismo”* delakoaren itzulpena litzateke. Emakundek (2020) kaleratu duen hiztegi feministan eta Euskaltzaindiaren hiztegiaren agertzen ez bada ere, euskal komunikabideetan sarri erabiltzen den kontzeptua dugu. Ikus esaterako Amagoia Ibanek (2014) Euskal Herria irrartian egindako aipamena: <https://bit.ly/38aqFn6>

34 Hainbat autorerekin batera, Magie Bullenek (2017:29) ere gizakiaren agentzian enfasia jartzeko beharra aipatzen du. Finean, pertsona gizarteak eta kulturak baldintzatutako genero sistema batean mugitzen da egunerokoan eta sistema horrek ezarritako erreferentzia eremuan dauden aukeretan aritzen da.

35 Aurretik jasota duten formazioari erreferentzia eginez

“Ulertzen det pertsona bezala, txikitatik baduena bere, ez dakit nola esan, bere nortasuna, bere erabakiak hartzeko ahalmena. Ez gauza guztietan, obbiamente. Ez dizkiot ardurak, uste det ez dizkiot eman ardurak berari, ez zegozkionak. Baina bai kontuan hartu eta errespetatu beste edozein pertsona bezala. Niretzako hori...Eta iruditzen zait batzuetan hori ahazten zaigula, eta tratatzen ditugula haurrak beste edozein heldu tratatuko ez genukeen moduan. Eta niretzako hori da muga bat”(Saioa)

“dena emanda, eginda,ez diot eman nahi. Nahiko nuke edukitzea berak erreminta batzuk, bera autonomoa izanda bere bidea egiteko, eta bere lanketak eta ikaspenak egiteko, ez dakit nola esan... Batzuetan esaten duzu: “super gaizki ari da pasatzen, imajinatu eskolan, ez dakit zer egoeretan daukalako pertsona bat ari zaiola ez dakit zer egiten”. Kasu horretan gustatuko litzaidake egitea tripak pixka bat irentsi eta esan: “zuk egin behar duzu lanketa hori, ez? Horretarako nik etxean emango dizut behar duzun euskarri edo sostengu hori, baina lanketa hori zuk egin behar duzu. Ez dut nik egingo, nik ez dut interbenituko hor” (Laura)

Gurasoaren begirada sentikorra deitu diodanari buruz ere mintzo dira eta horri erreferentzia eginez entzuketa aktiboaren eta behaketaren garrantzia aipatu dituzte: “*Bai, bai. eta entzun zer esaten duen, begiratu. Zeozer egiten diozunean gustatzen ari zaio edo ez. Eta horren arabera zuk nola jokatzeko dezun*”(Saioa). Horrez gain, komunikazioaren ezinbestekotasuna aipatu dute: “*Bikotea eta nire artean eta bere artean, edo emozioei tokia egitea, edo... Bai, nire izateko eragatik, badakit emozioak eta konbertsazioak presente egongo direla bastante*” (Bea). Aipatutako balioez gain, gurasoengandik eta etxean jasotzen den konfiantzaz aritu dira: “*zugan konfiatzen dut pilo bat eta zure tresnetan konfiatu eta zuregan konfiatu*”. *Niretzako umeak hori jasotzea. Da haurra sentitzea konfiantzan, sostenitua sentitzea, jasoa sentitzea eta berak egitea bere bidea*” (Laura). Eta azken horri lotuta, nola ez, gertatzen dena gertatuta ere babes emozionala nahiz afektiboa adieraztea haurrari: “*gehienbat jakitea hor zaudela, onerako edo txarrerako, baina hor zaudela. Eta akatsak egin behar badira, ba egingo dira eta ikasi egiten da*” (Ainhoa).

Haurren autonomiaren parte da baita ere genero autodeterminaziorako eskubidea, zehazki, azken garaiotan, Espainiako Diputatuen Kongresuan trans pertsonen eskubideak jaso eta babestuko dituen lege bat onartzekotan den honetan bolo-bolo dabilen eztabaidagaia. Ez dute elkarrizketatu askok hitz egin gaiari buruz, zuzenean galderarik egin ez nuelako ziurrenik, baina hala ere zeharka egindako galderetan, bi gurasok genero autodeterminazioaren aukera aipatu zuten elkarrizketan zehar “*Bai. Eta irekita gaude eh. Bueno, momentuz mutila izango da eta bale. Baina %100 ni neuk ere ez dakit, ez dakit*”(Nekane). Horrela jarraitu zuen hizketan:

“Mutila bezala izendatzen baldin bada, izango da genitalak sozialki esaten diolako zer den, guk etxean ez diogu sekula esango, edo saiatuko naiz ez esaten, mutila denik. Enaitz izango da eta pertsona bat da. Eta beldurra ematen dit, matxismo horrek baino, Enaitzek egunen batean esaten badu neskatila dela. Nahiko nuke oso ondo informatu, hitz egin, esperientziak ezagutu... Eta ni prestatua egoteko eta ahalik eta bidelagun onena izateko nire umearentzat momentu horretan. Horrek ematen dit... porque igual ez jakintasun gehiago da, gizartearen aurrean nola jokatu, ez? Porque matxismoaren aurrean nolabait ya zerbait prestatzen hasita gaude, edo niri tokatu izan zait nire burua defendatzea. Orduan, ba bueno... eta gero adibidez, ez?” (Nekane).

Beste batek kezkei buruz galdegitean aipatu zuen hauraren identitateek eta horien izendapenek kezkatzen zutela *“Izendatzea, igual ez duela identitaterik nahi. Niretzako da gehiago nola nahi duen izendatzea eta hori errespetatzea”*(Laura).

5.3.2 Sexismoa, genero bitartasuna eta sistemarteko indarkeriak: haurren hazkuntza oinarritzakoak eta ezinbestekoak diren balioak

<<Ez batean, ez bestean ez zen sexuen, generoen, identitateen nahiz zapalkuntzen gaiari buruz hitz egin. Guk ere ez genuen gaia atera, usaintzen genuen deserosoa izan zitekeela.

Uste dut emankorra izan zitekeela gaiari buruz lan saioaren bat edo beste egitea, azken batean, generoen atxikitzea haurdunaldian bertan gertatzen baita, gurasoon pentsamenduetan neska bat edo mutil bat irudikatzen dugun unean bertan. Etorkizuneko “neska” eta “mutilak” edota pertsonak eraikitze lanetan ariko garen gurasook gure artean sexu bazterketari buruz, orokorrean gizartearen dauden bazterketei buruz, hitzik ere ez egitea esanguratsua iruditzen zait, horiek baitira azken batean egunerokoan gurasoen burukomin handiena eragiten duten gaiak>>

Elkarrizketatu guztiek onartu dute sexismoak eta injustizia sozialek kezka eragiten dietela, batzuek aipatu dute generoaren gaia dilema moduan eta kontraesanez beteta bizi dutela *“Dilema izan dut eta badut”* (Nekane) eta aktibista feminista den beste elkarrizketatu batek gaia teoriatik praktikara ekartzearen beharra aipatu du *“Nik uste dut inportantea dela gainera gauza hauetaz hitz egitea, ematen du teorikoki aurrera goazela baina gero ez ditugula gauza asko hausnartzen oso presenteak ditugunak, ez? Ez dakit”*(Laura), beste batek bere inguruneari erreferentzia eginez gaia kontuan hartzeko ahalegina badagoela dio, baina asko kostatzen dela *“Arreta jartzen dute. Gero egia da kostatzen dela gauza batzuekin koskatzea. Bai. Inklusio ezkerrekoak dira danak. Eta....ez det ikusten hor benetako....ez dakit nola esan. Praktika bat edo izan beharko lukenarekin”*(Saioa).

Bollera gisa identifikatzen den eta dagoeneko haur bat baduen elkarrizketatu batek bikotearekin hazkuntza praktiketan desadostasunak dituela kontatu duen arren, generoaren

aferan adostasun osoa dutela esan du: *“Bueno horretan bai adostasuna egia esan nahiko erraza izan da Alaznerekin. Eta bai izan da gauz bat oso-oso hausnartua. Bai egin genuen lanketa bat eta....zeini eskatu arropa, ze arropa mota. Kalean nola azaldu. Itxura”*(Saioa).

Elkarrizketatu gehienek zintzotasunez onartu dute generoaren gaiak beraien pentsamendu, igurikapen zein usteetan eragina duela eta horren adibide dira haurdun daudela jakitean, ea neska ala mutil haurra desiatu duten galdetu diedanean jasotako erantzunak:

“Nik hasieratik nahiago nuen lehenengoa mutila izatea. Bai. Zergatik? Ez dakit. Ba igual... ni naiz lehena eta mutila más... no sé... más nobles o más tal... Igual hori esango nizuke. Baina momentua iritsita igual zitzagun”(Nekane).

“Egia esanda, aurrenekoan berdín zitzaidan. Aurrenekoan bai igual zitzaidala neska edo mutila. Gero kasualitatez neska izan zen eta orduan izan zen, ba beste neska bat gehiago. Baina bigarrenean... bueno, bigarren aldia mutila nahi nuen, probatzeagatik mutila. Baina baita ere neska nahi nuen, zeba adinez gertu izango zirenez, ba bi nesken arteko harreman hori edukitzeagatik. Orduan, berdín zitzaidan, baina bueno, bakoitzarekin gauza desberdinak espero nituen. Neska baldin bazen, ba bueno, bien arteko harreman hori izatea oso polita izango zen, zeba adinez gertu daude eta hori dena; baina gero ere, mutilarena espermentatu nahi nuen, mutila izatea, ez? Gero orain denak esaten didatena, *“ikusiko duzu pardela aldatzerakoan ze desberdina den neska edo mutila, porque mutilak pixa egiten dute eta ez dakit zer...”*. Baina bigarrenean, ba hori, gauza desberdinak espero nituen batekin edo bestearekin” (Ainhoa).

Bestalde, beraien haurra arra ala emea izan beraiantzat zer aldatzen ote zen galdera erantzun dute. Mutila balitz...

“Eta gero, baldin bada mutila sentitzen dela eta baldin bada neskak gustatzen zaizkiola, nire amak nire anaiari bezala, gustatuko litzaidake esatea *“txikito, mutila zea, haurdun gelditzen dena bestea da, baina zuk hor parte daukazu eh, ardura zurea da. Orduan, hemen jiji-jaja bale, baina neurriak hartu eta egiten duzunean ere ea nola egiten duzun. Ez bakarrik prebentzioarengatik, baizik eta harremana. Beti goxotasunarekin, kontuz nondik egiten duzun eta nola”*, ez?”(Nekane)

“Orduan, nire iruditegian mutila izateak, o sea, edo pitilina izateak, errazago imajinatu du, ez dakit zergatik, ba zure semea futbol kanpoan hor kriston lasai eta... O sea, baloiarekin ibiliko da eta ez du... ez? Ba espazioa nola hartuko duen ya imajinatu egin dut, adibidez. Eta espazioa nola hartuko duen horretan, ikuspegi feminista batetik nola eragin...”(Bea)

Neska balitz...

Baina neska izanda, eta ikusita nik neuk batzuetan ze zailtasun izan ditudan neska izateagatik, ze trataera desberdin jaso ditudan, no? Orduan, es como, preparatu zaitez. O sea, igual inkontzienteki, baina preparatzea ere... Ez beti, baina gizartean aurkitu

daitekela que parta de más abajo, eta bera ez dela inor baino gutxiago. Hori bai izango nukela gehiago kontuan, mutila izango bazen baino” (Nekane).

“Hombre, ba neska izatean... ba betikoa, ez? Matxismoa, indarkeria, biolazioak, egunero entzuten diren mila gauza horiek. Baina egia esanda, zertako pentsatzen hasi gerta daitekeenan, igual ez bada gertatuko, edo igual esperantza mantenduko dut 20 urteetan aldatuko dela gutxienez zerbait”(Ainhoa).

Elkarrizketatu batek aipatzen du genero eragin horri aurre hartu nahi diotela “*Bai, bai. Nik uste dut eragin, eragin du, seguro. Zuhainen kasuan ere jakin izan genuenean, ez dakit esaten ze izango zen, ze erditze arte, baino niretzako eragiten du*”(Saioa) eta “*Klaro, Zuhaini jarri genizkion gauza arrosa, more pila bat. Eta orain ez diogu jarri nahi berdin, irudikatzen dut haur basatiago bat orain, bai pixkat apurtuko duena*”(Saioa).

Beste batek gai interesgarria ekarri du hizketaldira, genero berekoen arteko aliantzak eta harremanak, batez ere, gizonen arteko harreman eta kodigoei erreferentzia eta nolabaiteko kritika egin die:

“nire sentsazio bat izan daiteke, ba bere sexu bereko jendearekin, adin batetik aurrera, gehiago ibiliko dela. Ba azkenean jendarteak horra eramaten zaituelako. Nirea, o sea, pitilindunekin gehiago imajinatzen dut, batez ere adin batetik aurrera. Eta imajinatzen ditut binkuloak eta beraien kodigoak errazagoak izango direla; edo beraiek errazago ulertuko direla; babestu ere, desberdin babestuko dela beraiekin; antzekotasunak beraiekin gehiago sentituko dituela”(Bea).

Behin sexismoa gure pentsameduetan badela onartuta, galdetu zaie sistemarteko indarkeriei aurre hartzeko zein balio diren oinarritzkoak eta beharrezkoak. Erantzunei esker, guraso horiek zein balio lehenesten dituzten aztertzeko aukera izan dut. Bat datoz elkarrizketatu asko balio gisa errespetua, berdintasuna “*berdintasuna, errespetua... Bueno berdintasunaren barruan sartzen da errespetua*”(Ainhoa), lanen banaketa “*eta etxean bertan. Amak erratza pasako du, ba zuk aspiradora*”(Nekane), aniztasuna “*ez dakit. Bueno erantzuna oso sinplea da. Baina aniztasuna balioan jartzea, zentzu guztietan. Bai, eta ez epaitzea jendeak egiten duenagatik*”(Saioa). eta abar aipatzean. Kide batek sistemarteko askotariko indarkerien aurrean haurrak bere tresna propioak garatzearen garrantzia aipatu du:

“Zerk kezkatzen nauen alde horretatik? Edozein indarkeriaren aurrean etxean tresnak jasotzea, hori izango litzateke nire helburua. Matxista indarkeria, sexista, homofobia, gainera guraso bollerak izanda, horrek bai kezkatzen nau. Lehen esan dut kristoren ilusioa egiten didala, baina era berean ere kezkatzen nau horrek zer mugituko duen. Nire helburua horren aurrean edozein indarkeriaren aurrean izango zen beharrezkoak dituen erreminta horiek etxean jasotzea, laguntzea edukitzen edo sortzen edo elkarrekin sortzea edo” (Laura).

Horiez gain, aipatu dituzte naturarekiko errespetua, animaliei maitasuna, Gabonak kristautasunetik kanpo ospatzea, mugak jartzea, elikadura osasuntsua, komunikazioa, mugikorrek in zein pantailekin harremana, emozioak adieraztea eta beste. Halaber, elkarrizketatu batek baino gehiagok balioen transmisioan garrantzizkotzat jo dute bikotearen arteko harremana eta komunikazioa eta adostasuna:

“Niretzat, komunikazioa gure artean. Bikotea eta nire artean eta bere artean, edo emozioei tokia egitea, edo... Bai, nire izateko eragatik, badakit emozioak eta konbertsazioak presente egongo direla bastante”(Bea).

Mugei eta beharrak patxadaz adierazteari buruz apunte baliotsua egin zuen guraso batek bere bikotekidearekin duen gatazka aipatuz:

“Hori, limiteak. Eta bai, poli malo, poli bueno esaten dit garelako gu. Poli bueno ni eta bera poli malo. Eta esaten diot que ni poli eta are gutxiago poli malo. Ez dala eman behar. Zuk limite bat ez diozu jarri behar oihuka. Ez dago ezer. Ez dago ezertan. Ez dakit zuk, baino horrek dakar gero ondorio bat. Zuk jartzen badiozu limite bat a las malas, haur horrek ere erreazionatzen du a las malas. Eta bueno, hola”(Saioa).

Osasun zerbitzu publikoetan erditze aurreko eta ondorengo saioak eta formakuntza eskaintzen da, baita edoskitzeari buruzkoa ere. Covid-19a dela eta, aurrez aurreko saioak bertan behera geratu ziren orain dela oso gutxi arte; beraz, elkarrizketatu gehienek ezin izan dute aurrez aurrekoa egin, online baizik. Elkarrizketatuei galdegin diet eta ea saio horiekin asebeteta sentitu ote diren, une honetan dituzten kezka, beldurrak eta hausnarketak partekatzeo aukerarik izan ote duten. Zazpi elkarrizketatuetatik lauk Magale³⁶ erditzearen prestaketa eta aholkularitza zerbitzu pribatuan egin dituzte erditze aurreko saioak. Elkarrizketatu batek oso gustura aritu zela esan ondoren, gaineratu du, espero zuela ikuspegi anitzagoa topatuko zuela bertan:

“Magalen oso interesgarria izan da gehienbat eduki dudalako espazio bat presentzialki egoteko, beste familia batzuk ezagutzeko puntu berdinean daudenak. Horrekin bakarrik..., konpartitzea, gainera oso jende majoa da eta jendearekin oso gustura egon naiz. Bai egon dela niretzako Magalekoa izan da lehenengo sentsazioa, sentitzea orain arte ez nuena sentitu, Zaltoa eta ni ekipo bat ginela, hiruok. Gero erreminta asko eman dizkirate ere Magalen, nik uste dut linea bat jarraitzen dutela eta eztabaidarako ez dagoela espazio gehiegi”(Laura)

³⁶ Magale, batez ere, gipuzkoan etxeko erditzeak artatzen aritzen diren emaginez osatutako elkarte da. Etxeko erditzeak atenditzeaz gain, askotariko zerbitzuak ere eskaintzen dituzte, tartean erditze aurreko saio presentzialak eta online saioak. Informazio gehiago: <https://magale.eus/>

Elkarrizketatu guztiek aipatu dute online saioak egon arren, jendearekin partekatzea faltan bota dutela eta askotan saio horiek erditzera bakarrik daudela begira eta beste gai askotaz ez dela hitz egiten *“nire ustez ez dago haurdunaldiko aldaketei buruz informaziorik, nik faltan bota dut, galdera asko izan ditut eta erantzunik ez. Adibidez sexu harremanak aldatu egiten dira eta ez da horri buruz ezer esaten”*(Maite). Beste elkarrizketatu bat bereziki kritiko agertu da edoskitzearen gainean ikastaro horietan jasotzen den informazioarekin, baldintza ekonomiko eta sozialak kontuan hartu gabe, beti edoskitzearen garrantzia (eta exigentzia) predikatzen dutelako:

“Bai orokorrean dago laktantziaren inguruan guztiz titiarekin, guztiz, eta titia bai ala bai. Horrek pixka bat kezkatzen nau zeren ez dauzkagu denok baldintzak titia emateko aukerak, uste dut gainera, titiarena ere akonpainamenduari doala oso lotuta. Lehen esan dudana, lan-baldintzekin, egoera sozioekonomikoekin eta hori falta izan zait”(Laura)

Beraz, guraso izateko bidean jasotzen diren saioak erditze unea eta edoskitzea prestatzera bideratutakoak dira. Inondik inora ez da haurren hazkuntza praktikei, ereduari, balioari eta abarri buruz hitz egiteko espaziorik eskaintzen. Parte hartu duten saioetan ea genero gaiei buruz hitz egin, entzun, formatu ote diren galdetxean guztiek ezetz erantzun dute.

5.3.3 Gurasotasun baimenak

Gurasoen uste, balio eta ideologiak eusten dituzte egunerokoan hartu beharreko hainbat erabaki praktiko ere. Horregatik, eta ideologia horiek ezagutzeko asmoz, galdegin diet gurasotasun baimenen gainean. Kontu praktiko honen atzean zein ideologia nagusitzen diren ikusi nahi izan dut. Gurasotasun baimenak asko aldatu dira azken bi edo hiru urte hauetan, 2021eko urtariletik aurrera, Espainiako Estatuan haur bat jaiotzen denean, guraso bakoitzak hamasei asteko lan baimena du, luzera berdinekoa eta besterenezina. Genero berdintasunaren aldeko neurri bezala aurkeztu da eta albiste ona dirudi, baina kritika eta baimenarekiko bestelako ikuspegiak³⁷ ere argitaratu dira (Fernandez, 2021b:20). Baliagarria izan zitekeen arren, elkarrizketatuei ez diet galdetu ea zein iritzi duten gurasotasun baimenak berdintzeari eta besterenezinak bihurtzeari buruz. Ostera, beraien etorkizuneko egunerokoan nola

³⁷ June Fernandezek arabera (2021:20) PETRA amatasun feminista plataformak hainbat aldarrikapen egiten ditu: 1)Alde batetik, prestazioa unibertsala izan beharko lukeela, lan kontratuaren menpe egotea ez baita neurri birbanatzailea. Hau da, estatuak 3.000 euroko soldata mantentzen dio langile pribilegiatuari, eta hutsaren hurrengoa ematen dio langabeari, lan kontraturik gabe dabilenari edota lan erreproduktiboan dabilzan milaka emakumeri. 2)Bestetik, neurriak guraso bakardun haurrak diskriminatzen dituela (Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzak, ordea, bai hartu dituela kontuan). Baimenak besterenezinak izatea neurri feminista bezala iragarri da, aiten erantzunkidetasuna bultzatuko omen duelako, baieztapen horrekin ere hainbat feminista ez daude konforme.

antolatzeko asmoa duten galdetu diet. Galdera honen bidez, agerian jarri nahi da bikotean zehar gauzatzen diren genero rolek haurren hazkuntzan badutela isla eta eragina. Marko teorikoan argudiatu den moduan, etxe bakoitzeko hezkuntza praktikak genero rolek eta egiteko modu maskulino eta femenimoek zeharkatze dituzte, oraindik orain (Ceballos, 2014). Hori dela eta, haur batentzat ez da berdin nor geratzen den etxean zaintza lanetan edota nork murrizten duen lanaldia eta horren arabera, nola antolatzen den egunerokoa etxean, bai etxeko garbiketak, bai antolaketa funtzioak, zaintzari lotutako gestioak eta abar. Elkarrizketatu batek etxeko lanak banatzearen garrantzia nabarmendu zuen hizketaldian zeha:

“Eta zentzu batean nik oso barneratua dut eta Hodeiekin hitz egiterakoan ere, es que halaxe da. Guk orain arte, bera gaixo egon delako eta nik etxeko karga hartu dudalako, baina es que ordura arte horrela izan da. De hecho, garai bat egon zen ni lanean eta ikasten ari nintzela, eta nik etxean ez nuen ezer egiten eta dena berak egiten zuen. Jana, garbitu, labadorak... dena, porque nik libre bakarrik igandea nuen eta berak esaten zidan nahiago zuela nerekin aprobetxatu eguna eta berak egin lehenago dena. Orduan, zentzu horretan beldurrik ez dit ematen, baina iruditzen zait etxetik egin behar den lanketa dela”(Nekane).

Askotariko egoerak topatu ditut elkarrizketatuen artean: elkarrizketatuetatik bi langabezia daude, beraz baimena langabeziaren baitan kobratuko dute; beste bi irakasleak dira, bat funtzionarioa eta bestea egonkortua haur eskola batean; beste elkarrizketatu bat zientzialaria da eta 10 urte baino gehiago darama zientzia zentro batean lanean; elkarrizketatu gazteenetatik bat ikaslea da eta ez du enplegurik (beraz baimenik er ez) eta besteak dentista laguntzaile gisa egiten du lan enpresa pribatu batean.

Bada gurasotasun baimena elkarrekin hartuko duen bollera bikotea, kasu honetan, elkarrizketatuak, dagozkion 18 asteen ondoren urtebetez (gutxienez) eszedentzia bat eskatzeko asmoa du, bere bikotea enplegura itzuliko da 16 asteen ondoren:

“Biok hartuko ditugu batera. Nik 18 aste ditut eta Zaloak 16. Tartean Zaloak bi aste lan egin behar izan ditu, baina gainontzean elkarrekin eta batera egin nahi genuen. Ni ere ados nengoen biok batera hartzea. Nik gero eszedentzia hartuko dut. Elkarrekin errazagoa izango zela uste genuen, hasiera horretan biok batera egotea. Egia esan oso guay dago. Ederki”(Laura).

Bigarren lesbiana bikoteak ere asmo bera du, baina elkarrizketatuak zaintzaren ardura handiagoa hartuko du, bikotekideak idatzi nahi duelako gurasotasun baimenak irauten duen bitartean.

"Baimenak batera hartukoitugu. Nik gero eszedentzia hartu nahi det, Zuhainekin bezela, ta ordun hasieran hartu ber det...ta bakizu ni funtzionario izanda dana nere

alde detela. Ta Alaznek ere hasieran hartukoitu, gerora lan billa hasteko...ta baliatuko du goizen ordu batzutan liburua idazteko. Jeje, horrela esanda ez da oso feminista gelditzen...baina ni oso lasai sentitzen naiz"(Saioa)

Bikote heterosexual baten kasuan, hasierako bi hilabeteak elkarrekin etxean igaro eta ondoren bikote mutila lanaldi murriztuan arituko da urtebete inguruan eta bere baimena horrela xahutuko du. Bikotekide emakumeak, berriz, haurrak zortzi hilabete inguru dituenean enplegura itzultzeko asmoa du, lanaldi murriztuan, baita ere. Oraindik pentsatzen ari badira ere, biak enplegatuta dauden bitartean haurra haur eskolara eramateko edota bera zainduko duen pertsona bat kontratatzeke aukera aztertzen ari dira:

“Arrazoiak, gure kasuan bularra izan zen aitzakia kakotxen artean. Bularra emanaz gero, ez nuen nire burua ikusten lanera joateko moduan, ez bi hilera, ez hiru, ez laura. Nik garbi nuen haurrarekin egon nahi nuela baina Felixek ez zuen aukera hori borrokatu, beraz, eroso zegoen erabaki horretan bera ere”(Bea)

Beste elkarrizketatu batek kontatu du bere bikotekideak hiru lau hilabete barru hartuko duela baimena, hasieran bera egongo da bi haurrekin, jaioko denarekin eta bestearekin, familiakoen laguntza izango du, baina bikotekideak lanean jarraituko du bere enpleguko martxa lasaitzen den arte:

“Bai, egia esan bai. Abuztua, egia esan, Aitorrentzat oso hilabete txarra da, zeren ostalaritzan egiten du lana eta dagoen hilabeterik txarrena da aita izateko. Baina momentuz, Aitorrek baja hartuko du aurrerago, azaro-abendu aldera... Eta bitartean nik nire baja egingo dut orain eta gero Aitor hartuko du azaro-abendu aldera. Orduan, plana da... Nik urtarrilean lanean hasi beharko banu, ba lana egiten hasteko aukera izatea, eta Aitor etxean gelditzea, ba bere lau hilabete horiek. Baina bueno, lanean hasiko naizen edo ez, ez dakit. Sobre la marcha. Deitzen badidate, bien, eta bestela, ere bai”(Ainhoa).

Bikote heterosexuala duen beste elkarrizketatu batek bere bikotekidea autonomoa dela kontatu du eta berak arduratu beharko duela aurrera begira ere haurraz *“kasu honetan, nik sakrifikatu beharko det, nire bikotea autonomoa da eta ezin du baimenik hartu lehenengo sektorean lan egiten duelako. Eskatu diot erditu ondoren gutxienez bi egun etxean egoteko”* (Maite).

5.4 Haurdunaldia eta hazkuntza praktikak: (genero sozializaziorako) lehenengo erabakiak eta hautuak

5.4.1 Lehenengo hautua: umekiaren sexua jakin ala ez.

<<Lehenengo ekografian bezala, bigarren goan ere tentsio apur batekin joan nintzen: gauza bera errepikatuz, hau da, ez nuela sexua jakin nahi. “Bien” erantzun zidan aurreko ekografoak. 6-7 hileko nengoen eta emaginarekin bisita izan nuen segidan. Azkenean, berari ere aipatu nion ez nuela haurraren sexua jakin nahi. “Ez duzu jakin nahi?” orduan postit bat jarriko dizut eta erdaraz idatzi zuen: “No quiere saber el sexo”. Horixe bera idatzi zuen postit batean eta haurdunaldiko kartilaren aurrekaldean itsasi.>>

Aspaldi, ekografiarik egiten ez zenez³⁸, pertsona jaio arte ez zen jakiten zein sexu kromosomiko izango zuen. Gaur egun, berriz, mendebaldeko jendartean, ohikoa da lehenengo hiru hilabeteetan (ekografia pribatuetan normalki) edota beranduago, umekiaren sexu kromosomikoa ezagutzea. Behin ezagututa, horren gaineko kontakizuna egiten zaie ingurukoei. Badaude haurraren sexua kontatzeko egiten diren festa modukoak, “Gender Reveal Party” izena dute eta, batez ere Ipar Ameriketara egiten badira ere, azken hamarkadetan munduko txoko askotara hedatzen ari dira. Aipagarriak dira “baby shower” izeneko erritu festa sinbolikoak ere, hainbat herrialdetan egiten direnak eta normalean sexuaren arabera batera edo bestera egituratzen eta ezaugarritzen direnak (Byström, 2015). Gure inguruan, oraindik orain, horrelako ospakizun nahiz errituak ez dira hain ohikoak; hori dela eta, elkarrizketatuek ez didate horrelako ospakizunen gainean ezer kontatu. Interesgarria izan da, hala ere, elkarrizketatu batekin amaitu ostean, grabagailutik kanpo, elkarrizketatuaren koinatak gaiarekin lotura zuen gertaera bat kontatzea:

“Ainhoarekin konpintxatu nintzen eta kontatu zidan mutila zela, familiako gainontzeko kideek ez zekiten eta orduan nik festatxo bat antolatu nuen, familiako guztiak elkarrekin bazkaldu ostean, globo urdinak eta postrerako tarta urdin bat enkargatu nituen, orduan eta modu horretan jakin zuten besteek mutila zela” (Kuadernoko apunteak).

Esanguratsua da nola gehienetan umekiaren sexua jakitearekin batera hasten diren gurasoak haurrari izena jartzen, etorkizuneko logela dekoratzen zein prestatzen, arropak aukeratzen eta abar. Modu honetan, sexuaren eta generoaren aldagaiak ezinbesteko bihurtzen dira umekitik pertsona izatera pasatzeko trantsizioan. Horrela baieztatzen du Cecilia Byström-ek (2015) Perun egiten diren “babyshower” izeneko festen inguruan egindako ikerketan:

³⁸ Gaur egun ere, munduko zenbait herrialdetan haurdun dauden guztiak ez dute doan ekografia bat egiteko aukera.

I propose that the baby shower could be conceptualised as a rite of passage, in which the unborn transcends from the state of fetus to a gendered baby. The acts of naming and attributing gender in the baby shower ritual, I argue, are requisites for incorporating the child into the society, as family members and, ultimately, as human beings. The baby shower can, thus, be regarded a crucial site for the ‘social birth’ of the Cusqueanean baby (Byström, 2015:1).

Ikerketa horrek zera ondorioztatu zuen: generoaren izendapena, sexua ezagutzetik abiatzen dena, ezinbestekoa dela umekia subjektu bihurtzeko prozesuaren eraikuntzan. Aldi berean, umekiari generoa atxikitzea etorkizuneko haurra komunitatean eta jendartean txertatzeko ezinbesteko bitartekoa da. Ondorioz, eta Judith Butlerrek (1999) baieztatzen duen bezala, generoa atxikitzeak giza gorputza egiten nahiz egituratzen du. Ikuspegi horren arabera, haur jaio berria “neska ala mutila da” galdera erantzutearekin batera bihurtzen da gizaki (Byström, 2015:27).

Elkarriketatu gehienek bat egiten dute baieztapen honekin, hau da, jakin beharra sentitzen dutela zein zen umekiaren sexua, nahiz eta norberan arrazoietan eta kuriositate horretan badauden matiz asko. Esaterako, hauxe dio batek:

“Bai, bai. Ez desberdintasunik egiten dugulako, baina jakiteko nahia. Nik ezin dudalako aguantatu horrenbeste denbora kuriositate hori jakin gabe. Baina ez gero arropak erosteko garaian gauza batzuk arrosak edo urdinak erosteagatik, ez? Gainera, alde horretatik, ni saiatu naiz, ahal izan dudan moduan, neutralenen egiten”(Ainhoa).

Azken honek aipatzen du aurretik ere alaba bat izan zuenez familiako kideengan sentitzen zuela horrelako desio bat iloba-biloba mutil bat izateko:

“Eta gero, ba txiste hori zegoelako, ba hemen ez dela mutilik jaiotzen. Aitor (bere bikotea) da mutil bakarra etxean, gero hiru ilobak neskak dira, guk ere alaba izan genuen lehenengoa... Orduan, zegoen broma hori de, ez hemen mutilak ez dira jaiotzen eta bigarrena jaio zenean izan zen, como de... Bai, badator bat”(Ainhoa).

Beste batek kontatu du hasieran bera ziur zegoela neska zela barruan zuen umekia eta izen bat eta guzti jarri ziola neska zela irudikatzearekin batera, baina ekografian jakin zuen umekiak zakila zuela. Sentimen kontrajarriak piztu zitzaizkiola kontatu du:

“Esan zigutenean mutila zela nik esan nion Hodeiri berdin-berdin Amane deitzeko, zeren da azkenean zuk nola sentitzen duzun. Ba ez dakit kortozirkuitatuta atera nintzelako hortik, edo neska zelako konbentzitatuta ginelako, edo ez dakit zergatik... eta izan zen “*orain zer?*” Eta orduan ez nuen sentitzen berdin Amane izena. Eta orduan berriz izena bilatzera mutilarentzat, eta aldi berean nire buruarekin borrokan “*zeba orain mutila delako dena aldatzen da?*”(Nekane).

Aktibista feminista den beste batek aipatzen du berak ez zuela jakiteko hainbesteko grinik, baina bere bikotekideak jakin nahi zuenez, ez zuela hori horrela izateko zailtasunik jarri. Gaineratu du, kuriosoki, bere ingurune feministako zenbait lagunek galdegin ziotela ea sexua jakin nahi zuen ala ez; jakiteak ala ez jakiteak lehia feminista batean sentiarazi duela esan du: *“Adibidez Mikelek “ze jakin nahi al duzue?”, edo besteak “joe, ba guk ez dugu jakin nahi, zuek bai?” Ekografiaren aurretik, ba igual bai sentitu dudala feministagoa izatea dela sexua ez ezagutzea”* (Bea) eta gehitu du *“Hori da. O sea, nire inguruko feminista batzuk erabakia hartu dute ez jakitearena. Orduan esaten duzu, “ah klaro, ez badut... feministagoa naiz”, eta hori ez da horrela”*(Bea).

Aktibista feminista den beste elkarrizketatu batek, berriz, sexua jakin nahi izan du genero bitartasun horrekin hausteko prest egoteko, sexuaren arabera, arropa, izena eta abar batera edo bestera egokitu beharra sentitzen duelako *“niretzako eragiten du adibidez, arropa hautatzerako garaian. Zeni eskatu, zer jaso eta zer ez. Orain, hasieran armairuak egiten ba hortan niri bai laguntzen dit* (Saioa), adibide gisa, kontatu du umekia aluduna zela jakin zuenean erabaki zu(t)ela haurrarentzat izena “Haran” izango zela; gaur egun, sexu markarik gabeko gisa izendatzen badu ere euskaltzaindiak, ohikoa delako izen hori mutiletan *“horrekin puskatzeko eta izena gustatzen zaigulako jarri diogu Haran”* (Saioa) eta zergatik ez aludun bati jarri izen hori.

Elkarrizketaturiko zazpi lagunetatik batek bakarrik kontatu du umekiaren sexua ez dutela jakin nahi izan *“guk argi geneukan ez genuela jakin nahi”*(Laura); hauxe erantzun dute zergatik galdetzean: *“Ez geniolako pisu hori eman nahi, ez genuelako espektatibarik jarri nahi umearengan eta bagenekien horrek inguruan jendea harrituko zuela”*(Laura). Genero espektatibarik gabeko haurdunaldia irudikatu zuten, baina horrek ez du kentzen barne kontraesanik ez du(t)enik izan, onartzen du sexu batekoa ala bestekoa izateak kezka, beldur, ilusio eta egiteko modu ezberdinak iradokitzen dizkiola:

“Baita konturatu naiz eta nahi dut lasai esan, ba bai, momentu batzuetan pentsatu dut aluduna baldin bada..., niretzako errazagoa izango da. Azkenean gatozen lekutik gatozelako, ni aludun bezala bizi izan naizelako eta horrek derrepente... ba zakila dauka eta tokatzen zait mutikote eredu horietako bat eta hori gestionatzea... momentu batzuetan onartzen dut bai izan dela kezka eta gainera onartu egingo dut, ez dut esango ezetz, dena super landuta daukadanik...” (Laura).

Aixa de La Cruz idazleak ere *La Marea* egunkari digitalean kontatu zuen asmo hori zuela bere haurdunaldian:

Así se lo prometí al óvulo recién fecundado que surcaba mis trompas de Falopio aquella noche: te llamarás Noa y no dejaremos que ningún ecógrafo te ponga etiquetas que son como cicatrices ... Lo encontré en una lista de nombres unisex, porque aquello era lo único que me importaba: que tuviera identidad antes que género (De la Cruz, 2019).

Nahiz eta ez zuen bururaino eraman asmoa:

Después de todo, mis retos no serán los mismos si me enfrento a la crianza de un niño que a la de una niña; no en un mundo en el que esta diferencia todavía es capaz de determinar si vives o mueres, me dije. Y aunque seguía (y sigo) sin creer que «niño» o «niña» sea una cuestión biológica, me presenté al control de las 20 semanas con la intención de obtener una predicción genital del tipo de opresiones que atravesarían el cuerpecillo de mi bebé. Quería salir preparada, sabiendo si tendría que educarlo para ser un hombre bueno o para utilizar un spray pimienta (De la Cruz, 2019).

Umekiaren sexua ez jakitea erabaki zu(t)en elkarrizketatuak erabaki horrek publikoki eta kalean sortutako egonezinez eta horien gestioaz hitz egin du *“Lehenengo gauza: “¿Ya sabes lo que es?”(Laura)*. Erantzuna entzun ondoren, jenderaren erreakzio ohikoena sorpresa handi baten esperoan baleude bezala tratatzea dela kontatu du eta hori beretzat deserosoa izan da:

“Eta gero sorpresarena, zer da? “Badakizu zer den?” Hau pilo bat galdetu didate “¿ya sabes qué es?”, “Pues no sé”, eta gero bestea da, sorpresa: “mira qué bien, sorpresa”. Imajinatzen dut ume bat tarta handi batetik ateratzen. Aber, mesedez, sorpresa. Orokorrean jendeari esan egin diot, izan da nire apustu bat, ipurdia pixka bat itxita batzuekin baina esateko: “nahi dut berak erabakitzea”. Behin esan eta gero jendeak esaten du “klaro, oso ondo”... igual jendeari ere falta zaiola entzutea hau, aukera hau ematea, esateko: “ba oso ondo iruditzen zait, klaro baietz, berak erabaki dezala”(Laura).

Aldi berean, argi du umekiaren sexua ez jakitea pedagogia egiteko eta jendearegan deserosotasuna sortzeko aukera paregabea dela eta horrekin oso pozik agertu da *“baina interesantea da zergatik azkenean da aukera bat ematen dizuna jendeak buelta batzuk emateko eta jendea asko deskolokatzen da”(Laura)*. Haurra jaiotzen denean eta jendeak galdera bera (zer da?) egingo dion egoeretan zer erantzungo ote duen ba al dakien galdetzean, elkarrizketatuak adierazi du haurraren genitalaren berri emango duela ziurrenik *“Niri ateratzen zaidan erantzuna da genitala esatea eta kito. Bai, “bagina dauka edo alua dauka edo tiene vulva”. Hori iruditzen zait”* (Laura). Elkarrizketatua oso kontziente da jendeak haurrari genero bat jartzeko, neska ala mutila den jakiteko behar handia izaten duela *“baina uste dut azkenean jendeak behar du jakin zer daukan. Jendea galdetzen ari zaizu zer daukan hanka-tartean, oinarrian da zer daukan hanka-tartean”(Laura)*. Horren harira, bere zortzi urteko ilobak eskolan izandako gertaera bat kontatu zuen: *“Miren joaten da eskolan eta*

aurreko batean kristoren mobida izan zuen bere bi lagun onenekin esaten ziotelako: “baina zu zer zera? Neska ala mutila?” “Ni Miren naiz!”. Eta azkenean bukatu zuen negarrez, irakasleei laguntza eskatzen”(Laura).

5.4.2 Haurren izendatzea: izenak eta abizenak

<<Kantauri izena gustatu zitzaigun, genero markarik ez zuelako. Kontua da, itsasoaren handitasuna ezin dela genero poltsa batean ala bestean sartu. Kantauri isurialdeak, natur elementuek oro har, gizakiok genero bat atxikitzeke dugun joera/obsesio absurduaz jabeazten gaitu.>>

Bilgune Feminista eta Emaginek (2016) argitaratutako *Izena eta izana ezbaian* izeneko koadernoan jasotzen da hizkuntzak errealitatea sortzen duela. Hizkuntzak errealitatea eraikitzen duen eran, ponte izenek pertsonak eraikitzen laguntzen dute. Pertsona izenek funtzio bikoitza dute: norbanakoa izendatzeko funtzioa dute batetik, eta pertsona hori, jendartean eta harreman soziopolitikoaren sare batean ala bestean kokatzen dute, bestetik (Bilgune Feminista eta Emagin, 2016:10). Beraz, izaera indibiduala eskaintzeaz gain, nortasun soziala ere transmititzen dute. Ponte izenek pertsona baten sexu, genero, adin, klase eta nazio identitateari buruzko informazio baliotsua ematen dute. Garaian garaiko eta lekuan lekuko erakunde handienek (Elizak, Estatuak...) pertsona izenak arautu dituzte eta horrek erakusten digu balio handiko tresna direla.

Egun, euskal izendegiaren afera, euskal lurraldeen zatiketa administratiboak bereizten du, eta horregatik, Ipar Euskal Herrian eta Hego Euskal Herrian, legea desberdina da. Ipar Euskal Herrian, Frantziako Estatuko legea ezartzen da eta, horren arabera, gurasoengan uzten da izena hautatzeko eskumena, hau da, haurrari edozein izen jar diezaiokete umearantzat iraingarria ez baldin bada. Hegoaldean, berriz, izendegiak Espainiako Estatuko legedia jarraitzen du eta dio izenak, lehen unetik, izendatua emakumea ala gizona den argitu behar duela. Euskaltzaindia da Hego Euskal Herrian euskal izendegia arautzen duen erakundea (ibid: 20-21) eta, Espainiako Estatuko irizpideak jarraitzen dituen arren, malgutasuna eta aldaketak onartu ditu azken urte hauetan. 2019ko ekainetik aurrera, Euskaltzaindiak izendegiaren sailkapenean aldaketak egin zituen sexuaren arabera izen banaketa gizonena eta emakumeena mantendu, baina beste bat erantsi zuten: izen epizenoen³⁹ zerrenda. Azken

³⁹Jon Ordoñe-k (2020) *Berria* egunakarian azaltzen duen moduan, *epizeno* hitza harraroa zaigu. Genero markarik ez duten izenak aipatuz gero, ordea, askok gogoratuko dute 2019ko ekainean Euskaltzaindiak izen neutroak onartzen hasi zela, irizpidea aldatuta. Horiek dira izen epizenoak, sexu markarik ez duten izenak. *Alai, Aloña, Amaiur, Amets, Araitz, Askatasuna, Bihotz, Euri, Gixune, Ihintz, Iraultza, Nahi, Zeru...* Bostehun izen epizenorekin hasi zuen Euskaltzaindiak zerrenda hori.

horiek emakume edo gizonei jarri ahal zaizkie, genero markarik gabekoak kontsideratzen direlako (Goikoetxea, 2019). Irizpideak aldatu badira ere, orohar, izendegiek egunerokoan emakumeak eta gizonak sortzen jarraitzen dute “izenak sexuen arabera bereiztean jendarteko genero sistema bitarra erreproduzitzen du eta bereizketak norbanakoaren eraikuntzan eragin zuzena du” (Esquizabel, 2014).

Aberasgarria izan da elkarrizketatuei gurasoek izena eta abizena jartzeko erabakia noiz, nola eta zein irizpideren arabera egin duten galdetzea. Bi kontu nabarmendu nahi ditut hazkuntza praktika gisa definitu dudana izena jartzeko ariketa horretan agerian geratu direnak: batetik, izenaren eta abizenaren ordenaren erabakia bikotean hartu dutela elkarrizketatu guztiek *“Izena bioi gustatu zitzaigun pilo bat. Uste dut nik entzun nuela eta berari komentatu nion, eta bioi pilo bat gustatu zitzaigun.”* (Laura); bestetik, inork ez duela erabaki honen harira desadostasunik edota gatazka garrantzitsurik aipatu. Beste zenbait gaitan desadostasunak aitatu badituzte ere, sentsazioa izan dut arintasunez erantzun dutela galdera.

Elkarrizketatuetatik hiru gurasok (ekintzaile feministak direnak) ez dute sexuarekin bat datorren⁴⁰ izenik aukeratu, horietatik bik izen neutroen, generorik gabekoen, alde egin dute; beste batek, normalean mutili jartzen zaien izena aukeratu du⁴¹ aluduna den bere etorkizuneko haurrari jartzeko. Hona hemen, aurretik ere aipatu dudana Haranen adibidea xeheago azalduta:

“Bai. Eta hori. Izena jarri nahi genion eta nik banuen beharra definitzeko. Izen bat jarri eta bagenuen buruan Haran. Baina esaten nuen “ez diot jarri nahi Haran zakila baldin badu”. Ze hemen daude Arane pila bat eta denak dira neskak. Arane. Eta esaten nuen “ez det nahi, nahi det jarri izen neutro bat baino benetan erabilera neutroa izango dena. Eta Haran justu zen, norma hori betetzea eta izena neutraltasun hori kentzea. Eta orduan esan nuen “benga, Haran bai baino alua badu bakarrik” bestela beste zerbait femeninoagoa. Bai. Eta horregatik jakin” (Saioa)

Generorik gabeko izenaren alde egin duen elkarrizketatu batek adierazi du bi sexuentzat balio zuelako eta izenaren esanahia asko gustatzen zitzaielako aukeratu zutela *“Bai bi aukeratarako balio duelako, baita nola sonatzen duen. Izena bera pilo bat gustatu zaigu eta gero asko gustatzen zait esanahia ere bai, kaia, portuarena, horrek daukan sinbolismoa”* (Laura).

Haurrari generorik gabeko izena jarri dion beste elkarrizketatuak argi adierazi du batez ere gustatzen zaiolako jarri diola Endai izena; bera ez dela gehiegi gustatzen ez bazaio ere izen neutroa jartzearen aldekoa *“O sea, ez nuen nahi izatea izen bat neutroa, baina ez zaidana*

⁴⁰ Hori diot, gizartean badagoelako uste hori nesken eta mutilen izenak daudenarena, nahiz eta horrek ez duen zertan horrela izan.

⁴¹ Gaur egun Euskaltzaindiaren zerrenda epizeno gisa agertzen da Haran; berriz, Arana edo Arane neskaren zerrendan.

hainbeste gustatzen. Hori ez nuen nahi. Esaten nuen “hasta aquí hemos llegado”, porque neutroa izateagatik ez dut hau direkzionatu nahi orain”(Bea). Generorik gabeko izenen inguruko bere iritziaz gain, hausnartu du, bere ustez, izenen sonoritatean ere islatzen dela zenbaitetan genero bitartasuna; halaber, bere ustetan nesken sonoritatea duten izenak errazagoak dira identifikatzen eta politagoak suertatzen zaizkio:

“Sonoritatean ere esango nuke badagoela bitartasun hori, kuriosoki. Eta gero kurioa da, esango nuke, nesken izen gehiago genituela mutilenak baino. Nik uste dut, hasiera batean esaten genuenean ere, aludunak gehiago ateratzen zitzaizkigula, eta pitilina... O sea, niri iruditzen zait alua izango balu, beste izen batzuk ere jokoan sartuko liratekela. Hori da esan nahi dudana. Inportantzia horretatik. Eta ez direla sartu jokoan zakilduna delako, bai. Zeren niri beste izen batzuk ere gustatzen zitzaizkidan, baina esaten genuen “joe, baina zakila du, ez?”(Bea)

Gainontzeko elkarrizketatuek sexuaren arabera izendapena aukeratu dute jaioko diren haurrentzat. Horietatik hiruk argi zuten sexuaren arabera izen bat edo bestea nahi zutela; horregatik, oraindik sexua ez zakitenean nesken izenak eta mutilentzako gustuko zituen izen berezituak zerrendak egin zituzten. Beste batek adierazi du sexua jakin arte ez zirela izena pentsatzen ere hasi. Batek azaldu du beraientzat izena euskalduna “Ez ginen inoiz hasi... ez dakit, griegoak, edo ez dakit, latinoak... ez”(Ainhoa) eta originala izatea “Eta gero ere nahi nuen pixka bat berezia. Baina pixka bat desberdinak nahi nituen. Ez nituen betiko... Jon, Ane..., ez? Horrelakoak ya badaude”(Ainhoa) izan zirela hautaketarako bi irizpide nagusiak. Bigarren dago haurdun eta (beste elkarrizketatu batek ere, aurretik kontatuko duen gisara⁴²), lehenengo haurrekin haurdun zegoela hasierako ekografian umekia arra zela esan zioten eta horren arabera izen bat aukeratu zuten; ondoren, bigarren ekografian emea zela baieztatu zioten eta izena aldatzea erabaki zuten:

“Bueno, es que Eihararekin, lehenengo ekografian esan ziguten mutila ote zen. Bueno eta orduan, kondizionatzen zaitu ba pentsatzea mutilen izenetan eta ez dakit zer. Hasieran mutila bezala eta orduan zerrenda bat egiten hasi ginen, eta ni mutila bazen, beti esaten nuen Enaitz, Enaitz... Eta orduan, Eihara nola mutila izango zen, ba Enaitz. Eta gero, bigarren ekografian esan ziguten “ez, neska da”. Eta nik esan nuen “seguru?”. Begirada bat bota zidan... esan nuela “bale, bale, barkatu”. Eta orduan esan genuen, “Ba igual Enaitz ez”(Ainhoa).

Abizenaren ordenaren erabakiari dagokionez, askotariko hautaketa irizpideak adierazi dituzte elkarrizketatuek. Esaterako, batek kontatu du zoriz aukeratu zutela “Abizenarena, ni beti izan naiz Nekane Irazusta nire amaren abizena aurretik, nahiz eta ofizialki Agirre daukadan. Hodeiekin hitz egin nuen eta erabaki genuen “harri horri har” egitea eta Irazusta atera

42 Ikus 76.orrialdean Amaneren adibidea.

zen”(Nekane). Beste batek aitagarreba kontentu uzteko beharra eta presioa sentitzen zuela aipatu du eta bere abizena aurretik ez joateak ez ziola axolarik *“Ez, egia esan, niri berdin zitzaidan. Aitorren aitari, ez bagenion jartzen Sarasketa, igual perrenque batek emango zion, momentuan geldituko zen, horrela... Eta orduan esan genuen, “ba Sarasketa”*(Ainhoa). Hirugarren elkarrizketatu batek ere norabide horretan, bere abizena aurretik joateri garrantzia handirik ez diola ematen aitatu du:

“Endai Etxabe Lizaso. Aritu ginen pentsatzen ea zeinen abizena lehenengo jarri, hizketan aritu ginen. Gure kasuan, familian Etxabe abizenekorik ez zegoenez eta Lizaso abizenarekin berriz batzuk bai, erabaki genuen Etxabe jartzea. Bietatik egon izan balitz, zozketa egingo genukeen. Egia esan, gainera, Felixi ilusioa egiten zion eta niri berriz ez hainbeste. Ez nuen ikuspegi feministatik kontu horri heltzeko indar handirik”(Bea).

Iritzi berekoak dira beste bi elkarrizketatu ere, beraien abizena aurretik joatea ez dutela beharrezkoa ikusten esan dute, senarraren abizena joango dela aurretik. Haietako bati galdera bera arraroa egin zaio, ez dutela hitz ere egin, *“ez dugu hitz egin, baina beti iten dan bezala ingo degu, nei ez zait bate inportik nire abizena aurretik joatea, Martin Egiguren izango da”* (Maite). Besteak, berriz, aipatu du hitz egin dutela, baina senarrari ilusioa egiten ziola eta berari ez zaiola inporta *“nik anaia daukat eta berak gordeko du gure abizena, senarraren kasuan ez dago beste anairik abizena gordeko duenik. Horregatik eta niri ez zaidanez inporta...”* (Ibaia)

Bollera den elkarrizketatu batek, aldiz, bere eta bikotearen abizenak aldatu eta amen abizenak aurretik jartzea erabaki zutela adierazi du:

“Abizenak aldatu egin genituen, bai Zaloak, eta bai nik. Biok jarri genituen gure amen abizenak lehenengo gisa. Kaik nire abizena izango du Zulueta. Kai Zulueta Eizagirre izango da. Oso garbi genuen abizena aldatzearen kontua, nahiko da, beti gizonak aurretik”(Laura).

Azken elkarrizketatu batek aipatu du burutik pasa zitzaiola amaren abizena aldatzea baina ez zuela liskar familiarretan sartu nahi eta azken unen erabaki zuela, lehenengo haurrarekin bere bikoteak elkarrizketatuaren abizena jartzea aurretik, hitz egin zuten arren, bien berdin baitzitzaien: *“Ta ordun, ba Alazne erditu zenean eman zizkiguten 10 minutu erabakitzeke hau, ta nik Alazneri esan nion berak erabaki bezela onartuko nula, ta horrela aukeratu zuen...”*(Saioa).

5.4.3 Objektu materialak bidaide etorkizuneko haurren (genero) eraikuntzan

<<Haurra jaio arte, bizilaguna ez zen hasi gure haurrarentzat jertsea josten. Alua zuela jakin eta hiru egunetan egina zuen arrosa kolore biziko harizko jertsea>>

Objektuek eta subjektuek elkarrekin eraikitzen dituzte etorkizuneko biografiak (Alonso-Rey, 2016:32); hau da, eragin zuzena dute etorkizuneko haurren identitatean, berarentzat aukeratuak izan diren objektuek, koloreek edota espazioaren antolaketak. Natalia Alonso-Rey-k (2016), migrazio politikak ikertzeko helburuarekin, migratu duten hainbat pertsonak beren irteera operazioan maletan sartu zituzten objektuak eta horien esangurak aztertu zituen; azken batean, maletan sartu zituzten objektuen analisiak migratuen iragana eta etorkizunerako nahiak eta desioak ezagutzeko aukera sortzen du. Bide berean, analisi honetan, haurdun dauden pertsonen beraien haurrarentzat aukeratu, jaso edota erosi dituzten objektu materialen gainean galdegin zaie; gainera, guraso berriek jaso dituzten opariren, arropen nahiz haurrarentzako objektu osagarrien argazkiak jaso eta aztertu dira. Izan ere, objektu material horiek guztiek haurraren etorkizuna eta etorkizuneko ahalbideak eraikitzeko gaitasuna dute (Rey, 2016:37). Aurrez ere, ikerlanean zehar aipatu da objektuak ez direla material pasiboak, alderantziz, subjektuekin elkarreaginean agentzia dutela, hala dio Maria Ruizek (2019:279): “cada vez es más común reconocer que los objetos también son agentes, sujetos activos, actores sociales, parte constituyente- y no solamente reflejo o receptor- de los procesos sociales”.

Haurdunaldiaren garaian erabiltzen, hautatzen edota gordetzen diren objektu materialei eta horien esangurei buruz gehiago jakin nahian, haurduneari baraienez bereziak ziren eta gordetzeko asmoa zuten objektu/gauza/dokumentu materialen gainean galdegin zaie. Batzuek ez dute jakin objektu konkreturik aipatzen, baina esaterako, batek haurdunaldiko testa egiteko erabili zuen “predicor test”-a “aldarean dugu prediktorea” (Nekane) eta lepokoa “*llamador del ángel edo esaten dena? Bolatxo bat? Soinua egiten duena?*” (Nekane) aipatu ditu. Beste batek haurdunaldi osoan zehar gainean ibiltzen duen liburua aipatu du: “*ba... “El embarazo consciente” liburua esango nizuke, toki guztietara nirekin eramaten dut eta tarte dudan bakoitzean irakurri egiten dut, niretzat liburu berezia bihurtu da*” (Ibaia). Horrez gain, deigarria iruditu zait beste elkarrizketatu batek, berak bereziki aipatu ez badu ere, etxean elkarrizketa egiten ari garen tokitik oso gertu aldare moduko bat duela, kontatu duenez egunerokoan eta garaiaren arabera elementu eta objektu ezberdinez apaintzen dute berak eta bikotekideak, “Haurdunaldiko testa bertan dago, baita kandela bat, lore lehor batzuk, lepokoa

eta bera eta bikotearen txikitako pare bat argazki”(argazkiaren deskribapena)⁴³. Beste elkarrizketatu batek ere haurrena izango den gelan berarentzako aldare modukoa du apal batean “buztinezko kaiku modukoa, elefante txiki baten irudia, idatziko ohar bat duen postit horia eta hilda dagoen bere amonaren argazki albuma daude eskuz egindako kuadro baten ondoan” (argazkiaren deskribapena). Adibide hauetan argi ikusten da objektu horiekin duten harremana estua dela eta objektu horiek errepresentatzen dituzten balio, sentimen eta igurikapen zenbait etorkizuneko haurrekin binkulatzen direla. Alonso-Reyk (2016:41) horri buruz hitz egiten du:

La importancia de la ubicación también nos obliga a pensar en la materialidad de los objetos. Dónde están implica también qué tipo de relación podemos tener con ellos: si pueden verse, tocarse, escucharse u olerse, o si nos obligan a recordarlos o imaginarlos. Aquí hay un papel importante para la dimensión emocional y la dimensión sensorial. Entender esta relación implica atribuir poder al objeto (pero no voluntad) (Dudley, 2010): al interactuar con ellos, se producen emociones, sensaciones.

Orain arte aipatutako objektuez gain, dokumentu pertsonalek sasoi honetan hartzen duten garrantzia ere azpimarratzekoa da, bada, haurdun egotea ez da bizitzan askotan errepikatzen den gertaera izaten eta, beraz, haurdunaldia etapa berezi gisa erregistratzeko joera izaten da; normalean haurdunaldian izandako esperientziak, bizipenak, pentsamenduak oroimenean geratzen dira eta horretan laguntzen dute dokumentu pertsonalek (egunerokoak, albumak, argazkiak, marrazkiak...). Horren adibide izan ohi dira egiten diren argazki sesioak, idatzi nahiz egunerokoak, bideoetan erregistratzea esperientzia, edota youtubeko kanalean zehar astez asteko bizipenak kontatzeko dauden askotariko saiakera eta publikazioak. Geroz eta gehiago dira gaur egun haurdunaldiaren esperientzia erregistratzeko ahaleginak eta hortik sortzen diren produktuak. Horiek guztiak dokumentu pertsonalak dira eta pertsonak mundua nola hautematen duten ezagutzeko informazio iturri horiek erabiltzearen garrantzi metodologikoa aipatzen du Ken Plummer-ek (1989) (Fernandez, 2018an aipatua). Bestalde, Joan Pujadas-ek (2000) honela definitzen du zer den dokumentu pertsonal bat: “Ikertzaileak bere ikerketan zehar motibatu edo sustatu ez duen eta, batez ere, aztertutako subjektuarentzat balio afektibo edo sinbolikoa duen edozein erregistro mota, iraganeko gertaerak gogora ekartzeko prozesuaren eragilea den funtzioarekin batera.” (Pujadas, 2000: 137; Fernandez, 2018:21ean aipatua). Elkarrizketatu guztiek esan dute ohi baino argazki gehiago atera dituztela haurdunaldian, batek honela kontatu du: “*Bai. Gainera, aurrekoarekin, Eihararekin,*

43 Kakotxen arteko adierazpen horiek argazkien deskribapenak dira ez dira partaideen elkarrizketa zatiak

oparitu ziguten haurdunaldiko argazki sesio bat eta hori dena”(Ainhoa); eta jarraitu du azaltzen:

“Bai. Hor ya, en alta definición dauzkagu. Es que Eihararekin dago de en alta definición eta bigarrenarekin, dago dena, pixka bat, ez? Ez da hain zera... baina bai, argazkiak eta hori, pila bat. Bideoak, Eihararenak, tripari muxu ematen eta horrelako gauzak. Baina fisikoa, fisikoa... ez; arropa eta hori bai, baina bestela ez dut ezer”(Ainhoa).

Ziurrenik informazio asko aterako bazen ere, ikerlan honetatik kanpo geratu da partaideek haurdunaldian zehar sortu dituzten dokumentu pertsonalen azterketa, ez ditut albumak, bideoak, idatziak eta horrelakoak ez eskatu eta ez eta aztertu ere. Aurrera begira ikerketan sakontzeko aukera eskainiko luke material horiek ikertzeak.

5.4.3.1 Ekografia, etorkizunaren behatxuloa eta oroitzapen ahaztezina

Ohikoa da haurdunaldian zehar egindako ekografiak ingurukoekin partekatzea eta ez galtzeko moduan gordetzea, une berezi horren sinbolo eta adierazle gisa. Maurice Godelieren (1998:54) aburuz, gordetzen diren gauzek identitate zenbait eta denboran zehar iraunkortasuna baieztatzen dituzte:

Para el autor «la fuerza de los objetos consiste en materializar lo invisible, en representar lo irrepresentable» (íbid.:158). Así «los hombres proyectan sobre las cosas e incorporan en la materia y forma de esos objetos los núcleos imaginarios y los símbolos de las relaciones reales que mantienen entre sí y con el mundo que les rodea» (íbid.:244), resultando de todo ello un proceso social a la vez que mental (Fernandez, 2018:22).

Bide horretan, ekografiek generoaren nahiz sexuaren atxikitze prozesuekin duten harremana eta bien arteko elkarreragina ikergai baliagarria da. Ez dira urte asko haurra jaio aurretik aluduna ala zakilduna izango den argitzen duten ekografia obstetrikokoak egiten direla. Horien bidez, haurdunaldiaren kontrola egin ohi da: umekia umetoki barruan ikus daiteke, bere egiturak apreziatu daitezke anomaliak baztertzeko, fetuaren ongizatea ikusi daiteke, plazentaren kokapena eta likido amniotikoaren bolumena ezagutu daitezke (Sifuentes, 2011). Halaber, haurraren sexu kromosomikoa ezagutzeko bidea ireki zuten ekografia horiek. Lekuan leku, osasun zerbitzu publikoetan eta, azkenaldian, geroz eta gehiago, pribatuetan egiten dira ekografiak eta, dena ongi dagoen ala ez jakiteaz gain, umekiaren sexu kromosomikoa zein den argitzen dute. Zentzu horretan, badira ekografiek pertsonen biografietan eta sozializazio prozesuetan dituzten inplikazioak nahiz eraginak, bereziki

genero eta sexu identitateak atxikitzean. Gurasoek ekografiekin duten harremana esanguratsua da. Ekografian haurdun dauden pertsonak ordenagailuko pantailan ikusten dute umekia, ondoren argazki formatuan hiru lau argazki jaso ohi dira gutunazal batean. Ekografia argazki bat den ala ez eztabaidan sartu gabe, aitortu dezakegu etorkizunean jaioko den pertsonaren lehenengo irudi ikusgarria dela, eta beraz behatxuloa; bigarren zentzu batean, oroigarri bihurtzen denez, balio sinbolikoa ere hartzen du. Argazkia da dokumentu pertsonaletan hedatuen dagoena. Tisseronek (2000; Fernandezek, 2018:21ean aipatua) dio pertsonifikatzen ditugun argazkiek munduarekin dugun benetako harremana gure nahiekin bat datorren harremanagatik ordezkatzeko dutela, horrez gain, mito familiarrei eusten dietela eta karga sinboliko handia dutela (Fernandez, 2019:21).

Elkarrizketatu guztiak bat etorri dira aurretik esandakoarekin, une berezia eta ahaztezina da ekografiarena *“O sea, bai une berezi bezala, zeren ordura arte gauza batzuk moztu bezala egiten dituzu”*(Bea), ez argazki izaera izan dezakeelako bakarrik, unean bertan ere aurrez aurre, pantaila baten bitartez bada ere, umekia ikusi eta entzuteko aukera eskaintzen duelako:

“Bakarrik joan behar izan nintzen. Alaznek itxoin zuen kanpoan. Bai. Bueno nahiko, bai, lasai nindoan nik uste det. Eta izan zen super polita, zeren, klaro, nik hain haragi gutxi daukadan, zegoen oso azalean eta orduan esan zidan... Esan zidan “ostras! Ze polita. Ze ekografia polita. Ez dakit zer izango den”. Eta zen pasada bat. Hola, ikusten dezu hola pertsona bat, hola txiki-txikia, bueltaka...oso polita izan zen. Bai. Eta hor esan nuen “ostras! Bai, bai. Hor dago”. Eta esan zidan “daukazu hain azalean, hasiko zara nabaritzen berehala bere mugimenduak”, eta hola izan zen. Eta orain ere nabaritzen ditut eta segituan deformatzen zait tripa, zeren... Bai”(Saioa).

Ekografiak une bereziak diren seinale batetik, eta bestetik, hotsek/soinuek ere izan dezaketen sinbologia eta bizitzaren errepresentazio gisa, elkarrizketatu batek kontatu zuen anekdota ekarri nahi izan dut: ekografiaren unean, bikotekideak sartzerik izan ez zuenez, mugikorrean grabatu zuen bideo batean; ondoren, bere bikotekideak haurraren taupaden soinua bere mugikorrean jarri zuen telefono deien soinu gisa:

“irten nintzen eta gero Hodeiri erakutsi nion eta kotxean emozionatua, negar batean jarri zen. Orain, deiaren tonua, ez dakit nola egin zuen, baina bideotik umearen bihotzaren hotsa atera zuen eta orain deitzen diozu eta umearen taupadak ditu. Un poco friki baina... Hori dena aitaren kontua da, nik ez dut egin”(Nekane).

Gainera, ekografiek, elkarrizketatu batzuen ustetan, prozesua erreala bihurtzen dute eta horrez gain, umekia ongi dagoen (ala ez) baieztatzen da une horretan: *“Segituan esan zidan “es uno y esta bien”. Pentsatzen dut beraiek ere badakitela hori, zeren lehen gauza entzun nahi duzuna da burua, hankak, dena ondo dago. Ondo dago horren bila joan nintzen”*(Bea).

Informazio horrek elkarrizketatu batek dion moduan patxada ekartzen dizu: “*Bai. Eta gero, behin ikusten duzula umea, esaten duzu “bai, hor dago”. Ya kontzientzia bezala hartzen duzu eta lasaitu egiten zara*”(Ainhoa). Ekografiek etorkizuneko haurraren biografian zeresana dutela argi geratu da landa lanean. Aldi berean, iragana zaintzen duen dokumentu pertsonala da, hori dela eta ekografiak gordetzeko asmorik bat ote duten galderari guztiek erantzun diote baietz.

Azkenik, nire hipotesiei erantzunez, argi geratu da gaur egun haurraren sexua jakiteko eta haurrari identitatea emateko ezinbesteko tresna bilakatu dela ekografia. Umekiaren sexu kromosomikoa bakarrik jakiten den arren, ondorioa eta sententzia argia eta garbia izana ohi da: neska ala mutila da. Elkarrizketatu gehienek, haurraren sexua jakiteko nahiari eutsi diote:

“Eta hamar minutu pasa nituen tripa... zera... jertsea altxata, buruz gora zapaiari begira, pantaila bere aldera giratuta, hitzik esan gabe bere zerak egiten, eta halako batean esaten dit “*¿sabéis el sexo? No.*” Eta ezer gehiago esan aurretik “*bueno, pues es varón*”. Esan nahi izan banio ez nuela jakin nahi, eta ez zen kasua, baina zas. Eta bueno sin más, “*ah vale*”(Nekane).

Aurretik adierazi bezala, sexua ez jakitea nahiago izan duena bakarra izan da:

“Hori da, dena hasten da hortik. Iritsi Osakidetzara eta jarri kamilan eta lehenengo gauza..., eta begira, bigarren ekografia gauza serioa dela, esaten dizute organo guztiak nola dauden eta badagoen anomaliaren bat..., inportantea da. Nire urduritasunarekin joan nintzen. Espero dut dena ondo egotea, ez? Kamilan etzan eta lehenengo gauza: “*bueno ya sabes que hoy vamos a saber el sexo de...*” Ezin dut sinistu, igual gehiago inporta zait gibela zer moduz daukan eta lehenengo gauza honi buruz hitz egingo didazu? Berehala esan nion, ez, ez, ez dut jakin nahi. Ondo, oso tipo majoa tokatu zitzaidan eta oso jatorra eta dena oso ondo, baina azkenean sortu zuen elkarrizketa bat eta sortu zuen komentario batzuk egitea.”(Laura)

Elkarrizketatuek kontatu dutenez lehenengo ekografiaren ondoren hasi dira kontatzen haurdun daudela, batzuek ordurako bazekiten umekiaren sexua, osasun zerbitzu publikoetan egiten duten ekografiaz gain, zerbitzu pribatuetara jo dutelako eta bertan hasieratik sexua argitzen dutelako: “*publikoan bikoteak sartu ezin zuenez pribatura joan ginen eta konturatzerako mutila zela esana ziguten*”(Bea).

Orain arte aipatutako funtzioez gain, ekografiaren argazkiak haurdun daudela gertukoenei komunikatzeko modua ere izan dira elkarrizketatuentzat; berietako hiruk esan dute ingurukoei whatsapp-ez bidali ziela ekografiaren argazki bat haurdun zeudela informatzeko: “*Bai, WhatsApeez bidali genituen. O sea... gertuko denei gauzak ondo zihoazela esateko, ba*

argazki bat bidaltzea...”(Bea). Eta beste batek berdintsu: *“Eta bigarrenarekin, atera genuen argazki bat Eihara ekografiaren argazkiekin eta jendeari bidali. Eta horrela esan genuen haurdun nengoela”*(Ainhoa).

5.4.3.2 Objektuak eta neutraltasuna: genero markarik gabe, posible ote da?

Elkarrizketatu guztiek aipatu dute gutxienez behin elkarrizketan zehar “neutro” edo “neutraltasun” hitza; objektuek genero estereotiporik gabekoak izateari erreferentzia eginez. Beraientzat neutroa zer den galdetzean, oso antzeko erantzunak jaso ditut, hala nola:

“azkenian pixkat ez eroritzea estereotipo tipiko horietan, ez? mutila dalako urdina, neska delako arrosa, edo mutila dalako lazitoik ez eta neska dalako bai. Gero ni gustu eta arropentzako berezia naiz, hasieratik bi amonei esan nien lazitos fuera, kuellos fuera, kolore mitikoak fuera, ez dakit... ez dakit oso ongi azalduko naizen. Neutraltasuna zaindu nahi dut baina estereotipoen kontra doazen gauzatxoak kontuan hartuz. Nire koinatak adibidez egin dio bodi bat koloretsua lore handiekin eta bistara neskena dela esango genuke, baina nik jarri egingo diot eta va ir mas chulo que chulo, edota kamiseta arrosa bat hartu nion beste lagun bati. Neutraltasuna logelan armairuak txuriak, alfombra mandala bat, kotxezitoa beltza, hamaka grisa eta egurrezkoa. De base todo simple eta gero beste gauza batzuen bitartez koloreak sartu”(Nekane).

Beste batek bere ustez neutroa zer den adierazteko koloreei egin die erreferentzia: *“ba neutro esan nahi nuenean kolore pastelez ari naiz, txuri, gris, urdin, berde xuabeak”*(Bea). Argi dago ikertzen ari garen gaian koloreek eta horien esangurek berebiziko garrantzia dutela. Marko teorikoan argitu dugun moduan, kolore arrosa eta urdina esanahi kultural eta sozialez betetzen joan dira historian zehar eta egun mendebaldeko jendartean arrosa femeninoaren eta urdina maskulinoaren atributu bihurtu dira. Edonola ere, elkarrizketatuentzat ere kolore arrosak eta urdinak genero estereotipoekin lotura zuzena dute *“Bueno, kolore arrosa ebitatu ez dakit baino oso estereotipatuak dauden erropak saihestu bai”*(Saioa).

Aurretik ere aipatu ditugun hainbat hazkuntza praktiketan (sexua jakitea, izendatzea eta beste), genero bitartasunaren kontzientzia maila ugari topatu ditut eta elkarrizketatu batzuen eta beste batzuen arteko aldeak behatu ditut. Asko dira haurrari begira haurdunaldian zehar gurasoak prestatzen joaten diren objektuak; elkarrizketan, batez ere, hauei buruz hitz egin dugu: lehenik eta behin erosi, jaso edota oparitan jasotzen dituzten arropa eta osagarri zenbait; bigarrenik, logelaren antolaketa.

Arropa eta osagarrien inguruan bizipen ezberdinak jaso ditut; aktibista feminista direnek gehiago aipatu dituzte arropak eta genero bitartasunari aurre egiteko aukera baten moduan ikusten dituztela:

“Zuainen kasuan bai egin genuen hautua arrosari eta emateko presentzia gehiago. Bai. Eta nik ustet horren ondorioz, bueno, gaur da eguna ikastolako mantenukoak nokaz egiten dio eta ez da bakarra. Koadrilan ere batzuei ateratzen zaie noka berarekin. Bai, eta lau urte egingo ditu. Baina zenbat eragiten duen arropak, orduan hori bai da niretzako inportantea. Bai”(Saioa).

Deigarria egin zait, aldi berean, elkarrizketatu guztiek kontatu dutela nahiago dutela beraien haurra gehiegi ez estereotipatzea, kolore bat edo bestea erabiltzearen aldekoak ez direla eta, horregatik, neutroaren alde egin duela dio batek *“Baina ez gero arropak erosteko garaian gauza batzuk arrosak edo urdinak erosteagatik, ez? Gainera, alde horretatik, ni saiatu naiz, ahal izan dudan moduan, neutralenen egiten.”*(Ainhoa); beste batek honela adierazi du: *“etxean egin ditugun aldaketak, ez dute bere sexuarekin zerikusirik. Gehiago izan da “persona dator”. O sea...”*(Bea); azken honek erantsi du kolore arrosarekin jolastea ere gustatuko litzaiokela: *“Ba pitilina du, baina niri ilusioa egingo lidake arrosarekin jolastea...”* (Bea). Baina aipatu dutenez, inguruko jokatzeko moduak eragina du norberaren haurraren ere *“Gero, egia da, ba hori, amona asko dauzka, birramonak dauzka, bestea dauka... Orduan, gauza panpoxoak iristen ziren alde batetik, beste aldetik... Baina bueno”*(Ainhoa); batzuk bere horretan onartzen dituzte jasotakoak, beste elkarrizketatu batek (arra espero duen batek) espresuki gertukoak abisuaren gainean jarri dituzte arropa eta osagarri estereotipuegiak ez oparitzeko eskatuz: *“Egin dizkiguten opariak eta... ba kotxezitoa, hamaka, trona... dena neutroa. Kotxezitoa beltza, hamaka grisa... baina nik ere horrela nahi dudalako eta hala eskatu nielako”*(Nekane). Gaineratu du etorkizuneko amonek bete dutela eskatutakoa, baina zalantzak ditu umekia emea balitz soinekoren bat erosteko tentazioari eutsiko ote zioten:

“Bai, bai... Baina zentzu horretan, amonaren aldetik eta ez da zearik egon... Hombre, neska izango bazen, soinekoak egongo ziren. Eta niri adibidez zapiak buruan eta asko gustatzen zaizkit, eta igual ni neu ere eramaten diren turbantito horiek? Seguruenik hartu egingo nioke”(Nekane).

Bestalde, hizketaldian zehar, haurrarentzat pasa dioten arropetan soinekorik ez diotela pasa jabetu da, neskentzako izan zitekeen arropak bai, baina soinekorik ez. Gertaera honek jendartearen iruditerian oraindik orain mutilek soinekoak jartzeko dituzten zailtasunak agerian jartzen ditu:

“Hori da. Eta gero pasa dizkiguten kajetan... Irenek mordoia pasa dizkigula eta nik uste dut zuela dena hor... plast eta hartu. Hor neskan arropa etorri zaigu. Igual soinekorik ez... Ah bueno... ez, igual soinekorik ez, baina neskaren arropa, argi eta garbi, berez nabarmena zena, bai. Edo txandal bat arrosa, horrela, ez dakit zein koloreekin; edo txandal bat grisa, baina hemen horrela brillantinarekin; edo... Esan nahi dut, denetik etorri zaigula”(Nekane).

Jarraian zintzoki adierazi du bere haurra aluduna balitz soinekoak jantziko lizkiokela seguru:

“Hori bai. Oso argi nuen neutroa. A ver, neskatala baldin bazen eta soinekotxo bat... Ni asko naiz gona jartzekoa, edo soinekoa. Gustatu egiten zait. Azkenean, esan nahi dut, joe... Baina es que egunen batean nire umeak, mutila izanda ere, soineko bat nahi dula, es que ez diot ukatuko. Igual ez da niregatik aterako horren erraz eta horrek ere...” (Nekane).

Ikerlanean zehar behatu ahal izan dut⁴⁴ soinekoek eta belarritakoek sinbologia eta genero sistemen errepresentazioarekin lotura zuzena dutela, kolore arrosak eta urdinak beste:

“Belarritakoekin beste dilema bat izan nuen. Neska baldin bada, belarritakoak de cabeza, porque ni kriston belarritako zalea naiz, baina ni naizelako, baina zeba? Neska delako? Eta mutila baldin bada? Biak egingo dizkiogu? Ba ez dakit, ba biak igual ez. Ya, baina zeba? Bi neska delako, mutilari bi ez? a ba mutila baldin bada orduan bat, baina igual 3 urterekin, eskatzen duenean... O sea, eta hor kriston dilema, de nola dugun barneratua, eta zergatik bateri bai eta besteari ez. Eta orduan zen, bueno ba orduan neskari ezta ere eta berak eskatzen duenean egin”(Nekane).

Izan ere, gauza bat da mutiltzat dugunari azkazalak pintatzea, elkarrizketatuak kontatu du asko poztu zela bere kuadrilako mutil izendatutako haur bat azkazalak margotuta ikustean; baina soinekoak ala belarritakoak jartzeak beldurtu egiten du:

“Joe, ba nik igual ere margotu egingo nizkioke, baina ya janzkeran soinekoarena... porque gero ya prakak, jertseak, eta... Nik nire anaiaren arropa erabili izan dut. Eta gaur egun, sudadera zaharrak, edo alkandora eta... eskatzen dizkiot eta kriston gustura. Eta bere garaian, nik telazko kaltzontziloak erabiltzen nituen pijama bezala. O sea, esan nahi dut, zentzu horretan... Baina soinekoak edo gonak mutilei jartzearena, edo belarritakoak bati hasieratik jarri eta besteari ez. Horrek, es como errealitateak bat batean plis-plast egin dit. Eta hortxe, zaila ikusten dut”(Nekane).

Kontrara, elkarrizketatu batek arropa transgreditzeko bide moduan ulertzen du eta oso kritikoa da jendeak sexuaren arabera bereizketak egiteko duen joerarekin, lehenengo haurdunaldia baina bigarren haurra denez, aukera izan du konparaketa bat egiteko, arra den lehenengo haurrarekin eta jaioko den eta emea denarekin:

⁴⁴ Nahiz eta ez nuen zuzenean soineko eta belarritakoaren inguruan galdetu, hizketaldian behin eta berriz agertu zen gaia.

“Guk Zuahinentzako eskatu genien haurra neska izan zuten bi gurasoei. Eta eskatu genien arropa nahi genuela filtrorik gabe. Emateko arropa tal cual. Eta orain berriz eskatu diegunean, aurrekoan poltsa bat eman zigun koinatak, eta dago soinekoz beteta. Eta hau ez genuen jaso aurrekoan. Eta hartu degu poltsa eta egin degu, bueno tal cual armairura eta ez degu erabiliko” (Saioa).

Bere ustez, jendea deskolokatu egiten du eta garrantzitsua da aukera hori ez galtzea eta haurrak arropa koloretsuarekin eta ez mutilentzat egiten diren kolore aspergarriekin janztea:

“Pila bat! Eta jendea Deskolokatu. Bai. Eta gogoratzen naiz behin tabernan esan zidan batek “ai ze neska polita!” eta esan nion “mutila da” esan nion nahita, esan nion mutila zela ze berak jakin zezan mutiletan ere iruditegi ezberdinak daudela Nik engainatu nezakeen. Baina tipak orduan jarraituko zuen bere iruditegi berdina, ezer kuestionatu gabe. Eta zen esateko modu bat, ez, ez, eraman dezake malla bat koloretakoa eta kamiseta laranja bat eta mutila izan”(Saioa).

Bestalde, opariei buruz galdetzean, jasotako oparietan kolore arrosa faltan bota duela aitortu du beste elkarrizketatu batek *“Jaso ditugunak, ba urdina, ez dakit zer... O sea, mutila denez, arrosa den ezer ez da sartu, kuriosoki, gure etxera. Bueno a ver, galtza batzuk eman zizkidatenak arrosa palo, bale; baina ez... gauza batzuk ez dira sartu...”*(Bea). Beste elkarrizketatu batek umekiaren sexua ez jakitearen alde onak aipatzen ditu harro:

“Gaur kontatu diot hau Zaloari esan diot, oso guai dago ez esan izana, zeren horrela opariak ere dira jendeak egin dituen gauzak..., denak dira kolore txuriak, grisak. Arrosa eta urdina ez da ezer sartu eta hori guai dago jendeak ere beste leku batetik... eta niri arrosa gustatzen zait, eta urdina ere bai. Esan nahi dut kolore bezala, hori ere guai dago. Jaso duguna dena da neutroa”(Laura).

Etxeetara egindako bisitetan, argazkiak atera dizkiet haurrentzako prestatuak dituzten arropatxoei eta baita etorkizuneko haurren logelei ere. Espero nuenaren kontra, ez nuen topatu logeletan, ez etxean zehar ere, estereotipuriko elementu argirik; alderantziz, haurren logeletan ez nuen arrosarik ala urdinik topatu eta argazkietan agertzen diren arropak ere (oso haur txikientzakoak badira ere) ez dute generoaren araberako estereotipo nabarmenik ageri. Hori horrela izatearen arrazoietakoa bat izan daiteke elkarrizketatuek beraiek espazioaren antolaketari neutraltasuna emateko jarri duten intentzioa. Izenaren aukeraketan ez bezala, espazioaren antolaketan gehienek zuriaren eta kolore apalagoen alde egin dute. Azkena esandako hori baieztatzen du elkarrizketatuak esandakoak:

“Eta logelarekin eta, adibidez nuen oso garbi, neska edo mutila izan, ez nuela nahi beraiek egunero egongo ziren espazio batek kondizionatzea era batera edo bestera. Orduan, bai dena pentsatu egin nuela jakin gabe neska edo mutila zen eta kondizionatu gabe. Eta dena pixka bat neutroa da, ba kolore aldetik, bai... O sea,

dena. Ez umea izateagatik dena dinosauroak dira, web orrialdetan ikusten dudak bezala; edo neskak izateagatik unikornioak eta sirenitak” (Nekane)

Ostera, elkarrizketatu batek argitu dit oraindik osatu gabe duten logelaren tonalidadeak neutralak zergatik aukeratu dituzten: *“saiatu gea tono txuria, berdea eta grisa erabiltzen. Orain mutila dugu baina hurrengo umea neska baldin bada, badaezpada bientzat baliagarriak izan daitezken koloriak aukeratu ditugu”* (Maite)

Azken batean, objektuen eta elementu materialen gainean galdetzeak eta behatzeak aukera eman dit genero bitartasuna oraindik orain gure hezkuntza praktiketan islatzen den aldagaia dela baieztatzeko. Pertsona, jaio aurretik, umetokian dagoen unetik bertatik, genero aldagaiak bete-betean zeharkatzen du; izan ere, inguratzen duten eta etorkizunean inguratuko duten objektu materialek (arropek, logelako apaingarriek, jostailuek, osagarriek) ere generoaren esanahiak bereganatuak dituzte. Hori dela eta, jaioberria den subjektuak inguratzen duten objektuekin harremanean eraikitzen du bere genero identitatea. Arrazoi hori dela eta, (elkarrizketatu batzuen iritziarekin bat eginez) objektu materialak genero bitartatasuna gainditzeko tresna baliotsuak gerta daitezke. Gainera, zenbaitetan elkarrizketatuen hitzetan genero markarik ukatzen bada ere *“nik berdin berdin jantziko ditut biak, biak berdin”*(Ibaia), dio bizkiak (arra eta emea) espero dituen guraso batek, aldiz, bere haurrentzat prestatuak dituen argazkietan nabarmenak dira kolore arroseko eta urdineko arropak, agian biak bientzat erabiliko ditu, baina elkarrizketan zehar susmatu nuen ezetz. Honela, bere etxeko objektuek bere horretan generoari buruz hitz egiten eta informatzen dute.

Analisian zehar atera diren ideia, argumentazio eta kontakizun horiek guztiak behin jasota, azken atal batean, egindako analisitik eta oinarri teorikoen atalak eskaintzen dituen ezagutzak konbinatuz hainbat ondorio nagusi atera eta kontatu dira. Beraz, datorren lerroetan ikerlan honen amaierako ondorioak irakurri ahalko dituzu, baita aurrera begirako lan ildo proposamenak ere.

6. ONDORIOAK ETA BALORAZIO KRITIKOA

Ikerlan honen interesa eta helburua izan da haurdun dauden pertsonen generoaren inguruan dituzten pentsamenduetan, sinesmenetan baita hazkuntza praktikan ere arakatzea. Oso hedatuak daude, bai gurasoen, baita herritarren artean ere, generoaren eta sexuaren naturalizazioaren gaineko ideia eta sinesmenak. Esaterako, neska eta mutilak jaiotzez, berez, eta arrazoï biologiko genetikoengatik direla ezberdinak (ezaugarri anatomikoez gain, izateko moduetan, portaeretan, gustuetan eta abar) eta oso txikiak direnetik nabarmentzen zaiola bakoitzari dagokion joera maskulino ala femenino hori.

Ikerketa honek gurasoen pentsamendu eta praktikak aztertuz, sexuaren eta generoaren naturalizazioaren ideologia identifikatu nahi izan du, batetik. Bestetik, aldagai horiek atxikitzea, baita identitateak eraikitzea ere, jaio aurretik, sabelean bertan hasten diren prozesu kultural eta sozialak direla ikusaraztea izan du asmoa. Egindako lanari esker, besteak beste, bost ondorio nagusi nabarmendu nahi ditut:

Lehenengo eta behin, argi geratu da haurdun dauden pertsonen sinesmenetan nahiz hazkuntza praktikan genero bitartasuna agertzen den errealitatea dela; hasieran planteatutako bi hipotesiak bete-betean baieztatu dira. Sexu eta genero bitartasuna gertaera kultural indartsua da gurean, haurdunaldian zehar gurasoek dituzten pentsamendu, uste eta praktikek hori jarri dute ebidentzian. Elkarrizketaturiko guraso guztiek onartu dute sexismoaren eta matxismoaren existentzia badela; hala ere, batzuek beraien praktikek nahiz pentsamenduek dituzten zantzu sexisten kontzientzia maila handia dute eta beste batzuek, ostera, ez dute zapalkuntza gisa eta bereizkeria moduan bizi oso txikitatik gertatzen den generoaren araberrako segregazioa. Azken horiek beraien hazkuntza praktikan ez dute dilemarik, kontraesanik edota ez bairik agertu; alderantziz, umekiaren sexuaren arabera, hasieratik genero bat atxikitu diete beraien etorkizuneko haurrei, horren araberrako izena jarri, hori kontuan hartuz prestatu arropak, logela eta abar. Hala ere, guztiek aipatzen dute haurra neska ala mutila izateak ez duela zertan bere etorkizuneko erabakietan eragin (adibidez, neska bada eta kotxeak gustatzen bazaizkio, aurrera!; edota mutil izendatzen bada eta panpinak nahi baditu, ba jolastu dadila). Aldiz, soinekoaren gaia atera den gehienetan, umeki arra dutenek aitortu dute soinekoak jaztea nahiko balu ez litzatekela erraza izango guraso gisa hautu horretan babestu eta laguntzea. Zehazki, aktibista feministak direnek kontzientzia maila

handiagoa agertu dute nabarmen. Beraien ahotsetan, behin eta berriz, kezkak, zalantzak, ezberdin egiteko nahiak eta abar agertu dira, azken horientzat, jaiotzetiko generoa atxikitzea bera haurrarentzat muga eta “kartzela” gisakoa izan baitaiteke.

Bigarrenik, generoa gure sistema egituratzen eta antolatzen duen aldagai garrantzitsua da (Connell, 1987) eta hori baieztatu da ikerlan honetan ere: generoak haurdunaldia erdi-erditik zeharkatzen du eta pertsona berri baten sortze prozesuaren eraikuntzan, gizaki bilakatzeko bidean, umekiaren sexua jakitea lehen urrats garrantzitsua da (Butler, 2007; Bristom, 2015), gaur gaurkoz. Zer da, neska ala mutila? galderaren gainean egin den azterketak horixe jartzen du agerian. Elkarrizketatu ia gehienek nabarmendu dute galdera aspergarria suertatu zaiela, batzuei gehiago besteei baino; badira galdera bera erosotasunez bizi izan dutenak ere, normala iruditzen zaielako jendeak zer den jakiteko nahia izatea. Kuriosoki, elkarrizketatu batek izan ezik, beste guztiek ekografiari eskerrak umekiaren sexua jakin nahi izan dute, kuriositateagatik, bikoteak nahi zuelako, baina batez ere jakin nahi zutelako, beraien buruetan ez zelako sartzen “zer den” jakiteko jaio arte itxarotea. Zergatik jakin nahi izan duten galderaren erantzunak ez dira errazak izan, elkarrizketatu batzuek ez dute jakin esaten zergatik duten behar hori (sexua) jakitekoa; beste batzuek azken finean sexuaren araberako banaketak egituratzen duen jendarte eremuan bizi garelako argumentatu dute, “ez liguke eragin beharko baina eragiten ditu”. Galdera bera genero gaiei buruzko eztabaida eta hausnarketa eragiteko tresna baliotsua iruditzen zait, hau da, zergatik da garrantzitsua oraindik jaio ez den umekiaren sexua ezagutzea? Etorkizunean, gaiaren inguruan pedagogia feminista egiteko aukerak eskaintzen ditu.

Hirugarrenik, genero bitartasunaren gaia aztertzeke bitarteko baliagarriak izan dira haurra inguratzen duten objektu materialak eta horien analisia. Ekografia batek eta bere gainean eraikitzen diren bizipenek eta narrazioek bere horretan hitz egiten dute generoari buruz, ia beste galderarik egin gabe. Berdin gertatzen da haurdun dauden pertsonen jasotako oparien argazkiekin edota etorkizuneko haurrarentzat prestatu dituzten arropatxo eta abarrekin. Deigarria izan da, kolore urdina eta arrosak dituzten genero esangurez kontziente, elkarrizketatu gehienek aipatu dutela nahiago dituztela kolore neutroak edota genero estereotiporik gabekoak. Beste elkarrizketatu batzuek, berriz, aipatu dute kolore arrosak tragesiorako aukerak ematen dituela umekia zakilduna denean; ez da hainbeste gertatzen kolore urdinarekin umekia aluduna bada. Oraindik orain, errazagoa da kolore urdinez jantzea

neska izendatzen den haurra, kolore arrosez mutil izendatzen dena janzteia baino. Beraz, zakilduna den umea, kolore askorekin, neskei atxikitutako irudiekin (loreak, tximiletak, bihotzak...) eta soinekoekin janzteia une hauetan hazkuntza praktika iraultzailea da; baita haurdunaldian zehar, umekiaren sexua ez dakizula esatea ere, edota aluduna den haurra orain arte mutili gehiago jarri zaizkien izen pontekoa jartzea. Asko dago egiteko, baina elkarrizketatuek kontatu dituzten genero markarik gabe edota genero marka hertsien kontra egiten ari diren praktikekin zerrenda luzea egin daiteke. Norabide horretan, objektu materialak sexismoa ezartzen duten bitartekoak dira edota, kontrara, genero disidentziarako eta genero autodeterminazioa posible izateko erraztaileak ere izan daitezke.

Laugarrenik, azpimarragarria da elkarrizketatuek haurra ulertzeko duen begirada. Guztiek ez bada ere, guraso gehienek aipatu dute haurraren autonomia, erabakimena eta bere gaitasunetan sinestea balio garrantzitsuak direla beraientzako. Ez nuen espero elkarrizketatuengandik jasotako haurra ikusteko modu hori hain hedatua zegoenik; beraietako lau formazioz irakasleak izateak ikuspegi horretan eragin duela uste dut. Badirudi, pixkanaka bada ere, heldukeria gainditzeko beharrezkoa den heldu eta haurren arteko harreman asimetriko horren gaineko kontzientzia (Jara, 2018) geroz eta handiago dela, baita haurren erabakimenean sinesten duten gurasoen diskurtsoak ere (ikerketan honetan ez da ikertu ea gurasoen hazkuntza praktikek heldukeria apurtu eta haurren autonomia puskatzen ote duten). Habaler, haurraren autonomia aipatzean ez da generoaren autodeterminazioaz hitz egiten. Hizketaldi batzuetan haurrak bere identitateak askatasunean eraikitzea ezinbesteko dela aipatu bada ere, eta elkarrizketatu batek genero identitatea haurrak berak hautatu beharrezkoa dela azpimarratu badu ere, oro har ez da haurrak duen genero autodeterminaziorako eskubideaz edo aukeraz mintzatzen. Ondorioz, badirudi, oraindik orain, gure jendartean genero autodeterminazioa ez dela haur guztientzat (haurtzaroarentzat) ezinbesteko baldintza, genero ezarriarekiko disidentzia eta deserosotasuna agertzen dutenei bakarrik zor zaien eskubide gisa planteatzen da. Bat nator Jane Ward-ekin (2015), konpromisoa hartu behar da haur guztiekin, -ez bakarrik generoarekiko deserosotasuna dutenekin-, genero bitartasuna hausteko bitartekoak eta tresnak eskura ditzaten.

Bosgarren eta azken ondorio gisa, ikuspegi eta formazio nahiz ekintzailtasun feministak sexismoa detektatzeko tresna gehiago eskaintzen dituela esan badugu ere, ikerketan zehar, argi ikusi da ikuspegi feminista izateak ez dituela beti berekin praktika ez bitarrak ekartzen;

alderantziz, batzuetan badakigu ez datorrela gure pentsamendu feministarekin bat, baina gurasoak kontraesan horiekin bizi dira. Gainera, jendartean, presio sozial handia dago genero estereotiporik gabeko hazkuntza eredia martxan eta praktikan jartzeko. Horren adibidea da, elkarrizketatu zenbaitek aitortzen dutela zer da neska ala mutila? galderaren erantzuna ematerakoan beti ez dutela indarririk eta gogorik modu feminista pedagogikoan erantzuteko eta galdetzen duenak entzun nahi duena esan ohi dutela: neska da edo mutila da. Horrek frustrazioa eragiten du, baina ez da beti erraza parean intentzio onez hurbildu den horrekin deserosotasuna eta nolabaiteko gatazka sortzea.

Ikerlan honetan zailtasuna izan dut, bereziki, generoari elkarlotuak dauden beste aldagaiak (klasea, etnia, arraza eta abar) identifikatu, neurtu eta behatzeko. Ikerlanaren dimentsioak eta denborak batetik, eta beste aldagaiak identifikatzeko izan ditudan zailtasunak bestetik (nire arrazakeria eta klasizismo barneratuak, besteak beste), zaildu egin du horien dimentsioak eta eraikuntza haurdunaldian zehar nola gertatzen den aztertzea. Egiteke geratu zait, beraz. Horrez gain, azterketaren muga gisa elkarrizketatu kopurua eta profila aipatu nahi ditut. Hasierako intentzioa ahalik eta haurdur profil anitzena topatzea izan arren, haurdun dauden elkarrizketatuak topateko zailtasunak direla eta, profilen arteko aniztasuna ez da hain aberatsa gertatu. Badira aktibista feministak direnenak eta ez direnak, elkarrizketatuetik bi bigarren aldiz izango dira guraso, adinean tarte handiak daude gazteenetik zaharreneira, batzuek enplegu finkoa dute, besteek finkotasunik ez edota langabezia daude, batzuk harreman heterosexual batean daude, besteak lesbianen arteko harreman batean; baina, oro har, gainontzeko aldagaiei dagokienez (klase soziala, etnia, arraza, errealitate lingustikoa, eta abar) antzekotasunak dituzte elkarrizketatuek.

Ikergai honetan sakontzeko, gutxienez, bi bide badaudela ere ikusi dut: lehenik eta behin, objektuen azterketan arakatzea, etorkizunean genero gaietan esploratzen jarraitzeko; ariketa xume bat egin dut objektuek informatzen, sozializatzen eta kulturizatzen dutenari buruz, baina uste dut, beste autore batzuek egin duten moduan, interesgarria gerta litekeela bide horretan urratzen jarraitzea. Bigarrenik, haurdun dauden pertsonak elkarrizketatu ditut, baina interesgarria litzateke beraien bikotekideak ere elkarrizketatzea eta batzuen eta besteen arteko aldeak parekatzea, baita bikote heterosexualen, lesbianen edota gurasobakarren arteko diferentziak ezagutzea ere.

Azkenik, esan nahi nuke lan honek eta bidean ikasitakoak nire ibilbide pertsonal eta profesionalean aztarna esanguratsua utzi dutela. Alde batetik, guraso naizen aldetik, nire pentsamendu eta praktiken errebisioa, galdetzea eta hausnarketa beharra bistan geratu dira eta horrek beste batzuekin partekatzeke espazioak sortzeko motibazioa eta nahia piztu dizkit. Bestalde, profesionalki, hezkidetzako aholkulari moduan, hain termino orokorra den hezkidetzaz baino gehiago haurren autonomiaz, partikularitasunez eta genero autodeterminazioari buruz hitz egiten hasteko garaia dela sentitu dut, oraindik orain, definitu, osatu eta edukiz bete beharreko kontzeptua izan arren, uste dut potentzialitate handia duela eta hemendik aurrera bide horretan arakatu, sakondu eta esploratzen jarraitzeko grina niregan dira. Ikerlanean argi geratu da haurdunaldian zehar izaten diren formazio saioetan, kontzientziario ikastaroetan eta abar, genero gaiak ez direla tratatzen eta, gainera, saio horietan lantzen diren hazkuntza ereduak ikuspegi patriarkalei eta sexistei eragiten diotela, gainera. Horregatik, lan honek aktuzio eta ekintza praktikoetarako inspirazio iturri ere izan nahiko luke, esaterako, haurdunaldian zehar eta ondoren (bai pribatuan, bai publikoan) jasotzen diren saioetako edukiak berrikusteko eta hazkuntza praktikei begirako formazio ildo berriak irekitzeko.

Orain arte, barruan nituen gurasotasun bizipenak, sentipenak eta informazioa nahasian ari ziren nire baitan dantzan, lan hau egin izanak, barruan ordena pixka bat, begietara argitasun pittin bat eta airean galdera berriak ekarri dizkit. Ez da hemen bukatzen, hortaz, aspaldi abiatu nuen genero gaiekiko konpromisoen bidea eta bidaia.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOA (Lanean erabili direnak)

Agirre, Amaia (2015). “Egunerokotasuneko negoziazioak bikote parekideetan”. *Uztaro*, 94, 5-18

Agirre, Katixa (2020). “Irati gurasoekin Euskal Herrian manifestua” Euskal Herria: iratigurasoekin plataforma. <http://iratigurasoekin.eus/>

Alonso, Itziar. (2006). *Amatasuna eta aitatasuna. Proposamen berriak*. Bilbo: UEU

Alonso, Natalia. (2016). “De objetos y migraciones: “hacer las maletas””. *Ankulegi* 20, 31-46

Barquin, Amelia (2015). “Gure umea hazi intersexuala balitz bezala”. *Kinka bloga*. [Online], eskuragarri hemen: <https://bit.ly/3yYvlaY>

Beauvoir, Simone (2019). *Bigarren sexua I*. Irene Arrarats (itzul). Donostia: Eskafandra.

Bilgune Feminista eta Emagin (2016). *Izena eta izana ezbaian. Euskal izendegia eta sexuaren araberako bereizkeria gida praktikoa*. Euskal Herrian: Bilgune Feminista eta Emagin.

Bizitzak Erdigunean Euskal Herriko Koordinadora Feminista (2020). *Covid 19aren txostena*. 2020ko apirilean publiko egin zen itxialdi betean.

Blazquez, Norma; Flores Fátima eta Rios Maribel (koor) (2012). *Investigación feminista. Epistemología, metodología y representaciones sociales*. México: Universidad Nacional Autónoma de México Centro de Investigaciones Interdisciplinarias en Ciencias y Humanidades.

Bonilla, Hebe. (2015). *Un cuerpo propio*. Performatividad(es) en la(s) identidad(es) infantil(es)*. Master Bukaerako Lana. Bilbo: EHU. Hemen eskuragarri: <https://bit.ly/3A0OmuJ>

Byström, Cecilia (2015). *The Ritual Construction of Fetal Personhood. A voyage through the Gendering of the Unborn in Peruvian Baby Showers*. Master Bukaerako Lana: Stockholm: Stockholm University. Hemen eskuragarri: <https://bit.ly/3tvWrov>

Bullen, Margaret (2017). “La antropología feminista: Aportaciones conceptuales para una epistemología participativa”, Jone Martínez Palacios (ed.) *Participar desde los feminismos: Ausencias, expulsiones y resistencias*, 29-63 (CL), Barcelona: Icaria

Burgos, Elvira (2012). “Devenires corporales: como pensar de un otro modo”. *Thémata Revista de Filosofía*, 46, 331-343

Butler, Judith. (2018). *Genero nahasmendua*. Ana Isabel Morales (itzul). Donostia: Elkar, Eskafandra [jatorrizko bertsioa 1999]

Castañeda, Patricia (2012). “Etnografía feminista”, Blazquez, Norma; Flores Fátima eta Rios Maribel (koor) *Investigación feminista. Epistemología, metodología y representaciones sociales*. México: Universidad Nacional Autónoma de México Centro de Investigaciones Interdisciplinarias en Ciencias y Humanidades. (217-238)

Ceballos, Esperanza (2014). “Coeducación en la familia: Una cuestión pendiente para la mejora de la calidad de vida de las mujeres”. *Revista Electrónica Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, [On-line]17 (1), 1-14 Hemen eskuragarri: <https://bit.ly/2YLWHEL>

Costa, Silvia eta Behaghel, Mahault (2020). “Parir en casa en tiempos de coronavirus”. *Musas*, 5, (2) 4-22 Eskuragarri hemen: <https://doi.org/10.1344/musas2020.vol5.num2.1>

De la Cruz, Aixa (2019). “Niño o niña”. *La marea*, Uztailaren 4a. Hemen eskuragarri: <https://bit.ly/3BXLLCg>

Delgado, Mireia (2018). *Transexualitateak. Hezkuntza-praktika feminista baterako ekarpenak*. Euskal Herria: Bilgune Feminista eta Emagin.

Del Valle, Teresa et al. (2002) *Modelos emergentes en los sistemas y las relaciones de género*. Madrid: Narcea mujeres

Emagin (2018). *Ezagutzaren matazak*. Gipuzkoa: Susa, Lisipe

Emakunde (2020). *Feminismoa eta Berdintasuna Hiztegia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Eskizabel, Idurre (2014). “Izena eta izana, euskal izendegia eta sexuaren araberako bereizketa”. *Jakin*, 202, 45-74

Esteban, Mari Luz (2006). “Amatasuna eztabaida antropologikoak eta feministak”, Alonso, Itziar (ed) (2006). *Amatasuna eta aitatasuna*. Proposamen berriak. Bilbo: UEU (41-54)

Esteban, Mari Luz (2008). “Etnografía, itinerarios corporales y cambio social. Apuntes teóricos y metodológicos”, Elixabete, Imaz (ed.). *La materialidad de la identidad*. Donostia: Editorial Hariadna. (135-158).

Esteban, Mari Luz (2009). “Identidades de género, feminismo, sexualidad y amor: Los cuerpos como agentes”. *Política y Sociedad*, 46 (1-2), 27-41

Esteban, Mari Luz (2013a). *Antropología del cuerpo. Género, itinerarios corporales, identidad y cambio*. Bartzelona: Edicions Bellaterra.

Esteban, Mari Luz (2013b). “Gorputzak eta politika feministak: feminismoa gorputz gisa”, Castillo, Isa eta Retolaza, Iratxe (koor). *Genero ariketak*. Donostia: Edo!, (167-202)

Esteban, Mari Luz (2019) “Antropología feminista: diálogos y tensiones con la antropología y el feminismo”, Cobo, Rosa (ed.) *La imaginación feminista. Debates y transformaciones disciplinares*. Madrid: Catarata (79-113)

Esteban, Mari Luz (2019). “Vidas que cuentan. La dimensión autoetnográfica en la investigación”, Fernandez-Garrido, Sam eta Alegre-Agís Elisa (ed). *Autoetnografías, cuerpos y emociones. Perspectivas feministas en la investigación en salud*. Tarragona: Publicaciones de la Universitat Rovira i Virgili (7-16)

Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxa (2017). *Erailketa sexistei aurre egiteko protokoloa*. Euskal Herria: EMM. Esteka hemen: <https://bit.ly/2Uko0nq>

Fausto-Sterling, Anne (2006). *Cuerpos sexuados*. Barcelona: Editorial Melusina

Fernandez, June (2019). “Zer izango da?”. *Argia*, 2648-18. Hemen eskuragarri: <https://bit.ly/3npCEpQ>

Fernandez, June (2021a). “Heldukeria”. *Argia*, 2716- 18. Hemen eskuragarri: <https://bit.ly/3889vqh>

Fernandez, June (2021b). “Gurasotasun baimenak”. *Argia*, 2723-20. Hemen eskuragarri: <https://bit.ly/3k1sSIr>

Fernández-Rasines, Paloma. (2016). “Parentalidad: leyes, normas y prácticas parentales”. *Quaderns-e de l'Institut Català d'Antropologia*, 21 (2), 119-134. Hemen eskuragarri: <https://bit.ly/35BwNnh>

Fernandez, M. Josune. (2018). *Narraciones acerca del origen familiar en la adopción transnacional. Estudio de los objetos biográficos y documentos personales*. Master Amaierako Lana. Donostia: EHU

Fontana, Laura. (2020). “Pandemia y rearticulación de las relaciones sociales”. *Perifèria*, 25(2), 101-114. Hemen eskuragarri: <https://bit.ly/38Zrks2>

Galet, Carmen. y Alza, Teresa. (2015). “Trascendencia del rol de género en la educación familiar”. *Campo Abierto*, 33-2, 97-114. Hemen eskuragarri: <https://bit.ly/3E6pp3m>

Gianini, Elena. (1978). *A favor de las niñas*. Madrid: Monte Avila editores.

Goikoetxea, Garikoitz (2019). “Irizpidea aldatu du Euskaltzaindiak, eta izen neutroak onartzen hasi da”. *Berria*, Ekainaren 14a.

Gomez, Victoria (2008). “El debate en torno a la regulación de la igualdad en la familia”. *Politica y Sociedad*, 45 (2), 13-28

González Gil, Teresa. (2009). “Flexibilidad y reflexividad en el arte de investigación cualitativa”. *Index de Enfermería*, 18(2), 121-125. Hemen eskuragarri: <https://bit.ly/2YCmE6f>

Green-Joy Fiona eta Friedman May (eds) *Buscando el final del arcoiris. Una exploración de las prácticas de crianza desde la fluidez de género*. Bartzelona: Bellaterra

Henley, Katte (2021). “Queer parents, gendered embodiment and the de-essentialisation of motherhood”. *Feminist Theory*, 0 (0) 1-21

Hernandez, Jone Miren (1999). Auto/biografia. auto/etnografía. Auto/retrato. *Ankulegi*, Extra 0, 53-62

Ibarguren, Oier (2019). *Identitate askeak eraikitzeke Hezkidetza Plan berri baterantz: Eusko Jaurlaritzaren I. Hezkidetza Planaren (2013-2019) azterketa kritikoa eta proposamen berritzailea*. Master Amaierako Lana. Donostia: EHU.

Imaz, Elixabete. (2001). “Mujeres gestantes, madres en gestación. Metáforas de un cuerpo fronterizo”. *Política y Sociedad*, 36, 97-111

Imaz, Elixabete (2006). “Haurra eduki ala ez: ugalketaren inguruko planteamenduak, desirak eta kontraesanak”, Alonso, Itziar (ed) (2006). *Amatasuna eta aitatasuna*. Proposamen berriak. Bilbo: UEU (95-106)

Imaz, Elixabete (2010). *Convertirse en madre. Etnografía del tiempo en gestación*. Madrid, Ediciones Cátedra

Jara, Irene. (2018). “Adultocentrismo y género como formas negadoras de la cultura infantil”. *Revista Saberes Educativos*, 1, 47-67. Hemen eskuragarri: <https://bit.ly/3hops0y>

Jimenez, Jon (2021). “La revolución de los cuidados” (elkarrizketa Maria Llopis). *Txalaparta*, 11 8-9

Manduiña, Nerea. (2017). *Los estilos educativos parentales y los procesos de socialización de género en el hogar: un estudio situado en el ayuntamiento de Bueu (Pontevedra)*. Master Amaierako Lana. Santiago: Universidad de Santiago de Compostela

Maquieira, Virginia (2001) “Género, diferencia y desigualdad”, Beltrán, Elena y Maquieira, Virginia (ed) *Feminismos. Debates teóricos contemporáneos*. Madrid: Alianza (127-190)

Ministerio de Igualdad (2020). *Publicidad y campañas navideñas Instituto de la Mujer y para la Igualdad de Oportunidades*. Madrid: Ministerio de Igualdad. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/3A4ToWV>

Montes, M^a Jesus (2010). “Transferencias de la maternidad”, Martorell, Maria Antonia; Comelles, Josep.M eta Bernala, Mariola. *Antropología y enfermería*. Tarragona: Publicaciones URV (16-37)

Montes, M^a Jesus. (2007). *Las culturas del nacimiento. Representaciones y prácticas de las*

mujeres gestantes, comadronas y médicos. Doktore tesia. Tarragona: Universitat Rovira i Virgili.

Llopis, Maria (2015). *Maternidades subversivas*. Tafalla: Txalaparta

Pérez, Francisco Javier (2014). "Identidad y diversidad cultural. Una visión antropológica del género y la sexualidad". *RESED*, 2, 12-32.

Perez-Arellano, Marta. (2021). *El niño que llegó con un futuro bajo el brazo y otros relatos*. Bilbo: Autoedición

Rodríguez Maria del Carmen (2007). "Opiniones de las maestras de Educación Infantil sobre el papel de la familia y la escuela en la configuración de la identidad de género". *REIFOP*, 10 (1), 1-9

Ruiz, Maria. (2007). "Antropologia feministaren sorrera eta teoria antropologiko feminista nagusiak". *Uztaro*, 63, 11-19

Ruiz, Maria. (2019). "La carpeta de Simone: objetos, género y extranjería en la experiencia carcelaria". *Etnográfica*, 23 (2), 275-298

Salegi, Eider (2021). *Irakaslearen begirada sentikorra*. Doktore tesia. Eskoriatza: HUHEZI

Salda Badago (2020). *Salda Badago. Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministak*. Euskal Herria: Emagin eta Salda Badago

Sifuentes, Sonia Marlen (2011). "La ecografía durante el embarazo". *Sapientis*, 0, 58-59

Simref eta Hegoa (2014). *Otras formas de (re)conocer. Reflexiones, herramientas y aplicaciones desde la investigación feminista*. Bilbo: EHU

Subirats, Marina. (2013). *Forjar un hombre, moldear una mujer*. Girona: Aresta Mujeres.

Thurén, Britt-Marie (1992). "Del sexo al género, un desarrollo teórico. 1970-1990". *Antropología*, 2, 31-55.

Thurén, Britt-Marie. (2008). "La crítica feminista y la antropología: una relación incómoda y fructífera Universidad de Gotemburgo (Suecia)". *Ankulegi* 12, 97-114

Trujillo, Gracia y Abril Eva. (2020). *Maternidades cuir*. Madrid, Editorial Egales

Valdés, Maria. eta Piella, Ana. (2016). "La parentalidad desde el parentesco. Un concepto antropológico e interdisciplinar" *QuAderns-e*, 21 (2), 4-22

Vega, Teresa. (2015). *Familia, educación y género. Conflictos y controversias*. Master Amaierako lana. Cadiz: Universidad de Cádiz.

Vivas, Esther (2015). Ni rosa ni azul. *Publico*, Azaroaren 19a. Hemen eskuragarri:
<https://bit.ly/3jYOy7T>

Ward, Jane (2015). “!Aparta tu género binario de mi infancia!: hacia un movimiento a favor de la autodeterminación de género en la infancia”, Green Joy eta Friedman May (ed) *Buscando el final del arcoíris. Una exploración de las prácticas de crianza desde la fluidez de género*. Bartzelona: Bellaterra

Witterick, Kathy (2015). “Bailan en el ojo del huracán: el don de la diversidad de género en nuestra familia”, Green Joy eta Friedman May (ed) *Buscando el final del arcoíris. Una exploración de las prácticas de crianza desde la fluidez de género*. Bartzelona: Bellaterra

ERANSKINAK

1) Elkarrizketa gidoia

0. Haurdunaldia

1. Zer moduzkoa ari da izaten zure haurdunaldia? Nola ezaugarrituko zenuke bizitzen ari zaren etapa hau?
2. Haurdun zauden unetik hona izan duzu bizipen esanguratsurik (aldaketa emozionalak, hormonalak, fisikoak...), zeintzuk? Nola sentitu zara horietan?
3. Gorputzean aldaketa handiak gertatzen dira haurdun zaudenean, zeintzuk azpimarratuko zenituzke? Zein dira une honetan zure gorputz sentazioak?
4. Egoera berezia ari gara bizitzen jendartean orokorrean, pandemia deklaratu zen 2020ko martxoan COVID 19' deituriko osasun krisia ari gara biziten. Gertaera horrek nola eragin du zure egunerokoan eta batez ere, haurdunaldian? uste duzu eraginik izan duela? pandemiarik gabeko egoera batean zer izango zen ezberdin?

1. Gurasogintza - hazkuntza eredu/praktikak⁴⁵.

5. Noiz sortu zitzaizun guraso izateko nahia? Nahia izatetik haurdun geratzeko prozesua nolakoa izan da?
6. Barruan duzun horren guraso izango zara, nola irudikatzen duzu gertaera hori? Zein pentsamendu eta emozio nagusitzen dira une honetan zuregan? Beldurrik edo kezkarik baduzu? Zerk ilusionatzen zaitu?
7. Gaur egun, guraso izateko hainbat modu ditugu: badaude amabakarrak, bikotean guraso direnak, lagun sarean antolatzen direnak eta abar. Zuk zein erreferente dituzu inguruan? zein modutara izango zara guraso?
8. Hausnartu ote duzu zure etorkizuneko haurraren hazkuntza ereduan? Aurretik guraso bazara, nola definituko zenuke zure hazkuntza eredia? zein balio dira garrantzitsuak zure egunerokoan? zein ezaugarri/oinarri ezinbesteko ditu zure hazkuntza ulertzeko moduak?
9. Hazkuntza eredu horri begira, haurdunaldiko etapan zehar, zer da garrantzitsua zuretzat (adibideak, bikotean komunikazioa izatea, haurrari hitz egitea, nire burua ongi elikatzea... ?
10. Zein dira zure informazio iturriak hazkuntza ereduen gainean informatu ala formatu nahi izan duzunetan? Irakurri duzu libururik? hitzaldietan edota tailerretan parte hartu duzu, zeinetan? Horietan zein dira zuri baliagarriak egin zaizkizun mezuak/ideiak/adibideak?

45 [Hazkuntza ereduaren baitan sartuko lirakeke, edoskitzea, txupea, haurra porteatzea, loari lotutako erabakiak, elikadura, mugimendu librea vs. laguntzea, gurasoen arteko lan banaketa, hezkidetzeta eta begirada feminista...]

11. Aukera izan duzu zu bezala haurdun dauden pertsonekin elkartzeko edota biltzeko? Topaketa horietan iritzi eta egiteko modu ezberdinak daudela iruditzen zaizu?

3. Sexua eta generoaren sozializazioa

EKOGRAFIA

12. Zuretzat une bereziak izan dira ekografiarenak? gorde dezun argazkia? ondoren bidali diezu jendeari?
13. Nola bizi izan zenuen lehenengo ekografia? Lehenengo ala bigarren ekografian jaioko den haurraren sexua jakiteko aukera izan duzu? jakitea nahi izan duzu ala nahiago izan duzu ez jakin? Garrantzitsua zen zuretzat sexu kromosomikoa jakitea? Zergatik da garrantzitsua?
- a. Ez bazenuen jakin nahi, aukera eman zizuten horretarako?
14. Nola eragin du zuregan/zuengan jaioko den haurraren sexua jakiteak? uste duzu eraginik izan duela? zein kontu konkretuetan, zertan? (lagundu diezaioke, izenaren aukeraketan, bera jantziko duzuen arropen prestaketan, espektatibetan, bera nolakoa izango den imajinatzerakoan...?) Esaterako neska edo mutila izan beldur edota kezka berdina sortuko litzaizkizuke?

IZENDAPENA

15. Une honetan, ba al du izenik? kontatu nahi didazu zein den barruan duzunaren izena? erraz aukeratu duzu bere izena? Garbi zenuen? Nola izan da bere izena aukeratzeko prozesua? Sexuaren arabera izen bat edo beste jartzeko asmoa zenuen? Nola deitzen diozu hitz egiten diozunean, bere izenez, beste izendapen batzuk??
16. Orokorrean haurdun dagoen pertsona bat ikusterakoan jendeak komentario edo galderaren bat egin ohi du? Horri horrela izan da zure kasuan? Zein komentario, galdera, keinu iritzi eman/egin dizkizute haurdun zaudela jakitean edo nabaritzean?
17. Eta haurraren abizenak zein ordenetan jarri erabaki duzue? Nola hartu duzue erabakia?

OPARIAK / ARROPAK ETA OSAGARRIAK

18. Normalean, gertaera pozgarria izan ohi da haurdunaldia eta poz horrekin batera etorri ohi dira opariak ere, jaso duzu oparirik? zeintzuk? Nola gestionatu duzu oparien kontua?
19. Horrez gain, zenbaitetan, ingurukoek arropak eta haurrarentzat beharrezko tresnak “uzten” edo “pasatzen” ditu. Zuk-zuek nola antolatu zarete haurrak behar dituen kontuak izateko? [Kasu honetan, aukera balego, galdetuko nioke ea erakutsiko lidakeen gela, haurrarentzat tresna osagarriak, arropak eta abar]
20. Haurdunalia zure haurra jaio aurreko fasea da, badago zure ustez objekturik edo oparirik edo zerbait berezia uste duzuna gorde egingo duzula betirako? zein objektu dira horiek?

GURASOTASUN BAIMENAK

21. Nola pentsatu duzue antolatzea zuen artean etorkizunean? Pentsatu duzue enpleguratzea, baimenak eta abar nola hartuko dituzuen?

GENERO SISTEMAZ OROKORREAN

22. Hitz egin izan duzue zuen (bikotearen eta zure artean) genero sistemaren gainean? zein iritzi duzu zuk eta zure bikoteak nola bizi du gai hau zure ustez? Adostasunik edo desadostasunik agertu da zuen artean?
23. Nolakoa da zure iruditerian emakumea? Zein ezaugarri ditu zuretzat emakume batek? Sozialki zure haurra neska izango dela pentsatzean zerbait badatorkizu burura? Neska espero baduzu, zerbaitek kezkatzen zaitu?
24. Mutila espero baduzu, zerbait konkretuan kezkatzen zaitu?

4. Amaitzeko eta elkarrizketa ixteko

25. Nolako etorkizuna irudikatzen duzu zure txikiarentzat? Egungo errealitatean badago bereziki kezkatzen zaituen gairen bat edota arazo sozialen bat? Gizarte bezala zein erronka sozial ditugula uste duzu? horietan gurasoek baduzue zeresanik edota zereginik? Zertan, adibideren bat.
26. Zehatzago, indarkeria matxistaren gaia eta errealitatea ekarri nahi nuen honera. Zure ustez, gurasoek egin dezakete zerbait errealitate horren aurrean? zer?